

# Goienkaria

Egubakoitza / 2006ko abenduaren 29a / GOIENKARIAREN ARGITALPEN BEREZIA



# ARRASATE

URTEARI BEGIRATUA

# 2006

**ARAMAIO > 14**  
**ARETXABAETA > 17**  
**ESKORIATZA > 35**  
**LEINTZ GATZAGA > 44**



ARGAZKIAK: GOIENKARIA



## ZURE OPTIKA ITZIAR UGARTE

*Optika Audiometria Betaurrekoetan azken joerak  
Zorionak eta  
urte berri on!*

Arrasate pasealekua 35, ARRASATE 943 08 26 87  
Eskola Politeknikoaren ondoan

# URTARRILA



**"Ez dut gehiegi ulertzen 18/98 epaiketa ikuspegi juridikotik, behintzat"**

Natalde Landa > 18/98an inputatua / 2006.01.20



**"Geroago eta gutxiago jasotzen da eta beharra handiagoa da Saharan"**

Agurne Juldain > NUBI elkartearen 2006.01.27

## hileko esaldia

**"Pertsona nagusi batek behin esan zidan: 'txakolina edan behar da gutxi eta sarri'"**

Jabier Arregi > Kataide txakolina 2006.01.27

## hileko datua

# 40

2006ari begira Udalak 40.761.258,86 euroko aurrekontua zehaztu zuen. Aukeak, berriz, 1.513.561 euro eta Iturbide egoitzak 2.220.818 euro. PSE-EEren eta PPren kontrako botoekin onartu zuten.



U.M.

## Ezker Batuak udal gobernua utzi zuen

Zerrajera inguruan La Caixak egin nahi dituen etxebizitza sozialak direla eta, Ezker Batuak erakutsitako jarrerarengatik bota egin zuten alderdi hori gobernutik. Hala azaldu zuen Inazio Lakuntza alkateak.

Ezker Batukoek, berriz, salatu zuten udal gobernutik bota egin dituztela "euren mehatxuak ez onartzearen eta gure babesa ez ematearren Zerrajera gunearen ordenazioa aldatu eta legeari iruzur egin ahal diezaioten". Halaber, salatu zuten La Caixaren egitasmoaren kasuan gutxi batzuen interesa ipini dutela interes orokorraren gainetik.

## izen propioak



**Aritz Arrieta**

GAZTE SOZIALISTAK



**Jonathan Perez**

PERTIKA-JAUZIA



**J. Arantzabal**

IRAKASLEA

Arrasateko gazte sozialisten idazkari nagusi izendatu zuten. Baita Euskadiko komiteko kide ere. 2006.01.13

Atleta arrasatearrak Euskadiko Txapelketa irabazi zuen Anoetan, 4,85 metroko jauziarekin. 2006.01.09

Joxe Arantzabalek idatzitako liburua erabiliko du HABEK O s a k i d e t z a k o beharginak euskalduntzeko. 2006.01.30

## AURKIBIDEA

Urtarrila > 03  
Otsaila > 04  
Martxoa > 05  
Apirila > 06  
Maiatza > 07  
Ekaina > 08

Uztaila > 09  
Abuztua > 09  
Iraila > 10  
Urria > 11  
Azaroa > 12  
Abendua > 13

ARAMAIO > 14-15  
ARETXABALETA > 18-34  
ESKORIATZA > 35-43  
GATZAGA > 44-46

## Goienkaria

Argiraratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartearen Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Leire Kortabarria Erredakzioa Dihana Elortza, Aintzane Irizar, Irati Agirreazaldegi, Edu Mendibil, Jon Berezibar, Arantzazu Ezkibel Maketazioa Alex Azkarate, Oxel Arrieta, Imanol Soriano, Kepa Martelo Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar Testuen zuzenketa Sergio Azkarate



OID erakundeak ikuskatutako astekaria

### EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13  
Posta-e: goienkaria@goiena.com

### ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 5.660 ale



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)  
diruz lagundutako aldizkaria

### LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Aramaioko Udala



Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAK ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzien erantzukizunik.

Urte berri on!

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

# Goienkaria


Egubakoitza / 2006ko abenduaren 29a / GOIENKARIAREN ARGITALPEN BEREZIA



**ARETXABAleta**  
URTEARI BEGIRATUA  
**2006**



ARGAZKIAK: GOIENKARIA



**EGUZKIGRAF**

**inprimategia**

*Gabonak Zoriontsu eta bakean pasa ditzagun.  
Urte Berrí On !!*

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4  
Araba ibilbidea  
20550 Aretxabaleta  
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941  
E-mail: info@eguzkigraf.com



# GUREA

Ondo pasa gabonak!

## TABERNA

Durana 32 Aretxabaleta

Tel.: 943 79 20 64



### JAUSORO OSTATUA



Zorionak eta  
urte berri on!

Durana kalea 18 1.ESK  
ARETXABALETA

Tel.: 943 79 89 69  
Sakelakoa: 656 74 81 61



# Fino

Gizonezkoen  
ile apaindegia

*Ondo pasau  
gabon jaixak!*

Durana 19 • Aretxabaleta  
Tel.: 666 264 886



# ezkerrera berri

bakeak etxean behar dituelako, presoak etxera!  
elkarlanaren bidetik, Euskal Herriak erabaki!



aralar

# MAIATZA



**"Ume etorkinek jolasen bitartez ikasten dute euskaraz, ahoz landuta"**

Ane Arenaza > Irakaslea  
2006.05.26



**"Hobe da landarea lehor egotea urez gainezka baino"**

Marta Varela > Dendaria  
2006.05.26

## Energia landu zuten Eskola Agenda 21ean

Kurtzebarri eskolako Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleek energiaren gaia landu ostean, ezohiko osoko bilkuran aurkeztu zizkieten udalbatzarrari egindako lanaren ondorio eta proposamenak. Herritarron ohitura aldaketak, gizakiaren eragina klimaren aldaketan, herriko denda eta enpresen ohiturak eta Udalaren eraikinetako energia baldintzak aztertu zituzten beste batzuen artean. Energia aurrezteko ahalegin gutxi egiten dela ondorioztatu zuten eta energia berriztagarrien aldeko apustua egin beharrean gaudela aipatu. Ikasleek txosten mardula utzi zuten udaletxean eta erantzunaren zain geratu ziren.



M.A.

### hileko esaldia

**"Duranako pasabidea ez da edonolako izango, hainbat irizpide hartuko ditugu kontuan"**

Jose Mari Segovia >  
Aparejadorea / 2006.05.19

### hileko datua

# 127

Urku urtegiaren 127 hegazti espezie atzeman zituzten. Horietatik 36 mehatxupean dauden espezieen euskal sailkapenean zeuden, 24 Espainiako liburu gorrian eta beste 24 habitaten arteztarautan.



### Paregabeko giroa Otala Zelain

Eguraldia lagun herritar ugari hurreratu zen Otala Zelaira eta paregabeko giroa sortu zuten. 2006.05.14



### Harri handiak errepidera

Autobideko lanak egiten zebiltzan zelaitik harri handiak jausi ziren Arrasatera doan errepidera. 2006.05.20

### izen propioak



**Mikel Uribebarria**  
ZINEGOTZIA

Aralar eta EBk Udal gobernuan utzitako hutsunea betetzeko M. Uribebarria eta I. Saez de Azkunaga hautatu zituen alkateak. 2006.05.05



**Ines Osinaga**  
TRIKITILARIA

Debagoieneko II. Trikitixa Eguna ospatu zuten gurean. Tapia, Carles Belda eta The Solanosen kontzertuak egon ziren, baita beste hainbat ekitaldi ere. 2006.05.06



**Beñat Zamalloa**  
AKTOREA

Trilkimailu taldea desagertu eta KniK antzerki taldea sortu zuten. Euskararen Egunean AIO antzezlanarekin egin zuten aurkezpen ekitaldia. 2006.05.20

# GARCIA ENBALATZEAK

- ENBALATZE TOLESTAGARRIAK
- PALETAK
- EGUR KUTXA ETA KAIOLAK
- MOTA GUZTIETAKO TAULAK
- AGLOMERATUAK, TABLEXA, DM, ETAB.
- ENKOFRATZEKO TAULA



Etxabarri Auzoa 9 - 193 P.-K.  
Tel.: 943 79 81 36 Fax:a: 943 79 82 38  
20550 ARETXABALETA GIPUZKOA

Subinoa 10 - Gojain industrialdea  
Tel.: 945 46 62 09 Faxes: 945 46 56 33  
01171 LEGUTIANO ARABA

www.embalajesgarcia.com  
e-posta: garcia@embalajesgarcia.com

# EKAINA



**"Izugarrizko ilusioa dute Mitemeleten lanari ekin eta aurrera jotzeko"**

Jose Mari Sarasua > Mundukide  
2006.06.16



**"Su etena eskatu izan den moduan hona nire eskaera: errepresio etena"**

Irati Pagoaga > GOIENKARIAKO  
Kolaboratzailea / 2006.06.23



M.A.

## Arrasate eta Aretxabaleta arteko pasabidea

Aretxabaletako iparraldeko sarreran, Arrasatera pasatzeko dagoen zubiaren azpian, oinezkoentzat pasabidea egiten hasi ziren ekainaren erdi inguruan. Udalak egin zion eskaera Aldundiari tarte oso arriskutsua zela ikusita –oinezko askok gurutzatzen zuten errepedea– eta Errepide sailak hartu zuen lanen ardura. Iruñako Excavaciones Olloquiegui enpresak egin zituen lanok, eta 317.124 euroko aurrekontua izan zuten. Pasabidea egindakoan beste 180 metro konpondu zituzten trenbide zaharrarekin bat egiteko.

### hileko esaldia

**"Urats Gain itxi egin beharko da, baina egoitza berriarena oraindik ideia bat besterik ez da"**

Arritxu Oliden > Alkatea  
2006.06.30

### hileko datua

# 44

Aretxabaletako eta Eskoriaztako Udaletako ordezkariak bi herrien arteko mugarrak berraztertu zituzten. Aldunditik ere hurreratu ziren ordezkariak 44 mugarriei jarraipena egiteko.



#### Kurtzebarritik Lisboa bidaia

Galtzagorri elkarteak antolatutako Liburu Gaztea eta Idazle Gaztea sariketan irabazi zuten bidaia. 2006.06.16



#### Istripua kulturarako eraikinean

Kulturarako egiten zebiltzan eraikineko lehen solairuko hormigoizko plaka behera etorri zen. 2006.06.02

### izen propioak



**Pedro Balenciaga**

IGERI ENTRENATZAILEA

Aratz elkartekeo igerilariak zazpi domina lortu zituzten Donostian: J.C. Barkero, I. Iturbe, I. Areljaleibar eta J.A. Leonardo. 2006.06.02



**Olaia Sagredo**

IESBAA-KO KIDEA

Sahararen aldeko elkarte sortu eta haren aldeko astea antolatu zuten. Helburua zen herritarrei Saharako egoeraren berri ematea. 2006.06.09



**Iker Akizu**

MURRUKIXOKO KIDEA

IV. mendi martxa antolatu zuen mendi elkarteak. 28 kilometroko ibilbide samurra egin zuten elkartutako 357 mendizaleek. 2006.06.18

# NURR

## gortinak

Loramendi 8  
Tel.: 943 53 26 53  
ARETXABALETAKO

Gabon zorientsuak igaro!

Jantzien konponketak

Gortinak eta estoreak

Lentzeria

Izarak

Toallak



# Kilima

ume eta haurdunendako arropak



**Kilimak**  
gabon zorientsuak opa dizkizue!

Ilargi plaza, 6  
Aretxabaleta  
Tel.: 943 53 34 93



# UZTAILA



**"Egunero hartzen nuen txartel bat, eta hara, Txinara bidaia tokatu"**

Anjel Zubillaga > Mapfre  
2006.07.14



**"Maila oneko gidariak etorri dira Eskoriatzako 4x4 kontzentziora"**

Xabier Oñederra > Auto gidaria  
2006.07.03

## Intsigniak eta 6. txapela Errasti anaiendako

Errasti anaiek zortzigarren aldiz jokatu zuten Debarroko Pilota Txapelketako finala, aurtengoan herrian bertan, eta seigarren txapela eskuratu zuten.

Finala herrian jokatzeko zutela aprobetxatuta urrezko intsigniak ezarri zizkien UDAk Errasti anaiei eta Juan Mari aitari. 10 urtetik gora egin dituztelako senior mailan jokatzeko jaso zuten intsignia Unai eta Ibonek. Juan Mari aitak, oster, 25 urte baino gehiago daramatza UDAko pilota sailean lanean.



M.A.

### hileko esaldia

**"215 ume eta gaztetxo ibiliko dira uztaileko udalekuetan, inoiz baino gehiago"**

Maidar Revalo > Begiralea  
2006.07.03

### hileko datua

# 3.000

Kirol taldeek egiten dituzten jarduera berezietarako edo noizean behineko jarduerak finantzatzeko diru laguntzak eskatzeko deia egin zuen Udalak. 3.000 euro gorde zituen eskatzaileen artean banatzeko.

> UDALA

**Eskumenak hainbat zinegotzi eta Gobernu Batzordeari**

Alkateak eskumen batzuk eman zizkien Galo Sanchez, Maitane Urrutia, Iñaki Saenz de Azkuna-ga, Mikel Uribebarria eta Jesus Mari Herrasti zinegotziei, guztiak EAJko kideak. Baita Gobernu Batzordeari ere. Aralarrek bere garaian eskatu zuen hori, eta Sarasuak esan zuenez, benetan adierazgarria EAJ bakarrik geratutakoan gobernuan onartzea. "Orduan ere ondo iruditu zitzaidan eskaera, baina gobernuak talde bezala funtzionatu behar du. Eskumenak ez dira gura dena egiteko, taldearen lana errazteko baizik, nahiz eta kolore batekoa izan gobernu", esan zuen alkateak.

> LANA

**50 lagunetik gora Udalak ateratako lanpostuetarako**

Lanpostu bi kaleratu zituen Udalak uztail inguruan. Euskara teknikari posturako 53 lagunek eman zuen izena, eta dirubilketa eta idazkaritzako administrari izateko 51k. Azken horiek irailean egin zituzten azterketok eta lehen frogara 19 baino ez ziren azaldu. Beste bi froga pasatu ostean, abenduan Maia San Migel aretxabaletarra hasi zen lanean.

Euskara teknikari posturako lehen froga euskararen laugarren perfila ateratzeko zen. Inork ez zuen gaititu, hortaz, aurretik gaitituta zeukaten lau lagunek egin zituzten hurrengo azterketok.



## Aretxabaletako EAJ/PNV-k

**gabon zoriontsuak opa dizkizue aretxabaletar guztioi!**



# ABUZZTUA



**"Jaietako pasarteak jasotzen dituen kartela egin gura izan dut"**

Jose Angel San Miguel >  
Argazkilaria 2006.08.14



**"Urte asko egin ditut herriko mutikoak entrenatzen"**

Jose San Miguel > Pilota  
entrenatzailea / 2006.08.16

## hileko esaldia

**"Esperientzia polita baina gogorra izan da guztiondako diskoaren grabaketa"**

Juanjo Orobengoa > Akordeoi Orkestra / 2006.08.04

## hileko datua

# 5

Herritarrak Andramaixak ospatzen zebiltzala lapurrak sartu ziren Markole auzoan dagoen KZgunean. Bost orde-nagailu eta zerbitzaria eraman zituzten, eta ordezkatu bitartean itxita egon zen.

## Eguraldi eskasa eta jende gutxi Andramaixetan

Udazkeneko eguraldia izan zen nagusi lau egunetan, eta herritarrak poliki-poliki hurreratu ziren. Aratz taldeko ordezkariak eman zieten hasiera jaiari, eta Andramari eguneko meza nagusira Aldundiko ordezkariak hurreratu ziren, tartean Joxe Joan Gonzalez de Txabarri. Jose San Miguel pilota entrenatzaileak omenaldi beroa jaso zuen 17 urte inguru egin dituelako mutikoak entrenatzen. Urrezko intsignia ezarri zion Jokin Antxia UDAko presidentek, eta herritar ugari elkartu zen txalotzera.



M.A.

## KIROLAK > PREFERENTEKO FUTBOL TALDEA

## Zazpi jokalaria berrirekin hasi zuen denboraldia

Preferente mailako futbol taldea abuztuan dagoeneko hasita zegoen entrenamendu saioak egiten. Taldekide berriak zituzten gainera, zazpi guztira.

### TALDEKIDE BERRIAK

Felix Recio soraluzetarrak jarraitzea preferenteko taldea gidatzen erabaki zuen UDAk, Aurelio Calzon izango zen bigarren entrenatzailea eta Xabi Lasagabaster atezainen arduraduna. Taldeak hainbat aldaketa izan zituen; hona jarraituko ez zutenak: Oxel, Armendariz, Hegoi Arrieta, Unamuno,

Endika eta Dani Galan atezaina. Euren ordeztarritakoak: gazteen mailan ibilitako Gari Dublan eta Mikel Sanchez, bigarren mailako erregionaleko Ibon Gonzalez, Ekiotz Alustiza soraluzetarra defentsa lanak egiteko, Indautxu taldetik zetorren Ruben Leonardo pibota, iaz Mirandesen ibili zen Akaitz Garai aretxabaletarra eta Mikel Mondragon arrasatearra atezain lanetarako. Bestalde, Torresi ebakuntza egin zioten ekainean eta sei hilabete beharko zituen osatzeko, eta Jon Iregi ere min hartuta zegoen.

# Mobiliario ARENZA

Bizkaia 1 ARETXABALETA  
Tel.: 943 08 07

- Altzariak
- Diseinua
- Apainketa



Urte berri on guztioi!

# IRAILA



**"Kirol jardueren eskaintza zabala egin gura diegu herritarrei"**

Asier Mujika > Kirol teknikaria  
2006.09.08



**"Herrian ondo pasatzeko dauzkagun aukera batzuk jaso ditu gidak"**

Maider Etxaniz > Gazteria teknikaria / 2006.09.29



M.A.

## Kirol etxe berria egiteko ideia hautatu zuten

Herrian daukagun kirol etxearekin zer egin erabakitzeko ideien lehiaketa deitu zuen Udalak. 19 lan aurkeztu zituzten eta guztiak ondo aztertu ostean Asier Akuriola eta Fernando Bajok aurkeztutakoa hautatu zuten. Hona ezaugarriak: Beheko gelan gimnasioa egongo lirake, solairu bat beheago kantxa handia, trinketa eta rokodromoa. Lehenengo solairuan fitness gela eta harmailak, bigarrenan makinentzat gela, eta hirugarrenean hiru igerileku. Handienak zazpi kale izango lituzke eta pasabide bati esker kanpora ateratzeko aukera eskainiko luke.

### hileko esaldia

**"Lan mundura bidea erraztea du helburu abian jarri dugun Auzolan egitasmoak"**

Mirari Aiastui > Ongizate Saila  
2006.09.15

### hileko datua

# 36

Herriko Plazako arkupeak eta plaza bera birmoldatzeko asmoa azaldu zuen Udalak. Saneamendu eta berritze lanen proiektua egiteko deia egin zuen eta 36 mila euro aurreikusi horretarako.



#### Giro ona eta jende asko San Migel jaietan

Jende asko elkartu zen San Migel jaietan azokan eta giro ona izan zen nagusi aste bukaera osoan. 2006.09.29



#### Emaginik ez herriko osasun etxean

Lehen zegoenak alde egin eta emagin barik geratu ziren; kexa asko jaso zituzten osasun etxean. 2006.09.22

### izen propioak



#### Ramon Polo

LIVERPOOLLAGUNTALDEKO PRESIDENTEA

Liverpool taldea, Xabi Alosa lagun taldea sortu zuten hainbat herritarrek, eta aurkezpen ekitaldia jaialdi batekin egin zuten. 2006.09.15



#### Bixen Calzon

GOIENA SPORTEKO ARDURADUNA

Hitzarmena sinatu zuten UDAk eta Udalak zuzendaritza lanak egingo zituen enpresa bat hartzeko. Goiena Sport hartu zuten.



#### Goio Eskibel

BIATORISTEN BIKARIO NAGUSIA

Biatoristen bikario nagusi izendatu zuten 64 urteko abadea, eta sei urte egingo ditu Erroman Aita Santuaren inguruan. 2006.09.01



Olentzero,  
Gabon zahar gaua,  
Bizar Zuri,  
urte berria,  
erregeak...  
guk ere egun seinatu  
hauek zuekin ospatu  
nahi ditugu.



Aretxabaletako  
Eusko Alkartasuna



**MAPFRE**



**Zorionak eta urte berri on guztioi!**

## BURTSAN INBERTITU, DIRURIK

**FONDMAPFRE 611 BERMATUA  
FONDO BERMATU BERRIA**

- SEGURTASUNA %100
- ERRENTAGARRITASUN BERMEA %135

# URRIA



**"Poteoa gustatu zait; lagunok, senideok kalean elkartzen zarete"**

Luise Brogaard > Irakaslea  
2006.10.20



**"Herriko emakume zaharrena neu naizela? Ama ere halaxe izan zen"**

M. Lasagabaster > Emakume zaharrena / 2006.10.27

## Barriketan egitasmoa abian 24 lagunekin

Ekainean zabaldu zuen Udalak Barriketan egitasmoa abian jartzeko asmoa, eta urria 24 lagun hasi ziren lanean. Euskara Biziberritzeko Planaren barruan kokatu zuten Barriketan, eta Udal euskaltegiaren eta Loramendi Eeren laguntza jaso zuen. Euskaltegiko ikasleei eta euskaraz jakin baina egiteko ohiturarik ez dutenei euskaraz jarduteko guneak sortzea zuen helburu egitasmoak. Zazpi euskaldun zahar edo emalek eta 17 euskaraz egin gura duen edo hartzailek eman zuen izena, eta konpromisoa hartu: gutxienez astean ordubetaz euskaraz egitea. Beste hainbat ekitaldi ere antolatuko zituzten: berbaldiak...



M.A.

### hileko esaldia

**"102 mila euroko aurrekontua egin genuen Saharara eroateko, baina oraindik ez dugu guztia batu"**

Lide Mar > Arizmendiko ikaslea / 2006.10.27

### hileko datua

# 4,92

Udalak ematen dituen zerbitzuen igoera onartu zuten datorren urterako: ura %4,92 eta zaborra %4,27. Gainerako zerga gehienei KPIaren igoera aplikatzea adostu zuten.



#### Bizikletendako lekua Durana kalean

Bizikletak uzteko kiribila jarri zuten. Aurretik liburutegian eta gaztelekuan jarri zituzten. 2006.10.27



#### Azterketa inork gainditu ez

Euskara teknikari lanposturako lehen azterketa 13 lagunek egin zuten, eta inork ez zuen gainditu. 2006.10.27

### izen propioak



#### Jokin Antxia

ARATZEKO KIDEA

Aratz taldeak *Bidaia baten ametsa* film laburra aurkeztu zuen Italiako Gorgonzolako lehaketan. Hasiberrien film onenari saria jaso zuen. 2006.10.15



#### Iraia Aginagalde

TOPAGUNEKO KIDEA

Presoen alde lan egiteko Topagunea sortu zuten gurean: giza eskubideak eta politikoak aldarrikatzeko gune zabala. 2006.10.23



#### Inazio Galdos

MISIOLARIA

Indiako Gujerat eskualdean 55 urte daramatzan jesuita Munduko Landagunearen III. Biltzarrean etorri zen Jaurlaritzak gonbidatuta. 2006.10.27

## 2007 urte gozo-gozoa opa dizuegu!



Aretxabalaita  
Loramendi 6 • 943 77 17 19  
Basabe 2 • 943 77 00 81  
Aretxabaleta  
Bertako okina

Gabon  
zoriontsuak  
igaro!

POMODAPI

KTIBOS



ZAPATA DENDA

Murubide 2 behea / Tel.: 943 53 37 33  
ARETXABALETA



# IOSU

## harategia taberna

*Urdaitegia-gozotegia  
Kroasantegia  
Gertatutako janariak*

Mitarte 1 Tel.: 943 77 03 08



Javik eta Juanek gabon zoriontsuak opa dizkizute!

# AZAROA



**"Ohiturak ezberdinak dira baina hango eta hemengo jendea oso antzekoa"**

Siddique Mohammad >  
Pakistandarra / 2006.11.10



**"Ezintasunak ditugunoi gehiago entzun beharko ligukete"**

Hector Prieto > Historialaria  
2006.11.24



M.A.

**Otalora kalea guztiz berritzen hasi ziren**

Ur hornikuntza eta saneamendu lanak aprobetxatuta kalea erabat berritu eta dotoretzea erabaki zuen Udalak, eta azaroan hasi zituzten lanok. Lan bakarra zen baina hiru ataletan egitea erabaki zuten: Durana kale bukaeran hasi eta Aramaiora doan errepideraino lehenengoa, kuartela izandako eraikineraino bigarrena eta Santutxuraino hirugarrena. Lehenengo zatian Durana kalearen itxura ematea erabaki zuen Udalak, galtzada-harria jarrita. Amaral enpresari eman zion lanen ardura eta 9 hilabetetan egitea eskatu. 2.479.000 euroko aurrekontua zuten.

## hileko esaldia

**"Ludoteka lehiaketara aterako dugu legeak hala eskatzen duelako"**

Arritxu Oliden > Alkatea  
2006.11.08

## hileko datua

# 29

Elkartrukea antolatu eta Holandako Merlet eskolako 29 ikasle eta 2 irakasle etorri ziren Kurtzebarri eskolara. Aste bete egon ziren, eta herriaz gain Bilbo, Donostia eta Gasteiz ezagutu zituzten.



### Tranbiaren proiektua ikusgai

Azaroan iritsi zen tranbiaren proiektua udaletxera. Ikusgai jarri zuten alegazioak aurkezteko. 2006.11.24



### Oraindik oztopo arkitektoniko asko

Udalak irisgarritasun plana betetzeko ahalegina egin arren oztopo asko geratzen ziren, udaletxea bat. 2006.11.24

## izen propioak



**Alberto Trojaola**  
MUNDUKIDDEKO KIDEA

Hiru aste egin zituen Ekuatore Ginean Hiruatx eta Mundukidek abian jarritako oilasko kooperatiben proiektuari jarraipena eginen. 2006.11.10



**Itziar Astiazaran**  
FARMAZIA DEKANOA

Nafarroako Unibertsitateko Farmazia dekanoa eta ikerlaria Gipuzkoa saria jasotzeko hautatu zuen Aldundiak. 2006.11.10



**Iñaki San Migel**  
MURRUKIXOKO PRESIDENTEA

Mendi Astea antolatu zuen Murruxoko MEk eta lau berbal-di eskaini. Horieta-ko hiru herriko mendizaleek egin zituzten. 2006.11.20

## AITZORROTZ ELEKTRONIKA

## MASTER CADENA



Zorionak eta urte berri on!

Atezainak  
Antena Kolektiboak  
eta Parabolikak  
Instalazio elektrikoak

## ARANZABAL ELEKTRIZITATEA, KOOP. ELK.

Otalora, 14 • Tel.: 943 79 16 10 • ARETXABALETA  
Zerkaosteta, 15 • Tel./Faxa: 943 79 68 21 Mug.: 670 57 53 83 • ARRASATE



# ABENDUA



**"Gorputzarekin jolasten ikasten dugu kontakt dantzaren bitartez"**

Maier Etxebarria > Fisioterapeuta  
2006.12.01



**"Danbaka lehiaketako kontzertua ez da arrunta, berezia da"**

Iñaki Sagasta > Musikaria  
2006.12.12

## Beinke elkartea sortu zutela 20. urteurrena

1986ko abenduaren 15ean sortu zuten Beinke elkartea 15 bat lagunek. Kultura elkarte moduan eratzea erabaki zuten, eta lehenengo presidentea Dabid Agirre izan zen. 1993an proposatu zuten Ikastolak bazkideekin zuen indarra bideratu egin behar zela eta hala, Ikastolako bazkideak euskara elkartera pasatu ziren. Orduan jaio zen Loramendi EE.

Hori guztia ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu zituen Loramendi EEk, abenduaren 15ean. Beinke eta Loramendiren historia kontatzen zuen *performance*-a egin zuten herriko artista batzuek, baita Beinke-Loramendi dantza ere. Urteurrena borobiltzeko afaltzera joan ziren 105 lagun.



M.A.

### hileko esaldia

**"Arrasatetik Bilbora joateko lau autobus triste besterik ez daude, eta etortzeko, hiru"**

Lore Abarik > Informatikaria  
2006.12.01

### hileko datua

# 7

Ilargi plaza parean dauden zazpi edukiontziak lurperatzeko asmoa zuen Udalak, eta abenduan ziren hastekoak lanak. Edukiontzi bakoitza lurperatzeak 12 mila euroko aurrekontua zuen.



#### Bidegorriaren lanak hasi zituzten

CVL lantegia eta Eskoriatzara bidean dagoen tunela arteko bidegorria egiten hasi zen Udala. 2006.12.01



#### Dendarien protesta ekitaldia

Arrasaten egitekoak diren zentro komertzial handiaren aurka protesta egin zuten dendariak. 2006.12.12

### izen propioak



**Amaia Aranzabal**  
INSTITUTUKO ZUZENDARIA

Zilarrezko Q saria eskuratu zuen institutuak. Goi mailako zentro integratua izateko derrigorrez behar zuen. 2006.12.15



**Juanjo Orobengoa**  
AKORDEOIORKESTRAKO ZUZENDARIA

Akordeoi orkestrak uztailean grabatutako diskoa aurkeztu zuen, *Soinua soinu*. Sei lan sartu zituzten. 2006.12.15



**Joaquin Barbero**  
HERRITARRA

Zaharren egoitzan bizi den gizonak 100 urte bete zituen. Opariarekin hurreratu ziren Aldundiko eta Udaleko ordezkariak. 2006.12.18

## Presta zaituzte laser depilaziorako

- Besapeak
- Iztaiak
- Aurpegia
- Sorbalda
- Hankak
- Besoak

4-6 saiotan ilea desagertzea ziurtatzen du

## Milesman Diodo laserra

Laserraren iraultza


Euskadiko zentro bakarrean.

Etorri eta informa zaituzte konpromiso barik.

*Gemes*  
estetik

Ilargi plaza 2 / Tel.: 943 79 99 18  
ARETXABALETA

**Ondo pasa gabonetan!**





BARRUKO ETA KANPOKO LORATEGIAK ZAINDU ETA SORTZEN DITUGU

UREZTATZE-SISTEMA AUTOMATIKOAK INSTALATZEN DITUGU

Basabe poligonoa D-2-1. T/F: 943 79 78 45 / 616 96 57 98. 117 posta kutxa ARETXABALETA

**Zorionak eta urte berri on!**

# BASABE jatetxea

Basabe poligonoa Aretxabaleta  
Tel.: 943 77 07 94

- **Eguneko menua • Karta**
- **Plater konbinatuak eta ogitartekoak**

DOMEKETAN ITXITA (Enkarguak izan ezik)  
**GABON ZORIONTSUAK IGARO!**



# Goienkaria

Egubakoitza / 2006ko abenduaren 29a / GOIENKARIAREN ARGITALPEN BEREZIA



**ESKORIATZA**  
URTEARI BEGIRATUA  
**2006**



ARGAZKIAK: GOIENKARIA

boa navidade

merry christmas

joyeux Noël

**zori**onak

frohes weihnachtsfest

feliz navidad

bon natal

**FAGOR** 

Fagor Ederlan



# URTARRILA OTSAILA



**"Gabonetako oporraldiekin batera, lekualdaketa egin dugu, eta eskolek ez dute inolako etenaldirik izan"**

Araceli Telletxea > Musika Eskolako zuzendaria  
2006.01.20



**"Pozten nau jendeak euskal kulturaren gainean ardura izatea"**

Lorentxo Altube > Artista  
2006.02.18



**"Garrantzitsua da arriskua zenbatekoa den neurtzen jakitea"**

Joxerra Ezkibel > Eskalatzailea  
2006.02.25

**TURISMOA** > BALIABIDE TURISTIKOAK

## Turismo seinaleztapena jarri zuten herrigunean

Udalerriko turismo baliabideak ezagutzera emateko hainbat seinale, mapa eta panel jarri zituzten herrian. Horrekin batera, herritarrek ibai zain dezaten bestelako batzuk ere bai.

Udalak Debagoieneko Mankomunitateari eskatu zion turismo seinaleztapenaren gaineko

ikerketara egiteko. Horren harira, Udalaren asmoa da seinaleztapen osoa hiru urtean egitea. Hain zuzen, lehen ekinaldiak 11.120 euroko aurrekontua izan zuen.

Ondare artistiko-historiko izendatuta daudenez gain, beste eraikin batzuk ere nabarmendu zituzten.

**HEZKUNTZA** > HELDUEN HEZIKETA IRAUNKORRA

## Helduek eskolak jasotzeko egoitza, Intxaurtxuetan

Iaz Udalak erabaki zuen helduei hezkuntza emateko egoitza bat egokitzea. Horretarako Intxaurtxuetan auzoko etxabe bat hartu eta Zutarri enpresari adjudikatu zizkion egokitze lanok. Lanen aurrekontua 75.000 euro izan zen, eta Gabonen ostean bukatu zuten lana.

Dagoeneko zabalik dago eskola, eta bost irakasle zebiltzan eskolak ematen.

Helduen Heziketa Iraunkorreko arduradunak eta ikasleak gustura daude egoitzarekin. Bi ikasgela, irakasleen gela eta komunak dituzte. 25 bat ikasle zebiltzan eskolan.

> EUSKARA

## Hamaika ama ibili ziren Bidelagun egitasmoan

Eskoriatzarrak ziren guztiak eta seme-alabekin euskaraz komunikatu nahi dutelako ibili ziren euskara eskolak hartzen, hogeitaz orduz. Seme-alabekin ipuinak, abestiak eta jokoak euskaraz egin ahal izatea zen ekimen horren helburua; eta, hala, seme-alabekin hartu-emana euskaraz sendotzea, hain zuzen ere.

> TURISMOA

## Mendigoia hotelak atek zabaldu zituen Torrebason

Mendigoia hotelak atek ireki zituen. Hiru izar ditu eta Fagor Ederlan parean dago, Torrebason industrialdean. Guztira, 180 lagundako tokia du hotelak, 87 logelatan banatuta (arruntak eta luxuzkoak dituzte). Horrez gain, jatetxea, kafetegia eta batzarretarako aretoa ere badituzte. Han aritzen diren langile gehienak eskoriatzarrak dira.



Mendigoia Torrebason dago.

> PRESOK

## Marixol Iparragirre, gose greban Draguignanen

Eskoriatzako preso politiko Marixol Iparragirrek gose greba mugagabea hasi zuen otsailaren hasieran.

Presondegi bereko euskal presoekin elkar zezatela eskatu zion behin eta berriro zuzendariari. Horregatik hasi zuen gose greba Draguignango espetxean. Hainbat aste egin zituen baraurik.

> HIRIGINTZA

## Dorleta auzoko 17 ataritako fatxadak berritzen hasi ziren

Dorletako auzotarrek 136 etxebizitza koordinatu behar izan zituzten, eta hiru enpresaren aurrekontuak aztertu behar izan zituzten.

Egin beharreko lan garrantzitsuenak ziren lurretik lehenengo solairura arteko zokaloa jarri, hortik gora pareta guztiak margotu eta konpondu, eta balkoiak txukuntzea.

> AISIALDIA

## Santa Ana auzoan jarri zuten umeendako ludoteka berria

Udaleko Gazteria Sailak lekuz aldatu zuen ume eta gaztetxoak jolasteko zerbitzua, ludoteka. Berria lehen anbulatorioa zegoen lekuan jarri zuten. Orain artekoa baino handiagoa da, eta, hala, zerbitzu gehiago eskaintzeko ematen du. Ordu arte Axtrokik izan zuen zerbitzuaren arduraria, baina Udalak Ludolan enpresa kontratatu zuen.

**Hemen**  
GARBIKETAK

## Garbiketetan profesionalak gara

943 71 48 45

607 94 89 84

web gunea: [www.hemen-garbiketak.com](http://www.hemen-garbiketak.com)

Urte berri on!

**AZKOAGA**  
ESTANKOA

Zure zerbitzura  
**ESKORIATZA**

Ondo buka dezazuela 2007. urtea eta hobeto hasi urte berria!

**Mendraka**

Bizkaiko Txakolina.

Jatorri deitura

Elorrio

Tel.: 94 682 00 00





Maulanda  
*merenderoa*

Gabon  
zoriontsuak!

Maulanda auzoa ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 47 20 eta 943 71 54 56



**EDURNE**  
ESTETIKA ZENTROA

# Oparitu edertasuna!

Hasi urtea Edurne  
Estetika Zentroan

Gabon zoriontsuak eta urte berri on!

Aranburuzabala 4 2, behea ESKORIATZA Tel.: 943 71 51 54

# MARTXOA



**"Seriotasunarekin eta itxura gordetzearekin apurtzeko ahalegina egin beharko genuke"**

Olatz Pagaldai > Aktorea  
2006.03.03

INGURUMENA > ZUHAITZAREN NAZIOARTEKO EGUNA

## 2005ean jaiotako ume bakoitzari, zuhaitz bana

Zuhaitzaren Nazioarteko Egunean, Ibarraundi Museoak ekimen berezia egin zuen. Ordura arte, urtero zuhaitz ugari landatzen zituzten. Aurten, berriz, 2005ean jaiotako neska-mutiko guztien gurasoei gutun bana bidali diete. 42 dira 2005ean Eskoriatzan jaio ziren umeak; eta hortaz,

kopuru bera zuhaitz landatu eta bakoitzari ume baten izena jarri zioten.

Ekitaldira gurasoak eta museoko arduradunak joan ziren. Zuhaitzok Aingeru Guarda ermitaren inguruan landatu zituzten. Gurasoek pozik hartu zuten ekimen berezia.

> TURISMOA

### Azkoaga Enea hotela egiteko lanak, martxa oso onean

Azkoaga tabako-denda zegoen eraikinean lanean dabilta. Eraikinaren barrua husten ibili ziren lehenengo, baina gerora konturatu ziren erakinaren atzeko aldeko esturktura aldatzea komeni zela, zaharkitua zegoelako.

14 logelako hotel txikia egin gura dute, eta beheko solairuan jatetxe txiki bat eta kafetegia jarri gura dituzte.



Azkoaga familiarena da eraikina.

# APIRILA



**"Hausnarketa prozesua abiarazi beharrean gaude"**

Andoni Bengoa > Axtroki  
2006.04.28

KULTURA > 'KATAIA ETEN BARIK' EKIMENA

## Kulturen eta belaunaldien arteko elkartrukatzeari

Udaleko Kultura eta Euskara sailek eta Udal Bibliotekak elkarlanean *Kataia eten barik* egitasmoa sortu eta aurrera eramane zuten.

Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna eta Liburuaren Eguna aintzat hartu zituzten, eta haratago joan ziren. Liburuaren

elkartrukatzeari eta irakurtzeko zaletasunaren aldeko kanpainari buelta eman zieten.

Hain zuzen ere, munduko hizkuntzak eta belaunaldien arteko elkartrukatzeari ere lan du zituzten: etorkinak, herrian jaiotakoak, aitaita-amamak eta umeak batu zituzten.

> ELIZATEAK

### Elizateetan zaborra jasotzeko zerbitzua abiarazi zuten

Udalak eta Debagoieneko Mankomunitateak hitzartu zuten elizateetan zaborrak jasotzeko zerbitzu berria.

Elizate bakoitzean hainbat puntu aukeratu zituzten. Erabiltzaileek tasa desberdinak ordaindu beharko zituzten, baldin eta edukiontzia etxetik 150 metrora edo urrunago kokatuta bazituzten.

> AZPIEGITURAK

### Onbide.org elkarteak sortu zuten kaltetuei laguntzeko

Elkarte horren helburua da Debagoienean egin gura dituzten azpiegitura proiektu erraldoiek kaltetutakoei laguntza ematea. Hain zuzen ere, indarrak batu eta koordinatzeko ideia hori autobideak kaltetutakoen eta AHTren eraginak jasango dituzten hainbat herri-tarren izan zen. Kultura etxean egin zuten aurkezpena.

**"Helduak bibliotekara gerturatzen ahalegintzen gara"**



Iñaki Agiriano > Udal Biblioteka  
2006.04.28

> ELIZATEAK

### Auzo-bideen inbentarioa zehaztu zuten

Aspaldiko premia bati konponbidea bilatu guran, Udalak aditu bati agindu zion auzo-bideen inbentarioa egiteko lana.

Tomas Madinabeitiak egindako lana jendaurrean jarri zuen Udalak, auzotarrek alegazioak egiteko aukera izan zezaten. Azkenean, onartu egin zuten.

> ENPRESAK

### TESA enpresak 30 milioi euroko inbertsioa aurreikusit

TESA enpresak datozen bost urteotan 30 milioi euroko inbertsioa egiteko asmoa agertu zuen. Inbertsio horretatik bost milioi Eskoriatzako lantegian linea berri bat jartzeko inbertitu gura zuten. PVDzko azaleko akabera duten piezak egiteko linea izango zen hori. Hala, piezak fabrikatzeko denbora murriztea da horren helburua.



Aingeru ibiltokia 3 ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 41 31 / 943 71 42 56  
Faxa: 943 71 43 87  
[www.alza.es](http://www.alza.es)

- Sukaldeko tresneria
- Lapiko lasterrak
- Zartagin eta paella-ontziak

Gabon zoriontsuak  
opa dizkizugu!

# MAIATZA

# EKAINA




**"Azoka interesgarria iruditzen zait, liburuak trukatu eta gazteen artean irakurtzeko ohitura bultzatzeko"**

Luz Maria > Irakurlea  
2006.05.01



**"Herritarrak asko inplikatzeko dira Arizmendiren azokan"**

Mertxe Alberdi > Baserritarra  
2006.06.02



**"Emakume batzuk ekimenak daudelako irteten dira kalera"**

Marian Aranburuzabala >  
Amuska 2006.06.30

MUSIKA > GAZTE EGUNA

## Herriko musika taldeen CDa aurkezteko Gazte Eguna

Udaleko Gazteria Zerbitzuak eta herriko hiru musika taldek, elkarlanean, herriko musika taldeen CD bilduma egin zuten. Hala, Arianrod, Klineks eta Lukas Prest taldeen kantuez osatutako bilduma argitaratu zuten.

Eta diskoa behar den bezala aurkezteko, Gazteria Zerbitzuak

eta musika taldeek Gazte Eguna antolatu zuten.

### EGITARAU MARDULA

Hain zuzen ere, txalapartarien emanaldia, grafiti eta capoeira erakustaldiak, herri bazkaria eta kontzertuak egin zituzten, besteak beste, Gazte Egunean.

ELKARTASUNA > SEIGARREN ASTE ZAPATISTA

## Zapi zapatista jantzita, baztertuen aldeko astea

Txiapasekin Elkartasun Taldeak, gazte batzarrarekin batera, seigarren Aste Zapatista antolatu zuen. Aurtengoan Amuska emakumeen elkartaren eta beste herritar batzuen laguntza ere izan dute.

Jaiak bi helburu nagusi izan zituzten: Txiapasen alde egitea

eta baita ere bestelako baztertuei babesa eskaintzea.

### DENETARIKO EKINTZAK

Astea ekitaldiz beteta egon zen, eta umeendako, helduendako eta guztiendako ekitaldiak antolatu zituzten: berbaldiak, pailazoak, bazkariak eta beste asko.



Txiapasekin Elkartasun Taldea, gazte batzarra eta Amuska, antolatzaileak.

> EUSKARA

## Euskararen erabilera indartzeko, jolas-kutxak

Herriko umeen euskararen erabilera aztertu ondoren, Udala konturatu zen joera beheranzkoa zela.

Arazo horri irtenbidea bilatzeko, herriko lau jolas-gunetan jolas-kutxak jarri zituzten. Horren helburua zen ume eta gaztetxoek euskarazko jokoak eskura izatea eta horiek erabiltzea.

> JAIK

## Iaz baino 61 esaldi gehiago aurkeztu zituzten lehiaketara

San Pedro jaietarako 2006ko leloa honako hau aukeratu zuten: *Ikusi, entzun ta ikutu, San Pedruak probau barik ez gero geratu*. Esaldi hori asmatu zuen taldea Asere izan zen.

Horrez gain, beste 119 esaldi aurkeztu zituzten Udaleko Euskara batzordeak antolatzen duen lehiaketara, iaz baino 61 esaldi gehiago.

> AZPIEGITURAK

## Aralarrek eskatu zuen AP-1eko lanak ikuskatzeko baimena

Aralarrek proposatu zion Gipuzkoako Batzar Nagusien Bide Azpiegituretarako batzordeari AP-1 autobideko lanak ikuskatzera joateko. Arlaban-Eskoriatza zatian lanek herritarren artean eragindako liskarrak argitze aldera egin nahi zuten bisita, Eskoriatzako Udaleko, Bidegiko eta kaltetuen batzordeko ordezkariak lagunduta.

> ETXEBIZITZAK

## Alokairuko hamasei etxebizitza inauguratu zituzten Intxaurtxuetan

Jaurlaritzako Javier Madrazo etorri zen Eskoriatzara alokairuko hamasei etxebizitza inauguratzera.


Udaleko eta Jaurlaritzako agintariek berbaldia egin ostean, etxebizitzak egokitu zitzaizkien eskoriatzarrarekin batera etxebizitzak bisitatu zituzten. Horren ostean, jabeek alokairuaren gaineko kontratuak sinatu zituzten.

## GATZA-GAIN Jatetxea

- **Plater konbinatuak**
- **Ogitartekoak**
- **Espezialitateak:**  
Baserriko oilaskoa, etxeko txorizoa eta okela ekologikoa

Tel.: 943 71 40 05 LEINTZ GATZAGA

ONDO PASAU GABONETAN



**leniz sa**  
fundizioak

Gabon jai zoriontsu eta alaiak izan ditzazuela!

Aingeru ibiltokia 12, ESKORIATZA  
www.fundiciones-leniz.com

# UZTAILA



**"Jendeak ez daki gero eta nagusi menpeko gehiago daudela"**


Aitor Urrutia > Zaharren egoitza  
2006.07.10



**"Hasieratik abantaila hartu dugu; pozik gaude garaipenarekin"**

Andoni Azkarate > Pilotaria  
2006.07.10

# ABUZTUA



**"Capoeira herrian ikasteko aukera eskaintzen diegu gazte zein helduei, guztiendako da-eta osasungarria"**

Igor Ezpeleta > Capoeira irakaslea  
2006.08.26

**ERAKUNDEAK** > IBARRAUNDI FUNDAZIOA

## Ibarraundi fundazioa sortzeko lehen pausoak

Udalaren asmoa zen Ibarraundi museoaren, HUHEZIren eta enpresa batzuen laguntzarekin Ibarraundi fundazioa sortzea. Fundazio horren helburua izango litzateke herriko kultura ondareari eta bestelako aberastasunei ahalik eta probetxu handiena ematea.

Hain zuzen ere, turismoa indartzeko asmoa zeukaten eta zeramikaren gaineko gune berezi bat ere egin gura zuten.

Hori guztia kudeatuko lukeen fundazioa herriko erakunde, enpresa eta bestelakoek osazaten hainbat elkarrizketa egin zituzten.

> GAZTEAK

## Mojen zinema zaharreko gaztetxea itxi egin zuten

Udalak itxi egin zuen gaztetxea. Santa Ana auzoan kokatuta zegoen, mojen zinema zaharra zegoen eraikinean.

Udalaren esanetan, sute arriskua, baldintza higienikoak, egoera txarra eta zarata izan ziren gaztetxea itxeko arrazoia. Udalaren asmoa zen geltoki zaharrean beste gaztetxe bat egokitzea.

**HEZKUNTZA** > PARTZUERGOKO HAURRESKOLA

## Partzuergoko haurreskolako lanak bukatzen zebiltzan

Udalak eta Eusko Jaurlaritzak akordioa egin zuten, eta partzuergoko haurreskola sortu zuten herrian.

Hala, musika eskola zaharrean, Luis Ezeizaren alboko oktogonoetan, lanak egiten hasi ziren. Udalaren eta Jaurlaritzaren asmoa zen irailean, ikasturtea-

ren hasierarekin batera, zerbitzua ematen hastea.

**LANAK PRESAKA**

Horretarako, eraikin guztia barrutik eraldatu behar izan zuten, eta kanpoaldean, patioan, hainbat aldaketa egin behar izan zituzten.

> ELIZATEAK

## Maringo auzotarrek elkartzeko lokala inauguratu zuten

Erakunde publikoek aspaldiko eskaera bete zuten. Lanek 2 urte iraun zuten, eta auzotarrek, Aldundiak eta Udalak finantzatu zituzten. Hala, eskola zaharra auzotarrak elkartzeko eta ospakizunak egiteko puntuan utzi zuten.

Inaugurazio ekitaldira, auzotarrez gain, Aldundiko eta Udaleko ordezkariak joan ziren.



Maringo eskola zaharrean jarri zuten auzotarrak elkartzeko lokala.

> KIROLA

## Bruesak bazkideak egiteko bulegoa jarri zuten Intxaurtxuetan

Bruesa GBC taldeak eta Eskoriatza Kirol Elkarteak egindako hitzarmen bati esker, herriko kirol elkarteak Intxaurtxuetan duen elkartearen Bruesa taldearen bazkide egiteko aukera eman zuten. Horrez gain, Bruesak eta eskoriatzarrek hitzartu zuten talde donostiarra ikusteko autobusak doan jarriko zituela bazkide horiendako.



Bruesaren aurkezpena Eskoriatzan.

# Villar

## Ile apaindegia

Urte berri zoriontsuena opa dizuegu!

Olazar auzoa 9 • Tel.: 943 71 50 42 • ESKORIATZA



# Esko Sport

## Zorionak eta urte berri on!

Intxaurtxueta 5  
Tel. 943 71 52 96  
20540 ESKORIATZA

# IRAILA



**"Hizkuntza desberdinak erabiltzen ditugu, sentitzen eta pentsatzen duguna erakusteko"**

Maider Zubillaga > Margolaria  
2006.09.29

# URRIA



**"Zazpi kapareren gaineko lana oso interesgarria izan da"**

Hector Prieto > Historialaria  
2006.10.27



**"Garrantzitsua da denbora libreko ekintzak eskaintzea"**

Itziar Ullibarriarana > Begiralea  
2006.10.02

ERREPIDEAK > UDALAREN ALEGAZIOAK

## Aldundiaren Errepide Planari alegazioak udalbatzarrak

Eskoriatzako alkatetzatik hainbat alegazio aurkeztu zituzten Aldundiaren Errepide Planari. Izan ere, udalbatzarrak bidali beharrean, eskaera hori alkatez egin zuen, alegazioak aurkezteko epea hileko osoko bilkura baino lehenago zelako. Horren ostean, baina, udalbatzarrak

gaia landu eta onespina eman zion eskaerari.

Udala eta hainbat herritar kezu dira Arlabandik gora eta behera dabilen zirkulazio handiarengatik. Horrez gainera, aspaldiko eskaera da Bolibar eta saihebideta lotuko dituen errepidea egitea.

ONDAREA > AZTERKETA ARKEOLOGIKOA

## Santa Marinaran azterketa arkeologikoak egin zituzten

Santa Marina inguruan zeuden eraikin guztiak bota egin behar zituzten, ingurune horretan urbanizazio berria egin eta hainbat etxe eraikitzeko.

Horren aurretik, baina, Udalak erabaki zuen hiltegi zaharraren alboan zegoen lurzoruan azterketa arkeologiko-

ak egitea. Horren arrazoia zen 1998an Arantzadik inguru hori arkeologia-presuntziozko gune izendatu zuela.

**TXANPON ERROMATARRAK**

Aspaldi txanpon erromatarrak aurkitu zituzten. Arantzadik egin zituen azterketak.



Hiltegi eta udal biltegi izan zen baserriaren ondoan egin zituzten azterketak.

> AISIALDIA

## 'Ezkurtxorekin jolasean' ekimena berreskuratu zuten

Orain dela 11 urte Jose Arana ikastetxeak sortutako *Ezkurtxorekin jolasean* ekimena berreskuratu egin zuten Arizmendi ikastolakoek. Bi urteko etenaldiaren ostean, indartuta eta aldaketekin ekin zioten umeak eta gurasoak batzen dituen aisialdiko ekimen hori egiteari. Ume asko batu ziren.

> KIROLA

## Saskibaloiko kadete taldeak Ilunben jokatu zuen

Saskibaloiko emakumezkoen kadete taldeak Ilunben jokatu zuen, Gipuzkoa Basket taldeak gonbidatuta.

Jokatzeaz gain, Gipuzkoa Basket taldeko jokalariekin egoteko aukera izan zuten, eta baita entrenamendua eta Caja San Fernando taldearen norgehiagoka ikusteko ere. Neskatilak pozarren etorri ziren.

> ONDAREA

## Aingeru Guarda ermita herrituari kalteak egin zituzten ezezagunek

Lan handia hartu zuen herriko erretiratu talde batek Aingeru Guarda ermita konpontzen. Herritarrei eta erakundeei finantzazioa eskatuta, dotore jarri zuten aspaldian utzita zegoen ermita esanguratsua.

Zoritzarrez, baina, ezezagun batzuk ermitari kalte egiten saiatu ziren; hala ere, Udalak berehala egin zituen konponketak.

> ZERBITZUAK

## Lur azpiko edukiontzi gehiago jarri zituzten hainbat puntutan

Eskoriatza izan zen lur azpiko edukiontziak jarri zituen Debagoieneko lehenengo herria. Gero, Debagoieneko Mankomunitateak horren aldeko erabakia hartu zuen.

Horren ostean, Mankomunitatearen laguntzarekin, beste hainbat edukiontzi jarri zituzten San Juan kalean eta Santa Ana auzoan.

# Josunek eta Maitek gabon zoriontsuak opa dizkizuzete!

*Larmanta*

Lentzeria  
umeen moda  
eta opariak

Tel.: 943 71 53 87  
Gaztainadui 21  
ESKORIATZA



# AZAROA



**"Topaketek garrantzi handia dute musika zaletasuna sustatzeko"**


Imanol Andetxaga > Musikaria  
2006.01.23



**"Gazteok laguntza behar dugu etxeak eskuratu ahal izateko"**

Ruben Duran > Ikaslea  
2006.11.16

# ABENDUA



**"Ez dut inoiz fabrian lan egin; gurago dut nire kontu lan egin; hala, bizimodu hobea izan dut"**

Andres Agiriano > 100 urte bete ditu  
2006.12.01

MUGAK > BARRUNDIAREKIN TIRABIRAK

## Eskoriatza eta Barrundia arteko mugak lekuz aldatuta

Azkenean lekuz aldatu zituzten Eskoriatza eta Barrundia arteko mugak. Urtetan auzia izan zuten bi udalek, eta azkenean, auziko zortzi mugarriak lekuz aldatzea adostu zuten.

Elgeako ingurunera bi udaletako eta Jaurlaritzako ordezkariak joan ziren, eta, hain

zuzen, udal langileek bete egin zuten agintariek adostutakoa.

### ASPALDIKO EZTABAIDA

Orain dela hainbat urte, Eskoriatzako Udala ohartu zen mugarri batzuk lekuz mugitu behar zirela, baina denbora luzea egin dute udalek bat egiteko.



Bi udaletako zinegotzi eta teknikariak.

> ONDAREA

## Zubiate labean zeramika erakusketa egiteko laguntzak

Ondare historikoa den Zubiate labearen alboko etxabea erosteko dirulaguntza jaso du Udalak. Udalaren asmoa da Zubiate labearekin batera zeramikaren gaineko erakusketa iraunkorra egitea.

Horrekin lotuta, Udalak Euskal Herriko antzinako zeramika bilduma garrantzitsu bat erosi zuen.

> KIROLA

## Bederatzi kirol jarduera ematen hasi ziren kiroldegian

Udalak Aretxabaletako Goienasport enpresa kontratatu zuen, eta hark bederatzi kirol jarduera eskaini zituen.

Hain zuzen ere, honako ikastaroak antolatu zituzten: spinninga, batuca, pila-tesa, multifitnesa, tonifikazioa, aerobika, bizkarra lantzeko jarduerak, eta beste batzuk.


ETXEBIZITZAK > SANTA MARINAKO ETXEBIZITZA TASATUAK

## Indarrean jarri zuten 31 etxebizitza tasatuen prozedura

Udalbatzarrak erabaki zuen etxebizitza horien promozioa Lurzoruaren Legea egokitzea. Hala, etxebizitza horiek betiko izango dute tasatutakoen kategoria, eta babestutakoak izango dira. Hor-taz, jabeak etorkizunean etxebizitza saldu gura izanez gero, Jaur-laritzak izango du lehentasuna.

Eta Jaurlaritzak eskuratu gura-ko ez balu, KPIren igoeraren tamainako salneurrian saldu ahal izango lituzkete.

31 etxebizitza tasatu egingo dituzte, eta Jaurlaritzaren Vise-sa agentziak dauka promoziora-ko izenematearen eta kudeaketa guztiaren ardura.



Santa Marinako etxebizitza tasatuen gaineko fotomuntaia.

## OTZETA JATETXEA

Aranburuzabala 9  
ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 31 67

Eguneko menua

•  
Gazte menua

•  
Karta

•  
Bazkariak eramateko

Gabon jai zoriontsuak!



## ARRANDEGIAK J. EGUREN

Arrain freskoa eta izoztua


Santa Marina 32. Tel.: 943 79 59 06. ARRASATE

Santa Ana 11. Tel.: 943 71 48 61. ESKORIATZA

ONDO PASA GABONETAN!



# Eskoriatzar danoi Gabon zoriontsuak eta urte barri on!





# LEINTZ GATZAGA

## URTEARI BEGIRATUA

# 2006

> URTARRILA

### Autobus zerbitzua indarrean

Urtarrilaren 30ean jarri zuten indarrean autobus zerbitzua herrian. Herritarrek hainbat eskaera egin zituzten, baina Aldundiak ez zien kasurik egin. Horren ordeztan, taxi-busak jarri zituzten.

Zerbitzua egonkorra izan zedin herritarrek gura zuten Pesa konpainiako autobusak herritik igarotzea, bai Eskoriatzako noranzkoan eta baita Gasteizko noranzkoan ere.

Hilabete batzuk geroago, Aldundiak jaramon egin zien herritarren eskaerei, eta Pesak Gasteiztik eta Gasteizera egiten dituen bidaiak batzuk Leintz Gatzagan dute geltokia.



MIRARI ALTUBE

> URTARRILA

### Dirua atera ahal izateko kutzazaina jarri zuten

Hilabete ugari zain egon ostean, erabilgarri jarri zuten Leintz Gatzagako kutzazaina. Gipuzkoako Kutzak jarri zuten, eta horren bidez aukera eman zien herritarrei kontu korrontearen gaineko kontsultak egiteko, sakelako telefonoa kargatzeko eta dirua ateratzeko.

> MARTXOA

### Udaberriari ongietorria egiteko, hainbat ekintza

Udaberrirako hainbat ekintza antolatu zituen Gurel elkar-teak. Hilaren 25ean udaberriari ongietorria ospakizuna egin zuten, eta loreak landatu zituzten hainbat tokitan; Goiko plazan, esaterako.

Horrez gain, eskiatzera joateko irteera ere antolatu zuten Gurelekoek.

**FRI XI**  
ERAIKUNTZAK

Zorionak  
eta  
urte berri on!

**Hormigoizko estrukturak, urbanizazio, kontratak  
eta enpresen mantenimenduak**

Intxaurtxueta auzoa 5, behea  
20540 ESKORIATZA  
Tel.: 943 71 55 15 Faxe: 943 71 57 65  
Poltsikokoa: 629 51 39 22  
frixixi@frixixi.com



MIRARI ALTUBE

> MARTXOA

## 433 mila euroko udal aurrekontua

Udalak 433.042 euroko aurrekontua onartu zuen. Uste baino 7.000 euro gehiago batu zituen iaz Udalak. Pozik hartu zuten berria udalbatzarreko kideek. Onartutako aurrekontutik 91.456 euro inbertsioetarako erabiltzea erabaki zuten. Inbertsiorik garrantzitsuena baserrietara doazen bideak konpontzeko izan zen: 67.250 euro, hain zuzen. Irisgarritasun plana aurrera eramateko, oster, 11.965 euro; eta azpiegituren proiektuaren bigarren zatia idazteko beste 11.971 euro. Bestalde, Udalak 11.000 euro jarri zituen Mankomunitatearen Ongizate batzorderako.

> ETXEBIZITZAK

### Pilar kaleko hiru etxebizitza salgai jarri zituen Udalak

Udalarenak ziren hiru etxebizitza sozial lehiaketa bidez saltzea erabaki zuen udalbatzarrek. Pilar kaleko 9. atartean daude hiru etxebizitzak. Bik 36,98 metro koadro dituzte eta hirugarrenak 48,61. Txikiena 22.113,30 eurotan eta handiena 29.067,81 eurotan. Ezinbestekoa zen herrian errolatuta egotea eta han bizitzea.

> HIRIGINTZA

### Udaletxe alboko hesia aldatu eta lorategia txukundu zuen Udalak

Udaletxe alboko lorategia umeendako prestatuta dago. Jolas egiteko tresnak eta iturria daude, baina herriko umeek gutxi erabiltzen dute.

Hori ikusita, Udalak erabaki zuen hesia aldatu eta lorategia txukuntzea. Horrekin batera, lorategiko hiru pinu handiak bota zituzten.

> ELKARTEAK

### Salies de Bearn ezagutzera joan ziren Sorginak elkartekoak

Frantzian dagoen Salies de Bearn ezagutzera joan ziren Sorginak elkarteko emakumeak. Orain arte udaberrian egin izan zuten irteera atzeratuta zeukaten, eta irailerako antolatuta zuten.

Helburua zen Salies de Bearneko gatz ekoizpena ezagutzea. Bidean Hondarribia, Baiona eta Zumaia bisitatu zituzten.

> MAIATZA

### Euskal Bizikletaren bi etapa herrian hasi eta bukatu ziren

Ekainaren 2an heldu zen Euskal Bizikleta Gatzagainera, eta hurrengo egunean herrian eman zioten hasiera laugarren etapari. Hori guztia aurretik ondo lotuta izateko lan handia egin behar izan zuen herriko Txirrindularitza batzordeak.

Maiatzerako guztia prest zuten batzordekoek.



Euskal Bizikleta.

XABI URTZELAI

> UZTAILA

### Hamar gelako ostaturia egiteko asmoa dute Soran etxean erosleek, Gaztainuzketako jabeek

Udalak 73.000 euroren truke saldu ziren Soran etxea Gaztainuzketako jabeek. Jabeek goitik behera eraberritu beharko dute jauregia. Santiago kalean dagoen jauregiari *Indianokoa* deitzen diote herrian. Jauregia XVIII. mendekoa da.

Jauregia oso egoera eskasean zegoen, eta Udala aztertzen ibili zen eraberritzea. Azkenean lehiaketa publikora atera zuen, eta Gaztainuzketakoek erosi zuten.



XVIII. MENDEKOA Antzinako eraikina da Soran jauregia.

MIRARI ALTUBE

# Gabon

## jai zorientsuak igaro!

**FAGOR**

**ELEKTRATRESNA TXIKIEN NEGOZIOA**

Aingerugarda ibilbidea, z/g  
Tel.: 943 03 91 00 • 943 71 54 52 (SAT)



&gt; AZAROA

MIRARI ALTUBE

## Gasa jartzeko lanak egin zituzten

Atzerapen handia zuten gasaren lanek herrian. Hala, Repsolek agindu zuen urtarrilean helduko zela gasa herrira. Udalak dirulaguntzak hitzartu zituen Jaurlaritzarekin, eta Repsolek hartuneak jarri zituen etxeen sarreretan. Repsolek argitu zuen urtebeteren bueltan herriko etxe guztiek izango zutela gasa, eta baserriekin ere hasiko zirela lanean.

&gt; EKAINA

## Baserrietan Internet jasotzeko seinalea

Urte hasieran egin zuen batzarrak Euskaltelek Leintz Gatzagan Internet eskaintzeko. Azpiegitura gastu guztiak Eusko Jaurlaritzak hartu zituen bere gain.

Industria Saileko Itelazpi enpresak hartu zuen hori kudeatzeko ardura.

### ORAIN ARTE, MURU MENDITIK

Leintz Gatzagara Muru mendian dagoen antenak bidaltzen du seinalea. Hala, Muru ikusten ez duten baserriek ez zuten seinalerik jasotzen.

Hori saihesteko, Euskaltelek Udalarari jakinarazi zion seinalea zabaltzeko. Hala, epe laburrean udalerriko etxebizitza guztietan eta baita baserri auzoetan arazo hori konponduta izango zuten.



PILOTALEKUAN JAIA Pilotalekuan egin zituzten ekintzak.

MIRARI ALTUBE

&gt; AZAROA

## San Milixanak berritu zituzten

Azken urteotako jaiek behera egin zutela ikusita, berrikuntzak egin zituzten antolatzaileek. Hala, gatza hartu zuten ardatz, eta hori erabilita txokolatea egin zuten Klaxk elkartearen laguntzarekin. Horrez gain, eta ohiturari jarraituta, artisauak eraman zituzten pilotalekura. Artisauen saltokiekin batera, Sorginak emakume taldeak taloak egin zituen.

&gt; KULTURA

## Liburutegia eta ludoteka zabaldu zituzten

Gurel elkartearen ahaleginari esker, 3 eta 6 urte bitarteko umeendako ludoteka eta liburutegia zabaldu zituzten.

Bi zerbitzu horiek Garro jauregian jarri zituzten, eta orduz gero, astelehenetik egubakoi-tzera daude biak erabilgarri.

Gurelkoen esanetan, zerbitzu gehiago behar dituzte.

&gt; ELKARTEAK

## Gurutze Orbegozo izendatu dute Gurel elkartearen presidente

Gurel gurasoen elkarteak batzarrak aldatu zuen. Gurutze Orbegozo izendatu zuten presidente. Horrez gain, Eguzkiñe Alberdi eta Ainara Zubillaga izan ziren sartu ziren kide berriak.

Gurel gurasoen elkarteak hainbat ekimen egiten dihardu herrian, ume, gazte eta gurasoendako.

&gt; ONGIZATEA

## Sasiain, Bideberriko Mankomunitateko presidenteorde

Antzuola, Elgeta eta Leintz Gatzagako udal ordezkariak Bideberri mankomunitatea sortu zuten. Antzuolako zinegotzi Dina Muxika izendatu zuten presidente eta Jon Sasiain gatzagarra, berriz, presidenteorde.

Herri txikiak ongizateko gaiak lantzeko sortu zuten mankomunitate hori.

# MARTIN

## Fruitategia

### Ondo pasa Gabonak!

San Juan kalea 12 A Tel.: 652 77 53 58



## Zubia Pateek gabon jai zoriontsuak opa dizkizute guztioi!

Aingeru Guarda pasealekua 17 20540 Eskoriatza

Tel.: 943 71 51 31 / Faxe: 943 71 52 79

[www.pateszubia.com](http://www.pateszubia.com)



*Gabon jairik zoriontsuenak  
opa dizkizue Lenizek!  
Urte berri on!*



**KONPONKETAK: TXAPA, MARGOA, MEKANIKA**

**Bigarren eskuko autoen salerosketa,  
injektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa**

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45 Posta-e: rleniz@euskalnet.net



*Elurak zuriturik  
mendi eta herri  
udazken ona fan zan  
negua da gorri  
abendua aurrera  
laster eguberri  
urte zarra pasata  
berria da etorri.*

*Oparien zain daude  
etxeko guztiak  
herriak alaitutzen  
gabon abestiak  
eguberria fan zan  
lasister hamabiak  
zorionak ekar beza  
datorren urtiak.*



Gaztainadi 15  
Tel.: 943 71 51 97  
ESKORIATZA

**Zorionak eta urte berri on!**



AZKARATE  
aroztegia



## *Arotz lanetan behar duzun guztia*

• Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak



Telleria 19, B-0-2 B-0-3 • BERGARA • Tel.: 943 76 47 19 / 610 884 020  
azkaratearoztegia@euskalnet.net

[www.goiena.net/blogak/azkarate](http://www.goiena.net/blogak/azkarate)

# ARTZUBI ELEKTRAGAILUAK

## ARTZUBI ETXETRESNA ELEKTRIKOAK



Ondo ibili  
San Migeletan!

Iparragirre kalea 4 ARETXABALETA Tel.: 943 53 31 86


# Goienkaria

Egubakoitza / 2006ko abenduaren 29a / GOIENKARIAREN ARGITALPEN BEREZIA



**BERGARA**  
URTEARI BEGIRATUA  
**2006**

**ANTZUOLA > 31**  
**ELGETA > 45**



ARGAZKIAK: GOIENKARIA

## Zorionak eta urte berri on!

**MARKIEGI** autoak



Leizeaga 1 San Lorentzo industrialdea **BERGARA** Tel.: 943 76 35 09 Faxa: 943 76 58 76

Alfa Brera





*Gogor  
estutzen dugu!*

**Torlojugintza**  
Espezialitatea: era guztietako azkoinak  
**GABON ZORIONTSUAK!**

**INDUSTRIAS**




Tel.: 943 76 18 05 / Faxes: 943 76 27 43 / 20570 Osintxu-Bergara / [industriaszanguitu@stl.logiccontrol.es](mailto:industriaszanguitu@stl.logiccontrol.es)

# UGARTE

## AROSZTEGIA-ALTZARIAK





- Arotz lanak orokorrean
- Horma armairuak
- Altzariak
- Leihoak
- Ateak





**ALTZARI DENDA**  
Ikerleku zeharbidea • BERGARA  
Tel.: 943 03 46 30

**ERAKUSKETA ETA TAILERRA**  
San Juan 1A • BERGARA  
Tel.: 943 76 54 91/ Faxes: 943 76 08 04

kale inkesta

# Zer gogoratuko duzu bukatzean dagoen 2006. urtetik?



**Karlos Lizarralde**  
Langilea

Saharara doala esan digu semeak eta harritu egin gaitu emaztea eta biok. Baina etxean da orain, esperientzia ona izan dela dio eta pozik gaude. 2007. urtea pozik hartuko dugu.



**Rosarito Garitano**  
Erretiratua

Aurtengo udazkena oso beroa izan dela gogoratuko dut, nik hotza nahiago dut beroa baino. Datorren urterako gertu nago, urte bat gehiago baino ez diot eskatzen urte berriari.



**Antonio Iza**  
Erretiratua

Atentzioa eman dit munduko izotzak urtzen ari direla. Tebistan ikusi dut, eta Suitzan ere horixe ikusi dutela esan didate ezagun batzuek. Eguraldi aldaketaren seinalea da hori.



**Maria Asun Barrena**  
Etxekoandrea

Bake prozesua hasi dutela. Oraindik ez da amaitu eta egun gauzak dauden moduan ikusita, ez dakit nola bukatuko den, baina inportantea izan da prozesua hastea.



**Oihana Epelde**  
Ikaslea

Niretako ez da urte ona izan; ikasten hasi naiz, baina momentu honetan ez dakit nire bizitzarekin zer egin nahi dudana, ikasten edo lanean jarraitu. 2007a urte hobea izango ahal da!



**Sonia Cachafeiro**  
Langilea

Ez da aparteko urtea izan, ez onerako ez txarrerako, eta ez dakit gogoratuko dudana ere. 2007an loteria tokatzea nahiko nuke, aste-bete bainuetxe baten pasatzeko adina, behintzat.

**AURKIBIDEA**

- Urtarrila > 04
- Otsaila > 06
- Martxoa > 08
- Apirila > 10
- Maiatza > 12
- Ekaina > 14
- Uztaila > 16
- Abuztua > 19
- Iraila > 20
- Urtia > 22
- Azaroa > 24
- Abendua > 28

- ANTZUOLA > 31
- ELGETA > 45

- Onena eta txarrena > 40
- Erretratu zaharra > 54

**zuri eta beltz**



Hasi dituzte Irala kalea berritzeko lanak. Hori ere nabarmentzekoa da. GOIENKARIA

**> AGORROSIN EKINTZA GUNEA**

Igerilekuak, kirol, aisialdi eta kultura gunea, ireki dituzte azkenean. Erabiltzaile asko ditu, gainera. Herritarrek behar zuten seinale.

**> 'SEUSEN MUNDUA' MUSIKALA, BILBON ETA BERGARAN**

Aretorik garrantzitsuenetakoan estreinatu zuen Bergarako Orfeoia arrakasta handia lortuz. Bergarako enbaxadore bikaina da Orfeoia.

**> BERBA ELKARGUNEA**

Euskararen alde lanean diharduten taldeak Berba-n elkartu dira eta hainbat ekimen antolatu dituzte; aipagarriena, Euskararen Egunkoa.

**> ERREGE MINTEGIA HERRIARENDAKO**

Urte askotako ametsa egia bihurtu da. UNED, Aranzadi Ikastola eta auditoria finkatu eta lurrazpiko aparkaleku publikoa egingo dute.

**> BUBISHER ELKARTEA**

Saharako errepublikaren aldeko jaialdia, Euskal Herri mailakoa, antolatu du aurtengoa, beste ekimen batzuen artean.

**> SORALUZE-BERGARA KROSA**

Antxintxika triatloi taldeak bigarren antolatu du herri lasterketa hori. Ekimen bikaina, adin guztietakoak korrika ipintzeko.

**> SAN MARTZIALGO PARKEA**

Bikaina da herriko txoko politenetakoa Mendia Bizirik-en laguntzaz berritzeko ahalegina. 250.000 euro bideratu dira, Jaurlaritzak emana.



Kaleko dendak bultzatzea eskatu dute herriko merkatariek. GOIENKARIA

**> AGORROSIN GARESTIEGI ETA ZIRKULAZIO TASAK ERE BAI**

Agorrosin guneko tarifak eta zirkulazioko tasak garestiegiak dira. Bereziki larria da ekintzagunea, publiko izanda, hain garesti izatea.

**> DENDARIAK ETORKIZUNAREKIN KEZKATUTA**

Kezkatuta daude Bergarako dendariak merkataritzagune handien alde egiten delako. Kalekoak bultzatu beharko lirateke.

**> EMAGIN ZERBITZURIK EZ**

Oinarritzko zerbitzu egokirik ez. Izan ere, ambulatioan luzaroan egon dira emaginik barik; kasu larrietan bakarrik etortzen da Oñatikoa, Bergarako titularra baja hartuta egon da-eta.

**> ZINEMARIK EZ**

Beste urtebete zinema aretorik barik. Zabaltegi aretoa egokitu zutela aipatu zen. Ez da ezer egin. Auditorioa egin arte itxoin behar?

**> ZABALOTEGI ETA BOLUKO BIZILAGUNEKIN KONPONBIDERIK EZ**

Udalak aintzat hartu beharko luke herriaren zati handi baten iritzia, herriaren etorkizuna diseinatzerakoan, eta kale horietako bizilagunek herriarendako egokia izan daitezkeen irtenbideak ere bai.

**> ETXEAK GARESTIEGI**

Herrian egin dituzten etxe gehienak ekimen pribatukoak edo libreak izan dira; eta oso garestiak, gainera. Babes ofizialeko gehiago egin beharko lituzkete. Hala ere, aurtengoa egin dituzte eta datozen urteotarako badaude aurrez ikusita: Urteagan, San Lorentzon...



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako  
Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako  
Sailburuordetza)  
diruz lagundutako aldizkaria

**Goienkaria**

Argiraratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarte  
Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Leire Kortabarria Erredaktoria Oihana Elortza, Aintzane Irizar, Irati Agirreazaldeggi, Edu Mendibil, Jon Berezibar, Arantza Etxepare, Alex Azkarate, Oxel Arrieta, Imanol Soriano, Kepa Martelo Publizitatea Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar Testuen zuzenketa Sergio Azkarate



**EGOITZA NAGUSIA**

BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13  
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89  
ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 5.660 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Begarako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Elgetako  
Udala



# URTARRILA



**"Lehen txapela  
Bergaran jantzi nuen,  
Pazko jaietan"**

Jose Luis Gorrotxategi >  
Bertsolaria / 2006.01.20



**"Estortzio ekonomikoaz  
hitz egiten da, baina guk  
ere jasaten dugu"**

Xabier Arregi >  
18/98, auzipetua / 2006.01.09

## hileko esaldia

**"Oraindik ez  
didate ezer  
esan, baina,  
eskainiz gero,  
Interviun  
aterako naiz"**

Saray Leal > 'Gran Hermano'  
saioko lehiakidea / 2006.01.09

## hileko datua

# 1.399

Bergarako Odol Emaileen Elkartek emandako datuen arabera, 2005ean 1.399 odol ateratze egin ziren Bergaran. Gainera, 87 lagunek eman zuten odola lehendabiziko aldiz.



GOIENKARIA

## 'Seussen mundua'-ren estreinaldia

Bergarako Orfeoia *Seussen mundua* musikala estreinatu zuen, Bilboko Euskalduna jauregian. 5.000 lagunetik gora izan ziren musikala ikusten. Musikazaleak eta kazetariak, denak bat etorri ziren ikuskizun berria zoragarria izan zela esatean. Egunkari gehienek egin zuten emanaldiaren gaineko aipamena eta kritika ona.

Valen Moñux zuzendari artistikoak zera adierazi zigun: "Estreinaldia bikaina izan da. Oro har, gustura jardun dugu Euskaldunan. Jendeak sorpresa handia hartu du lan honekin eta horrek gu ere poztu gaitu".



### Hiru tona material Saharako

Saharar errefuxiatuen kanpamentuetarako hiru tona azukre, atun eta konpresa jaso zituzten. 2006.01.27



### Zaborra leku ezegokian

Bideberriko aparkalekuan dagoen plastikozko hiru ki berdea zaborrez beteta egoten da. 2006.01.13

## izen propioak



**Bitoriano  
Larrañaga**

ZERAMIKAN ADITUA



**Martin  
Garitano**

KAZETARIA



**Paulo  
Elkoro**

PRESO OHIA

Bitoriano Larrañagak 35 bat urtean barrena batutako zeramika piezak eskuratu zituen Eskoriatzako Udalak. 2006.01.09

Info7 irratia urtarilean hasi zen emititzen, Internet bidez. Goizeko magazina egiten hasi zen Martin Garitano. 2006.01.27

Hiru urte egin zituen Alemaniako eta Espainiako espetxetan, eta aske geratu zen urtarilean. Ongietorria egin zituen. 2006.01.23



www.elkar.com

**elkar**  
elkar ezagutzen dugulako

kulturaren  
plazerra

ARRASATE • BAIONA • BERGARA • BILBO • DONOSTIA • GASTEIZ • IRUN • IRUÑEA • TOLOSA

# López Ojeda

Amillaga 25 • Industrialdea  
Biltegia: 943 762 776 - 943 763 852  
20.570 BERGARA (Gipuzkoa)



Errioxako  
ardo beltza, urtekoa

Errioxa

Nafarroa

Gabon jai Zoriontsuak  
opa dizkizue!

ATXEGA ARDOAK S.L.  
Ortzaika auzoa

Tel.: 943 830 369  
943 830 375  
20.810 ORIO

**albiste izan zen**

> DEBAGOIENA  
**Ezker Batua, kanporatuta**

Arrasateko udal gobernutik kanpo utzi zuten EB, hainbat desadostasunengatik. 2006.01.17

> EUSKAL HERRIA  
**Tabakoaren aurkako legea**

Tabakoaren aurkako legea indarrean jarri zen EAEn, kontsumoari, salmentari... eraginez. 2006.01.01

> MUNDUA  
**Hamas, garaile Palestinan**

Hamasek gehiengo absolutua lortu zuen hauteskundeetan. 2006.01.26

**Zabalotegikoak sinadurak batzen hasi ziren**

Zabalotegiko auzotarrak kezkatuta agertu ziren arau subsidiarioen aurrerapenean jasotakoarekin, eta sinadurak batzeari ekin zioten. Artzamenditik Koldo Eleizaldera (Mariaren Lagundia eta Zabalotegi zeharkatuz) kale berria egiteko aukera jasotzen zen aurrerapen hartan. Zera adierazi ziguten auzotarrek: "Artekalea eta Barrenkalea oinezkoendako kale bihurtzen badira, Zabalotegi erdiguneko komunikazio ardatz nagusia izango litzateke".

Hirigintza zinegotzi Jose Antonio Etxeberriaren esanetan, eurak prest agertu ziren beharrezko azalpenak emateko eta gaineratu zuen oraindik ez zela ezertxo ere onartu.



GOIENKARIA

> JARDUN  
**Jardun elkarteak foroa jarri zuen bere webgunean**

Jardun euskara elkarteak bere webgunean ([www.jardun.net](http://www.jardun.net)) foro bat jarri zuen abian, herritarrek euren iritzia, kezka eta proposamenak egin ahal izateko. Gainera, Jarduneko arduradunek nahi dute euskarazko foroetan parte hartzeko ohitura hartzea jendeak.

> KULTURA  
**Fly Shit taldeak bigarren diskoa argitaratu zuen**

*Bizitza, baina nola bizi?* diskoa eman zuen argitara Fly Shit taldeak. Horixe da argitaratu duten bigarren diskoa. Herriko hainbat tabernatan jarri zuten diskoa salgai. Grabaketak egin zituzten Eibar-ko Legarre estudioetan. Oñatiko gaztelekuan eta Bergarako gaztetxean.

> PILOTA  
**Aspe pilota enpresak eta Udalak hitzarmena sinatu zuten berriro**

Bergarako Udalak eta Aspe akordioa egin zuten, pilota enpresak jarraitzeko Bergarako frontoian partiduak antolatzen.

Akordio horren arabera, onartu zuten Udalak Aspe enpresari 18.000 euro ordaintzea urtean 15 jaialdi antolatzearen. 2005eko martxoan sinatu zuten lehen aldiz akordioa.

> KUTXA  
**Leihatilari gabeko Gipuzkoako lehenengo Kutxa zabaldu zuten**

Simon Arrieta plazako Kutxaren bulego berritua zabaldu zuten. Leihatilari ez duen Gipuzkoako lehenengo Kutxaren bulego izan zen. Luis Abajo bulego zuzendariak azaldu zigunez, lau bulego egongo dira, bi kutxazain, dirua sartzeko makina bat eta Internet bitartez operazioak egiteko beste bat.

**HIRIGINTZA > 2.000 BIZTANLEK JASOKO DUTE URA**

**Ur depositua egin zuten Iraburun, Bolu hornitzeko**

Bolu inguruko etxebizitzak hornitzeko helburuarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Iraunkorreko Departamentua ur depositua egiten hasi zen. 600.000 euroko aurrekontua zuten lanok. Guztira, 2.000 pertsona hornitzeko egin zuten.

Urkulutik Antzuolara ura eramateko erabiltzen den kanalizazioa aprobetxatu zuten ura Iraburura eramateko. Udalak azaldu zigun bere asmoa dela etorkizunean Zabalotegi alde- eta Arana inguruko baserrietara ere handik banatzea ura.

> KULTURA  
**Aroztegi aretoko erakusketak zehaztu zituen Kultura Sailak**

Udaleko Kultura Zerbitzuak 2006rako Aroztegi aretoko erakusketen egutegia zehaztu zuen. 12 erakusketa, hain zuzen ere, aurrez ikusi zituzten. Iñaki Moreno, Menchu Gal, Usoa Mendikute, Pedro Luis Ormazabal, Migel Okina eta Bubishi elkartearenak, besteak beste.



1942az gero

San Juan auzoa  
BERGARA  
943 76 35 44 Faxa: 943 76 51 39



**Zorionak bergararroi!**

Lehen zure bizitza zena orain zure kondaira da

Promozio baliagarria: abenduaren 15etik urtarrilaren 15era. Zozketa urtarrilaren 31n egingo da. Oinarriak notario aurrean aurkeztuta daude.



Irabazi Skoda Roomster zoragarri bat FOX TV eta Abaco-ren eskutik



Erosi Eragon filmaren sarrera, bete leihatilan emango dizuten kupoia eta bidali ondorengo helbidera: Grupo Abaco Deptº de Marketing- Juan de la Cierva 12 - Parque Tecnológico - 46.980 Paterna (Valencia) - Ref. Eragon

Baratzak: HISPANIC FILM SAE

© 2006 HISPANIC FILM SAE

# OTSAILA



**"Gortasunaren ondorioak ez dira hain ondo ezagutzen"**

Iñaki Madinabeitia >  
Aransgiko irakaslea / 2006.02.17



**"Arratsalde nago liburutegian, eta jende asko ibiltzen da"**

Laida Zubia >  
Liburuzaina / 2006.02.10



GOIENKARIA

## Saharako Errepublikaren aldeko jaialdia

Fronte Polisarioaren eta Saharako Errepublikaren 30. urteurrena ospatzeko jaialdia egin zuten otsailaren 25ean Bergaran. Labegarietako kiroldegia Saharako kanpamentu bihurtu zuten: te dastatzea, henna, jaima bat, ekitaldi politikoa eta bazkaria egin zituzten barruan, besteak beste. Euskal Herri osotik etorri ziren sahararrak Saharako Errepublikaren 30. urteurreneko ospakizunera. Helburua: Sahararen autodeterminazio eskubidea aldarrikatzea. Bestalde, otsaileko euriteek milaka lagun aterperik gabe utzi zituzten Tindouf-en, eta harako dirua ere batu zuten.

### hileko esaldia

**"Pozik gaude 'Aupa Etxebeste'-k ikusleen aldetik jasotako erantzunarekin"**

Asier Altuna > Zinegilea  
2006.02.03

### hileko datua

# 20

Gimnasia erritmikoko eskola arteko A mailako Gipuzkoako Txapelketako lehenengo fasea egin dute Astigarragan, eta Ariznoa elkarteko 20 lagun joan dira Bergara ordezkatzera.



#### Salamancako agiriak, etxera

Salamancako artxibategian dauden Bergarako dokumentuak itzuliko dituztela dio ministroak. 2006.02.10



#### Mittal Steelek EEP (OPA) egin dio Arcelorri

Mittal Steel enpresak 18.600 milioi eurotan baloratu ditu Arcelorreko akzioak. 2006.02.03

### izen propioak



**Roberto Izagirre**

IDAZLEA



**Fernando Markina**

ARKU TIRATZALEA



**Aritz Bikuña**

BIDAIARIA

Urretxu eta Zumarragako udalek antolatzen duten Iparragirre saria irabazi zuen Izagirre, ipuingintzan. 2006.02.13

Beterano onenaren saria eta Euskadiko txapela irabazi zituen Fernando Markina arku tira-tzaile bergararrak. 2006.02.17

Marokora egindako bidaia jasotzen duen liburuko protagonistetako bat da Bikuña. *Mar de Arena* da liburua. 2006.06.13

**BANAKETAK  
ORIXONDO**

Tel.: 943 76 28 81  
BERGARA

### Espezialitateak:

- Urdaiazpiko iberikoak
- Paletak
- Kordobako urdaiazpikoak
- Solomoak

- Aditiborik gabeko txorizoa (Alejandro)
- Errioxako urdaiazpikoak (Los claveles)
- Erriberako esparragoak
- Pikillo piperrak
- Guardiako Luis Alegre ardoak

**Gabon zoriontsuak izan ditzazuela!**

*Zuri beltz Margoak*



**Barnealde eta kanpoaldean erreforma  
Pintura zerbitzu osoa**

Zubieta 28 BERGARA • 607 447 494  
Txomin Santamaria 609 150 164 • Jabier Seco 678 615 045

**Urte berri on!**

albiste izan zen

> DEBAGOIENA  
**GOIENKARIA  
berritua**

GOIENKARIA guztiz berritua kaleratu zen, bai diseinu, bai eta eduki aldetik hobetua. 2006.02.03

> EUSKAL HERRIA  
**Istripu  
ikusgarria**

10 kamioik eta auto batek talka egin zuten Etxegaraten. Lau lagun zauritu ziren. 2006.02.03

> MUNDUA  
**Lehen aurpegi  
transplantea**

Isabelle Dinoire frantsesari aurpegia transplantatu zioten. 2006.02.06



GOIENKARIA

**Amodiozko  
gutunik onenak  
sartu dituzte**

Ohiturari jarraituz, San Valentin eguna aukeratu zuten Jardun elkarteak aurtengo irabazleak saritzeko. Musikaz lagunduta, irabazleek saritutako gutunak irakurri zituzten eta ondoren luntxa izan zen ekitaldira joan zen jende guztiarendako.

Argazkian saridunak agertzen dira. Ezkerretik eskumara, Karlos Aizpurua irabazlea, Nerea Urtzelai bergarra (irakurle gazteen saria), Alaitz Sarasola (jazko irabazlea eta epaimahaikidea) eta Oier Bolibar (Bergarako gutun onena).

**HIRIGINTZA > FRONTOIAK KONPONDU**

**Udal frontoiak konpontzen  
hasi ziren, Angiozarren**

Urtean zehar herriko frontoiak berritu eta konpontzeko konpromisoa hartu zuen Udalak. Angiozar auzoan dagoen frontoia izan zen konpontzen lehena: paretak berriro margotzeaz gain, sare bat ere jarri zuten harmaila gainean pilotak kanpora ihes ez egiteko.

Herrian 12 frontoi daude guztira eta denen egoera aztertu eta hobetzea da helburua, baita herriaren erdian dagoen Udal Pilotalekua ere. Estalkiak aldatu, itoginak konpondu, aldagelak berritu eta eserleku berriak jarri zituzten Udal Pilotalekuan irailerako.



Angiozarko frontoia txukuntzen.

> PRESOKA  
**Mikel Askasibar  
'Aska' presoari  
omendu zuten**

Hamabost urte egin ditu kartzelan Mikel Askasibar *Aska*-k. Familia eta lagunekin batera, senideei ere egin zieten omenaldia. 1991. urtean atxilotu zuen Guardia Zibilak eta Espainiako hainbat espetxetan egon da. Atxilotu zutenean bi tiro jaso zituen eta ospitalean egon zen urtebetez.

> HEZKUNTZA  
**Gizarte lanetarako  
elkartea eta UNED  
elkartu egin ziren**

Hitzarmena sinatu zuten otsailean Bergaran dagoen UNED zentroak eta Gipuzkoako gizarte lanetarako diplomadunen eta gizarte laguntzaileen elkarte ofizialak.

Akordio horri esker, gizarte laguntzailetako ikasketak emango ditu plazan dagoen UNED zentroak.

> KULTURA  
**Aratusteei hasiera  
emanez, kontzertua  
Udal Pilotalekuan**

Udal Musika Bandak eta Orkestra Sinfonikoak *Saturday night fever* kontzertua eskaini zuten otsailaren 24an Udal Pilotalekuan, Aratusteei hasiera emanez.

Bandak 19 urte daramatza Aratustetako kontzertua eskaintzen eta Orkestra gehitu zaio azken urteotan.

> KULTURA  
**Kike Turmix agurtu  
dute bere talde  
gogokoenek**

Punk-rokcean horrenbesteko lana egin zuen Kike Turmix musikagile ezaguna agurtzeko jaialdia egin zuten Jam aretoan. Bere garaian gogokoenak bezala aukeratu zituen taldeek jo zuten. Besteak beste: El Inquilino Comunista, Nuevo Catecismo Catolico, Mermaid eta Hot Dogs.

**PASCUAL**  
**TELEKOMUNIKAZIOAK**

Arrasate 4. 20005 Donostia Tel. 943 42 04 28 eta Madril hiribidea 13.



**Liderrak**  
**telefonía mobilean**



**Ibargarai 5 BERGARA**  
943 77 70 14 Faxa: 943 77 70 16  
bergara@pascualalzuri.com

Banatzaile ofiziala  
**Telefonía**  
**Movistar**

**Zuber**®

**Zuber**

- Metal gogorrezko erramintak ZB®
- Hotzeko estanzioareko metal gogorrezko matrizea®

Tel.: + 34 943 76 26 78  
Faxa: + 34 943 76 56 79  
www.adeji.es/zuber

Leizeaga kalea 8  
112 posta-kutxa  
BERGARA



**Urte berri on  
bergararroi!**

# MARTXOA



**"San Martin plazan ere galtzada-harriak jartzea da gure asmoa"**

Iñaki Aspizau > Arkitektoa  
2006.03.24



**"Irrati nazionala izateko helburuarekin sortu da Info7"**

Martin Garitano > Kazetaria  
2006.03.03

## Iñigo Alberdi izendatu zuten EOSko zuzendari

Euskadiko Orkestra Sinfonikoko zuzendari egin zuten Iñigo Alberdi Amasorrain. Otsailean izendatu zuten zuzendari eta martxoaren hasieran aurkeztu zuten komunikabideen aurrean. Miramonen egin zuten aurkezpena, Orkestrak duen egoitzan. Miren Azkarate Kultura sailburua ere izan zen prentsaren aurreko aurkezpenan. Alberdik ilusioz hartu zuen kargu berria: "Aspalditik ezagutzen dut Orkestraren ibilbidea eta ohore handia da niretzat bertako zuzendaria izatea. Badakit talde ona izango dudala inguruan". Alberdik German Ormazabalén tokia hartu zuen, hark kargua utzi baitzuen, ia hamar urtez zuzendari lanetan jardun ostean.



JULEN IRIONDO

### hileko esaldia

**"Lehengo etxetresnek energia kontsumo handia zuten, berriek ez"**

Cesareo Loiti > Amacenes  
Arrasate / 2006.03.24

### hileko datua

# 600

Paisajes Españoles enpresak eskaini zion Udalari airetik egindako Bergarako 600 argazki saltzea, 18.000 eurotan. 1961etik gaur egun arte egindako argazkiak dira, artxiborako baliagarriak.



#### Metagra saritu du autoen enpresa batek

Peugeot eta Citroen ibilgailuak egiten dituen SPA enpresak Metagara saritu zuen lan onagatik. 2006.03.31



#### Eguzki-energia ezezaguna

Eguzki-energia Debagoienean oraindik ezezaguna dela zioten eguzki-plaka instalatzaileek. 2006.03.10

### izen propioak



**Alejandro Arroyo**

ERRETIRATUA

Alejandro Arroyo da San Joxepe erretiratuen egoitzako presidente berria. Hamar lagun zeuden zuzendaritzan. 2006.03.31



**Iñigo Gallastegi**

BATERIA-JOTZAILEA

2005eko Espainiako country musika talde onerako izendapena jaso zuen haren taldeak: Redneck House Band. 2006.03.03



**Mari Karmen Gallastegi**

EKONOMILARIA

Gizarte Zientzien eta Humanitateen Euskadi saria jaso zuen, inguru ekonomian egindako ekarpenengatik. 2006.03.17



*Sukaldeak. Horma armairuak.  
Neurrira egindako altzariak.  
Ateak eta leihoak. Arozlanak.*

**Bergara = 943 76 58 86 / 670 765 886**

*Urte berri on!!*

# DISSOL

Banatzaile ofiziala

# PRAXAIR

**SOLDADURARAKO ARTIKULUAK-GASAK- PISTOLAK ETA OSAGARRIAK- HARIAK- ELEKTRODOAK-MAKINERIA**

BERRIZ BILTEGIA  
Eitua poligono industriala 41B  
48240 BERRIZ (Bizkaia)  
Tel.: 946 82 76 06  
Faxa: 946 82 65 34

BERGARA BILTEGIA  
Benta berri z/g  
20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 76 28 97  
Faxa: 943 76 50 56

**URTE BERRI ON!**

**albiste izan zen**

> DEBAGOIENA  
**Gamei lantegia aurrera**

Gamei lantegia Fagorrek hartu zuen. Horrela amaitu zen lantegi horren krisia. 2006.03.24

> EUSKAL HERRIA  
**ETak su-etena aldarrikatu**

ETak su-eten egonkorra aldarrikatu zuen, "prozesu demokratikoa" bultzatzeko. 2006.03.22

> MUNDUA  
**Matxinadak Frantzian**

Gazteak gobernuaren aurka matxinatu ziren lan arau berriengatik. 2006.03.10



GOIENKARIA

**Gutxituendako eskualdeko taxi zerbitzua abian**

Martxoan abiarazi zuten elbarriendako eskualdeko taxi zerbitzua. Bergarako geltokian dago taxi hori eta ibar osoari ematen dio zerbitzua. Pegerto Blanco da taxi gidaria: "Elbarriendako ez ezik, eskolako umeendako garraio zerbitzua ere eskaintzen dut, auzoetan edo baserrietan bizi diren ikasleei zerbitzua emateko ere prestatuta dago". Furgoneta bat da taxi egokitu hori eta gurpildun aulkiak sartu daitezke.

Bergaran 14 taxi gidari daude eta 38 eskualde osoan. Guztiek berdin kobratzen dute, Agitax eta Mankomunitateak proposatutako tarifak dira.

> ERLIJOA  
**Ibarreko lehen hileta musulmana egin zuten Bergaran**

Meskitarik ez, eta hildakoa-ren lagun eta senideek criketean jokatzeko elkartzen ziren tokian egin zioten hileta Zubair Mohamed 26 urteko pakistandarrari. Sei ilaratan batu ziren gizonak otoitz egiteko, zutik, ortozik, Mecara begira. Udaleko brigada langilea zen Zubair.



Ipiatzako futbol zelaian egin zioten hileta senide eta lagunek.

> EUSKARA  
**Elexpururen hiztegia sarean jarriko dute**

Juan Martin Elexpuruk egin-dako Bergarako Hiztegia sarean jarri gura dute. Udalak 7.000 euro eman zizkion Elexpururi lan hori egiteko eta *online* egingo du lana egileak. Datu basearen autore-eskubideak Udalarenak izango dira gero. CD-ROMa ere atera nahi dute, bide batez.

> IRISGARRITASUNA  
**Sei mila euro pasa irisgarritasun neurriak hobetzeko**

Irisgarritasun baldintzak hobetzeko, barandak eta arrapalak jarriko dituzte herriko hainbat kale, parke eta auzotan. Lan horiek egiteko, 6.275,44 euro erabiliko ditu Udalak. Torrekuan, Herri Lagunak kalean eta Osintxu eta Usondoko parkeetan egingo dituzte lanak.

> MAHAI FUTBOLA  
**Muduko txapelketara joan ziren zazpi lagun, Las Vegasera**

Bergarako zazpi lagun mahai futboleko munduko txapelketara joan ziren, Las Vegasera: Javi Guerrero *Txori*, Iñaki Jaso, Igor Alberdi, Iban Gartzia, Mikel Unanue, Karlos Lasa eta Ibon Larrañaga. Las Vegaseko Riviera hotelean jokatu zuten txapelketa. 50.000 euro zeuden saritan.

> ZERBITZUAK  
**Supermerkatua zabalduko du Eroskik Ornin**

Martxoan baieztatu zuen Eroskik beste supermerkatu bat zabalduko duela Orni eta Carpinsa enpresak egon diren tokian. Center supermerkatua izango da: 1.500 metro koadro izango ditu eta barruan jatekoak bakarrik salduko dituzte. Bideberriko Eroski ez dute itxiko.

**J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea**



- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Aho zirugia
- Inplanteen zirugia

**Aseguruak: PADI**(Osakidetzak umeendako duen zerbitzua)

LAGUN-ARO,  
AEGON

Tel. : 943 76 56 88

Fraiskozuri 5A, I-D. BERGARA

**Zorionak eta urte berri on!**

**Azkoin**  
Industriak

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu bergarar guztioi!

Amillaga 43, San Lorentzo industria poligonoa 109 posta kutxa Bergara Tel.: 943 76 10 52 Faxe: 943 76 98 20  
azkoin@azkoin.com www.azkoin.com

# APIRILA



**"Prozesu politikoa atzeraezina egin behar da"**

Aitor Arantzabal > Goienkaria  
2006.04.07



**"Garrantzitsua deritzogu etorkinekin lan egitea"**

Oier Bolibar > Jardun euskara elkarteko kidea / 2006.04.10



BERRIKETAN

## Euskaldun berriendako ekimena abian

Jardunek, AEK-k eta Udal Euskaltegiak eta Bergarako Udalak, *Berriketan* ekimena abiarazi zuten apirilean. Ekimenaren helburua da euskaldun zaharrak eta berriak harremanetan jartzea, euskaldun berriek euskaraz berba egiteko eta ikasteko aukera izan dezaten. Hamasei euskaldun zaharrek eta 21 euskaldun berri eman zuten izena. Taldeka antolatu ziren; horrela, euskaldun zahar batek eta bi euskaldun berri osatu zituzten taldeak eta euren erabakitako egun, ordu eta tokian elkartzen dira. Baldintza da astean behin ordubetez euskaraz egitea.

### hileko esaldia

**"Saltoki handien merkataritza ereduak eztabaidatzeko foroak behar ditugu"**

Juanje Amasorrain > Bedelkar  
2006.04.07

### hileko datua

# 25

Bosgarren aldiz antolatu ditu aurten UNEDek udako ikastaroak. Guztira, 25 ikastaro antolatu zituzten, horietatik lau bakarrik euskaraz. Ekainaren 13tik hil bukaera arte izan ziren ikastarook.



#### Apirilean Musika emanaldi sorta

Begarako Musika Eskolak emanaldi sorta bat antolatu zuen Apirilean Musika izenarekin. 2006.04.12



#### Automobilak abiadan eta zebraiderik ez

Labegarietan, automobilak abiadan ibiltzen direla eta zebraidea falta dela esateko deitu zituzten. 2006.04.28

### izen propioak



**Kontxi Larrañaga**  
ODOL EMAILEA

Odol Emaile Handia izendatu zuten Kontxi eta Jaurlaritzaren plaka jaso zuen, 1978tik hona 65 odol emate egin ditu eta. 2006.04.07



**J.M. Lazkano**  
PINTOREA


BEC erakustazokan, sarrera nagusian, Jesus Mari Lazkano margolariaren koadro handi bat jarri zuten, Bizkaia izenekoa. 2006.04.07



**Leire Lasa**  
CHEERLEADER-A

Tau saskibaloit taldea animatzen duen *cheerleader* taldeko kideetako bat da Leire Lasa. Partiduaren atarian eta atsedenetan irtetzen dira. 2006.04.28

## ERAIKUNTZAK



# Artzamendi, S.A.

Gabon zoriotsuak

herritar guztioi!

Burdiñate plaza 6-behea  
Tel.: 943 76 27 58 - 943 76 01 53  
Faxa: 943 76 01 53  
20570 BERGARA



**Errodamendu berezien, burdineria eta sistema iristakorren fabrikazioa**

Royde, S. Coop. • 157 posta-kutxa • Amilaga 9 • 20570 BERGARA  
Tel.: +34 943 76 16 40 • Faxa: +34 943 76 50 75 • e-maila: rap@royde.com • www.royde.com



Gabon jai zoriotsuak bergararroi!

## albiste izan zen

### > DEBAGOIENA Gazte Martxa ibarrean

Euskal Herri osoko gazteen martxa Oñatin, Arrasaten eta Bergaran izan zen. 2006.04.27

### > EUSKAL HERRIA AHT egiteko hitzarmena

AHT egiteko behin betiko hitzarmena egin zuten Espainiako eta Euskadiko gobernuek. 2006.04.12

### > MUNDUA Romano Prodi garaile Italian

Prodik hauteskundeak irabazi zituen Italian, Berlusconiaren gainetik. 2006.03.10

## Lur azpiko edukiontzia jartzekotan

Apirilean udalbatzarrak erabaki zuen zaborra jasotzeko lur azpiko edukiontzia jartzea. Erabaki horren arabera, Komenio kalean jarriko dituzte lehendabizikoak (30.807 euroko aurrekontua), gaur egungoak dauden toki berean. Victoriano Gallastegi alkateak adierazi zuenez, etxebizitza berriak egiten dituzten guneeetan ere jarriko dituzte. Bestalde, alde zaharretan non jarriko dituzten oraindik zehazteke zuten.

Sei edukiontzi jarriko dituzte Komenion: hiru zabor organikoarendako, beira jasotzeko bat, papera eta kartoia jasotzeko beste bat eta ontzi arinak jasotzeko azkena.



OIHANA ELORTZA

### > PILOTA Bergararrak nagusi Udaberri Txapelketan

Bigarren mailako seniorretan, Eneko Mugurutza eta Joseba Herran bergararrek irabazi zuten Udaberri Txapelketa, Bergaran jokaturako finalean. Lehen mailako seniorretan ere Bergarako bikote bat iritsi zen finalera: Ander Mugurutza eta Igor Gutierrez, hain zuzen ere.

### > HIRIGINTZA Goenkaletik Madalenarainoko urbanizazioa

Apirileko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzarrak Goenkaletik Madalena plaza doan bidea urbanizatzea. Horrekin batera, eta Udaleko museo adituak hala eskatuta, proiektu arkeologikoa ere egitea onartu zuten. Aurrekontua, guztira, 13.000 euro ingurukoa zen.

### > ERRAMU ZAPATU Azoka berrantolatzea pentsatzen hasi ziren Udaleko arduradunak

Milaka lagun ibili ziren Erramu Zapatuko azokan. Handitzen joan da azoka eta Joseba Aizpurua Udaleko teknikariak esan zigun pentsatzen dabiltzala azoka berrantolatzea: "Euskal Herriko ekoizleetan gehiago zentratu nahi dugu eta kanpokoen kopurua mugatu, azokaren funtsa delako bertako lehen sektorea".

### > GREBA IATko langileek greba deialdia egin zuten apirilean

Bergarako Ibilgailuen Azterketa Teknikoko (IAT-ITV) langileek greba deialdia egin zuten apirilaren 11 eta 12rako. 2006ko lan hitzarmena negoziatzen ziharduten enpresako zuzendaritzarekin (Applus ITV Euskadi) eta adostasunera iritsi ez izana zen arrazoia. Soldata igoera eta lan orduen murrizketa eskatu zuten.

### ETXEBIZITZAK > URTE ETA ERDIAN LANAK AMAITUTA

## Hamar etxebizitza egingo dituzte Bereterio jauregian

Apirilean jakin genuen Bereterio jauregian, Masterreka kalean, hamar etxebizitza egingo dituztela. Kanpoaldea, fatxada, mantendu egingo dute, eraberritu egingo dute. Eraikinaren eskuineko aldean zazpi garaje egingo dituzte eta baita berde-

gune bat ere. Aurrez ikusten zuten Aste Santuan lanekin hastea eta urte eta erdiko epean amaitzea lanok.

Jesus Laskurain teknikariak adierazi zigunez, eraikinaren XVII. mendeko lehioak mantendu egingo dituzte.

### > EUSKARA Gaztettoendako olinpiadak antolatu zituen Jardunek

Jardun euskara elkarteak seigarren urtez antolatu zituen gaztettoendako olinpiadak. Laugarren, bosgarren eta seigarren mailako gaztettoendako, hain zuzen ere. Boloak, toka, igel jokoan eta beste hainbat jolasetan ibili ziren maiatzean hasi eta ekainera arte.



Telleria 19, B-5  
**BERGARA**

Tel.: 943 76 94 60  
Faxa: 943 76 92 81  
belmek@belmek.com  
www.belmek.com



**Urte berri on guztioi!**



- Kooperatibistentzako banatzaile espezializatua
- Baldintza ezin hobekak

Tel.: 943 76 19 95  
**BERGARA**



Sukalderako altzariendako osagarriak  
**URTE BERRI ON!!**

**FAGOR**   
etxetresna  
elektrikoak



# MAIATZA



**"Marrazki bizidunen film luze baterako gidioa idazten dihardut"**

Asier Altuna > Zinemagilea  
2006.05.01



**"Bigarren mailako genero bezala ikusia izan da txotxongiloena"**

Itsaso Azkarate > Aktorea eta titiriteroa / 2006.05.19

## Jolasparkeak berritzea erabaki zuen Udalak

Udalak jakinarazi zuen 300.000 euroko inbertsioa egingo zuela herrian jolasparkeak berritzeko eta berriak egiteko. Lau gunetan (Espoloian, Poligonoan, Gorlan eta Martokon) dauden jolasparkeak berritzeko eta beste bi gunetan (Labegaraian eta Zabalotegin) berriak egiteko erabiliko dute diru hori, azaldu zigutenaren arabera.

Dena dela, Juanjo Arrieta Hirigintza Saileko zinegotziak adierazi zigunez, beste hamar leku baino gehiago daude zabuak ipintzeko edo berritzeko premian, auzoetan, bereziki. Udaleko ordezkariak hainbat lekutan ibili ziren jolasak ikusten, egokienak aukeratzeko; Italiako azoka baten, esaterako, egon ziren.



OIHANA ELORTZA

### hileko esaldia

**"Brandt erosi genuenetik lan gehiago dago, eta egituran moldaketak egon dira"**

Jabier Gantxegi > Fagor Etxetresnak / 2006.05.05

### hileko datua

# 85

Kirola bultzatzeko 85.475 euro banatzea erabaki zuen Udalak. BKEk (40.200 euro), Lokatzak (12.500 euro), Beti Busting (4.700) eta Antxintxikak (4.600), besteak beste, jaso zuten dirulaguntza.



**Erromeriak antolatu zituzten maiatzean**  
Munibe plaza erromeriaren gunea bilakatu zuten maiatzeko asteburuetan. 2006.05.05



**Zuloak ganoraz estali barik**  
Amillagako biribilgunean, zulo bat, askotan estali duten arren, berriro sortzen da. 2006.05.05

### izen propioak



**Iñaki Ibartzabal**  
PINTOREA

Bere lehen margolan erakusketa jarri zuen Iñakik maiatzean, Nahikari tabernan. 16 lan jarri zituen ikusgai. 2006.05.08



**Zigor Martinez**  
BIG BAND-EKO ZUZ.

Arrasate Musikaleko Big Band taldeko zuzendaria da. Orkestrarekin batera lehen kontzertua eskaini zuten, Donostian. 2006.05.19



**Edurne Azuara**  
AKTOREA

Maiatzean hasi ziren filmatzen *Balbemendi* telesaila. Telesail horretako protagonista da Edurne Azuara aktorea. 2006.05.26

## Zorionak eta urte berri on guztioi!



**Grua zerbitzua**

Zerbitzu publikoa

Era guztietako kargak




**ANDVZV**

ANDUZU S.L.

Tel.: 607 34 90 43

**ALTUBE  
tailerrak SM**



ESTANPAZIORAKO PIEZAK ETA TRESNAK MEKANIZATZEA ETA ARTEZTEA

Tel.: 943 76 22 74  
Faxa: 943 76 04 99

**URTE BERRI ON!**

San Lorentzo poligonoa - Urarte 22  
94 posta-kutxa - BERGARA

**albiste izan zen**

> DEBAGOIENA  
**Mundumira jaialdia Oñatin**

Bigarren Mundumira jaia, kulturen jaia, egin zuten gurean. Parte-hartze handia egon zen. 2006.05.26

> EUSKAL HERRIA  
**Lan erreforma hitzartu zuten**

Lan Erreforma hitzartu zuten Madrilan. Euskal sindikatuek ez zuten parte hartzerik izan. 2006.05.19

> MUNDUA  
**Nazionalizazio kanpaina**

Hidrokarburoak nazionalizatzea onartu zuten Bolivian. 2006.05.01



OIHANA ELORTZA

**Emagin zerbitzua izatea eskatu zuten**

Bergarako anbulatorioko emaginak baja hartu zuen eta ordeko emagina jartzea eskatu zuten hainbat emakumek. Sinadurak batu zituzten, gainera, anbulatorioan aurkezteko. Emakume talde horrek adierazi zigun emagin zerbitzua normaltasunez, egunero, izatea eskatzen zutela. Azaldu zigutenez, Oñatiko emagina etortzen zen kasu *larriak* bakarrik hartzeko.

Iñaki Urgoitia anbulatorioko zuzendariaren esanetan, ordea, hori ez zen horrela izan. Berak azaldu zigunez, beste bi emagin etortzen ziren asteen hiru egunetan; emagin zerbitzua badagoela adierazi zigun.

> ARTXIBOA  
**Hainbat herriri dokumentazioa itzultzea erabaki zen**

Bergarako Udalak erabaki zuen hitzarmena sinatzea Eibar, Mutriku eta Soralueko udalekin, Bergarako Udalen Artxiboan gordeta zeuden hainbat eskribautzaren dokumentazioa herri horiei itzultzeko. Dokumentazio hori 1512 eta 1866 urte bitartekoa da.

> ERAKUSKETA  
**Munduko musika instrumentuak Aroztegi aretoan**

Munduko hainbat etnia eta kultura musikal ordezkatzuz, 150 instrumentu egon ziren ikusgai Aroztegin. Kote Loidi eta Lurdes Iartza senar-emazteek jarri zuten erakusketa. Gauza bitxiak ikusteko aukera ere izan zen; esate baterako, giza burmuinekin egindako danborra.

> MUSIKA ESKOLA  
**Capelladesko musika eskolakoak izan genituen bisitan**

Bergarako Musika Eskolak antolatuta, Capelladesko (Bartzelona) musika eskolako ikasle eta irakasleak izan genituen herrian. 50 bat ikasle, bost irakasle eta hainbat guraso etorri ziren. Kataluniarrek hainbat emanaldi egin zituzten eta Bergarako Musika Eskolakoekin batera ere eskaini zuten obra bat.

> AISIALDIA ETA EUSKARA  
**Jolasleku Ibiltaria abiarazi zuten Jardun euskara elkarteak**

Zazpigarren urtez jarri zuten Jardun euskara elkarteak Jolasleku Ibiltaria ekimena. Bereziki 6 eta 12 urte bitarteko umeei zuzentzen dio egitasmo hori Jardunek. Maiatzeko egubakoitzetan elkar-tu ziren herriko hainbat tokitan eta euskaraz jolasteko aukera izan zuten umeei. Aurreko urte-etan arrakasta handia izan du.

**ETXEBIZITZAK > 22 ETXEBIZITZA EGINGO DITUZTE**

**San Antonioko etxebizitzak lehen harria jarri zuten**

Etxebizitza sailburu Jabier Madrazok eta Victoriano Gallastegi alkateak jarri zuten lehen harria San Antonion egiten diharduten etxebizitza babes-tuetan. Ordurako lanak hasita zeuden eta 2007. urte bukaerarako amaitu nahi dituzte.

22 etxebizitza egingo dituzte: batzuk izango dira etxea berreskuratzeko eskubidea dutenendako eta gainerakoak alokatu egingo dituzte. Alokairu eskaera eginda daukate 213 herritarrek. Lanak bukatzeaz daudela egingo dute zozketa.

> MENDEKOSTE JAIK  
**Zezen-plazarik ez jartzea erabaki zuen Udalak**

Mendekoste jaietan zezen-plazarik ez jartzea erabaki zuen Udalak, bigarren urtez. Arrazoia izan zen ez dagoela horretarako leku egokirik. Hala, Zezenzaleak taldekoak oso haserre agertu ziren erabakiarekin, Kultura batzordearekin adostuta zeukatela zezen-plaza jartzea.

**IAM**

Sarpen eta hari bidezko elektrohigadura

**IAMMEK**

Abiadura handiko mekanizatuak

**IAMCUT**

Ur-zorrotada bidezko mozketak

GRUPO  
**IAM**

Aribar industrialdea B pabilioia  
San Juan auzoa 52 BERGARA  
Tel.: 943 76 91 00 Faxa: 943 76 29 49

Zorionak denoi!

[www.iam.es](http://www.iam.es)



**Estella ortopedia**

Javier Estella, ortopedia teknikari tituluduna  
OSAKIDETZAREKIN ETA LAGUN AROREKIN HITZARTUA

- Etxerako laguntza teknikoak • Kirol Ortopedia • Oinetakoak
  - Mastektomia • Neurriera eginiko plantillak
- Matxiategi 5, BERGARA. Telefonoa: 943 76 19 63



Gabon jai zoriontsuak!

# EKAINA



**"Deba edo Bidasoa ibaietan ibiltzen gara piraguekin"**

Iñaki Gallastegi 'Kuxi' >  
Piraguiста / 2006.06.23



**"Haur Hezkuntzarekin bakarrik, Angiozarko eskola kondenatu dute"**

Anselmo Vega > Irakaslea  
2006.06.16

## hileko esaldia

**"Eskualdeko enpresei laguntzeko zabaldu du Elkargik bulegoa"**

Jesus Alberdi > Elkargi  
2006.06.30

## hileko datua

# 519

Aurten 519 lan aurkeztu zituzten Koldo Eleizalde literaturari lehiaketara: 424 ipuin; bertotan sei bertso sorta; 72 komiki eta beste 17 lan ipuin kontaketa edo antzerkiari dagokionez.



GOIENKARIA

## Miguel Altuna berriaren lehen harria, 2007an

Miguel Altuna Instituto berriaren planoak ezagutu genituen ekainean. 2007an jarriko dute eraikin berriaren lehen harria. Candy enpresaren ondoan egingo dute, Pazko jaietan moto-krosa egin zuten tokian. Eraikin berria oraingoaren bikoitza baino handiagoa izango da; 11.000 metro koadro izango ditu. "Makinek toki handia behar dute eta segurtasuneko eta kalitateko distantzia minimoek ere egon behar dute. Bestela, oraingoaren antzerakoa izango da, proiektu berekin jarraituko dugulako", azaldu zuten Iñaki Larrañagak, zuzendariak. Bi eraikin izango ditu institutuak.



### Euskara biziberritzeko plana


Aisialdiko, kiroleko, kulturagintzako eta erlijioeko 77 elkarteri euskara plana aurkeztuko zieten. 2006.06.09



### Kanpoko igerilekurik ez

Igerileku berriak egiten dihardute, baina oraingoz ez dute kanpoko igerilekurik egingo. 2006.06.02

## izen propioak



**Juan Martin Elexpuru**

IDAZLEA


ETBren *Balbemendi* misterioko tele-saileko gidoilaria da Juan Martin Elexpuru. Artikutzan hasi ziren grabatzen. 2006.06.16



**German Lete**

ARRAIN SALTZAILEA

30 kiloko ezpatarraina ekarri zuen Letek dendara. Hain zuzen, Bizkaiko kostako Izaro irlatik geratu harrapatu zuten. 2006.06.16




**Asier Penabad**

TXIRRINDULARIA

Hirugarren sailkatu zen Penabad gaztea Gipuzkoako Itzulian; azken etapen *galdu* zuen liderraren mailot horia. 2006.06.30

Gabon **jai zoriontsuak** igaro!



"la Caixa"

Fraiskozuri 7 Tel.: 943 76 41 16  
Faxa: 943 76 93 77




**Instalakuntza moderno eta guztiz erosoekin, gure bezeroek merezi duten kalitatezko zerbitzua eskainiz.**

**Ariznoa**  
HOTELA

Telesforo Aranzadi, 3  
Tel. 943 761 846 - 943 761 847 Faxa: 943 761 848  
20570 BERGARA - Gipuzkoa



Edozein motatako ospakizuna egin nahi izanez gero, kontsulta egiguzu. Eskerrik asko guztiagatik eta urte berri on!



San Juan auzoa Tel.: 943 76 35 51



Masterreka 8 Tel.: 943 76 53 12



Eskerrik asko, guztioi, eta urte ona izan dezazuela. Badakizue non gauden



**Saunier Duval**



**DICOMAN S.L.**

San Lorentzo, 21  
20570 Bergara  
Laguntza teknikorako zerbitzu  
ofizial baimendua

**Tf. 943 76 06 61**


**BEROGAILUAK, KLIMATIZAZIOA ETA UR BEROA**

# UZTAILA



**"Prest egon behar da behar ez diren organoak emateko"**

M. Asun Zubimendi >  
Organo emalea / 2006.07.14



**"Bergarako dendek ez dute inongoen inbidiarik, onak dira"**

Susana Iza > Saltzailea  
2006.07.21

## hileko esaldia

**"Herriaren alde lan egitea zen duela 30 urteko alkate mugimenduaren helburua"**

J. Luis Elkoro > Alkate ohia  
2006.07.21

## hileko datua

# 1,3

San Martzial egunerako, 1.300 lagun baino gehiagorendako mahaia eta aulkiak hartu zituen Udalak. Mahai bakoitzeko 20 eurokoa zen fidantza, mahaia entregatu ostean jasotzeko aukerarekin.



GOIENKARIA

**Aurtengo udal aurrekontuak onartu zituzten**

2006ko aurrekontuak onartu zituen udalbatzak uztailearen 3an egindako ezohiko osoko bilkuran. Ia 30 milioi euroko aurrekontua onartu zuen, iazkoa baino %21 handiagoa. Aurrekontuaren inbertsio handiena Agorroren kirol instalazioarendako izango da. Arrizuriagako liburutegirako, jolasparke berriak egiteko eta haurreskola martxan jartzeko ditu partidak ere jaso zituzten aurrekontuetan. EAJ-EA eta Aralarren botoekin onartu zituzten; Ezker Batuak eta PSE-EEk aurka bozkatu zuten; PPko zinegotzia ez zen osoko bilkurara joan eta Bergara Aurrera ez zegoen ados.



**Errege seminarioa patronatuarena da**

Errege seminarioa patronatuaren esku uzteko lagapen hitzarmena sinatu zuten. 2006.07.14



**Lan istripu larria Lacor enpresan**

28 urteko langilea 2,5 metroko altueratik erori zen eta kolpe larria jaso zuen. 2006.07.21

## izen propioak



**Remi Arantzabal**

AUZITEGIKO MEDIKUA

17 urtez da Remi Arantzabal auzitegi-ko medikua, eta oso hilketa gutxi ikusi ditu, arraroa dirudien arren. 2006.07.014



**Agustin Toledo**

BOCCIA JOKALARIA


Brontzeko domina irabazi zuen boccia-ko Espainiako Txapelketan. Zoriontzeko, omenaldia egin zioten San Joxepen. 2006.07.14



**Juan Luis Bikuña**

KAZETARIA

Erretiroa hartu zuen Juan Luis Bikuña kazetariak. 1983an hasi zen ETBn lanean; lehen *Teleberri*-a aurkeztu zuen. 2006.07.21



**iBARRALDE**  
Administrazio zerbitzuak SM

- Fiskalak
- Laboralak
- Kontableak eta juridikoak
- Finken administrazio zerbitzua

25.068 kolegiatu zenbakia

Ibargarai, 30 BERGARA  
Tel.: 943 76 52 88 - Faxa: 943 76 25 64

Zorionak eta urte berri on!

**2007AN  
DENOK AHALEGINDUZ,  
BAIETZ EUSKARA IKUSI  
TONTORRERA HURBILDUZ!**

**Ondo pasa gabonak!!!**

Uriburu 9 behea 20500 ARRASATE Tel.: 943 71 18 47 / Martin Ugalde Kultur Parkea-ANDAIN emun@emun.com www.emun.com

**EMUN**  
LANA EUSKALDUNTZEKO  
KOOPERATIBA



**Gabon zorientsuak eta urte berri on guztioi**

**BULEGOA Tel. eta faxa: 943 76 47 00**

**TABERNA Tel. 943 76 49 33**


**San Pedro 4, BERGARA**



*Eraman dotoretasuna  
zure etxera*



Zubillaga auzoa 1 OÑATI  
Tel.: 943 71 63 22  
Faxa: 943 78 15 51



*Gabon zoriontsuak eta urte  
berri on herritar guztioi!*

Amillaga 22 P. K. 79 • 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 13 48 • Faxe: 943 76 50 34  
e-maila: mse@metagra.com • www.metagra.com



**AZKARATE**  
aroztegia



*Arotz lanetan behar duzun guztia*

• Ateak • Leihoak • Horma-armairuak • Tarimak • Parketak • Sukaldeak



Telleria 19, B-0-2 B-0-3 • BERGARA • Tel.: 943 76 47 19 / 610 884 020  
azkaratearoztegia@euskalnet.net

[www.goiena.net/blogak/azkarate](http://www.goiena.net/blogak/azkarate)

# ABUZZTUA




**"Gauza txiki asko eskainita, zerbitzu ona eman nahi dugu"**

Amaia Zabaleta > Agorrosingo gerentea / 2006.09.1



**"Industriagunea egingo dugu Mekolaldetik Murinondoraino"**

Josean Etxeberria > Hirigintzako zinegotzia / 2006.09.1



## Domingo Irala berria erakutsi zuen Udalak

Domingo Irala kale berrituaren planoak erakutsi zituen Udalak. Proiektuaren helburua da kalea oso-osorik ikustea eta herriaren alde zaharra eta berria batzeko gunea izatea. Horretarako, Sagarpe elkartaren parra eta Gasparreko garajeak bota egingo dituzte; ikuskizunak egiteko moduko plazatxo bat egingo dute Ariznoa tabernaren parean; 40 zuhaitz inguru landatuko dituzte; komun publikoak eta eserlekuak egingo dituzte; Irizar jauregia inguratzen duten hormak bota egingo dituzte eta lorategiak berrantolatu. Lanak aurten hasi dituzte.

### hileko esaldia

**"Inoiz baino auto gehiago izan dira aurtengo abuztuan herrian"**

Alfonso Alonso > Udaltzaina  
2006.08.29

### hileko datua

# 0

Udaltzainen esanetan, aurtengo abuztuan ez zen lapurretarik egon Bergaran. Oso hilabete lasaia izan zela esan zuten, eta, lapurretarik ezaz gain, aparteko gorabeherarik ere ez zela egon esan zuten.



### Zebrabideak margotu zituzten


Zebrabideak margotu, Zuhaitzetako adarrak moztu eta Santa Marinako zubia asfaltatu zuten. 2006.08.29



### Maletak pitzatuta udako oporretan


Hegazkineko bidaietan, maleta pitzatuta agertu zitzaion bati baino gehiagori aireportuan. 2006.09.01

### izen propioak



**Aritz Alustiza**  
TRIKITILARIA

Argentinako Necochea herriko euskal etxean egon zen Alustiza oporretan, gazteei panderoa eta trikitia erakusten. 2006.09.01



**Nielka Ibareguren**  
IGERILARIA

Espainiako Txapelketan egon zen Nielka Ibareguren, Bartzelonan. Euskadikoan lortu zuen txartela. 2006.07.24



**Igor Zuazola-zigorraga**  
IKASLEA

*Mister Jator* izendatu zuten Bergarako Mendekoste jaietan Igor Zuazolazigorraga gazte bergararra. 2006.07.21

# E L K A R

## Fotokopiak


- Planoen handitzeak eta txikitzeak
- Ploteoa eta Ecawea
- Plastifikazioak DIN A4/A3 eta posterrak
- Koloretako fotokopiak
- Eskaneatzeak koloretan makina digital bidez
- Bulego materiala
- Fax publikoa
- Enkuadernazioak

Urte berri on !

e-posta: [elkarcopias@terra.es](mailto:elkarcopias@terra.es)

Artekale 1

Tel./Faxa: 943 76 58 16



# ARATZ

Zurradero 6, behea  
Tel.: 943 76 70 67 poltsikokoa: 607 48 71 19

## ALBAITARI KLINIKA

*Aratzek gabon jai zoriontsuak opa dizkie bezero guztiei*



# IRAILA



**"Euskaltegiko ikasleen adina igotzen ari da; 40tik gora dute askok"**

Maria Dolores Lete > Udal euskaltegia / 2006.09.22



**"Esperantza dut Kubako egoera ez dela bat-batean aldatuko"**

Markos Gabilondo > Komite Internazionalistak / 2006.09.04

## hileko esaldia

**"Irakasleak eta gurasoak ados egon ziren eskolako liburuen maileguekin"**

Susana Uriarte > San Martin ikastetxea / 2006.09.08

## hileko datua

# 688

Udal Pilotalekuan obrak egin zituzten, eta San Martinetan estreinatu zuten pilotalekua, sabaia, aldagelak, eskailerak eta eserlekuak konponduta. Eserlekuak egurrezkoak eta automatikoak dira, 688.



GOIENKARIA

## Agorrosin ekintzagunea zabaldu zuten

San Martin egunean, irailaren 16an inauguratu zuten Agorrosin ekintzagunea: bi igerileku, gimnasioa, ekintza anitzetarako aretoak, taberna, ludoteka, ekitaldien aretoa eta elkarteendako bulegoak ditu. Zazpi milioi euro gastatu dituzte eraikin hori egiteko, 480 euro herritar bakoitzeko gutxi gorabehera. Kopuru horretatik bi milioi Gipuzkoako Aldundiak jarri ditu eta gainerakoa Udalak. Inaugurazio egunean Aldundiko eta Udaleko agintariak egon ziren. Hainbat herritarrek euren aldarrikapenak egiteko aprobetxatu zuten momentua.



### Urteaga kalea zabaldu zuten

2003ko maiatza ezkerrean egon da itxita, mendiko maldan behera lurra jauzi zelako. 2006.09.8



### Marokoko generorik saltzen ez

Dendariak esan digute Marokoko generoa lehen baino gutxiago saltzen dutela. 2006.09.29

## izen propioak



**Fran Iturbe**  
MUSIKARIA



**Juan Kruz Mendizabal**  
ABADEA



**Irene Zenitagoia**  
LOREZAINA

Bide Ertzean taldearen azken diskoan hartu zuen parte gitarra-jole bergararrak, *Non dira ize-neko lanean*. 2006.09.15

Ormaiztegi Juan Kruz Mendizabal da irailaren 30a ezkerrean Santa Marinako abadea, Xabier Azkoitiaren orde. 2006.09.29

Donostiako Zinemaldiko aktoreendako erramuak egiten eta aretoak apaintzen laguntzen ibili zen. 2006.09.29

Etxebizitzen, etxabeheen eta garajeen eraikuntza

# ORTUIBAR SM

## PROMOZIOAK

Ibargarai 18 BERGARA 943 76 11 18



**zumelaga**  
JATETXEA

*Gabon zoriontsuak izan ditzazuela denok!*

San Antonio 5 BERGARA 943 76 20 21

64 urte zuen zerbitzura!

**albiste izan zen**

> DEBAGOIENA  
**Autobus zerbitzu berria**

Ibarreko autobus zerbitzua hobetzeko, hainbat linea sortu edo indartu egin zituzten.  
2006.09.01

> EUSKAL HERRIA  
**Etorkin gehiago hartu ezinean**

EAEko aldundiek esan zuten etorkin gazteak hartzeko zentroak gainezka zeudela.  
2006.09.20

> MUNDUA  
**Aita Santua, Mahomaz**

Islama haserretu egin zuten Aita Santuaren hitz batzuek.  
2006.09.12

**20 eta 301 euro arteko zirkulazio isunak**

Udaltzainek 20 eta 301 euro arteko zirkulazio isunak jartzen dituzte irailetik aurrera.

Hiru kategoriatan daude banatuta zirkulazio arau-hausteak: arinak, larriak eta oso larriak. Arinengatik 20 euroko isuna ordaindu behar da, eta hor sartzen dira, adibidez: espaloi gainean aparkatzea zirkulazioa oztopatzen ez badu edo debekatutako tokian aparkatzea. Arau-hauste larriek 100 euroko isuna dute, adibidez: zirkulazioa oztopatuz aparkatzea, motoetan kaskorik gabe joatea edo baimendutako baino abiadura handiagoan zirkulatzea. 301 euro da oso larrien isuna: debekatutako noranzkoan gidatzea edo alkohol tasa gaitztea, besteak beste.



GOIENKARIA

> MUSIKA  
**Mahaster River taldeak lehen diskoa kaleratu zuen**

Mahaster River taldeak lehen diskoa kaleratu zuen: *Irtenbiderik gabeko autobiak*. Hamaika kantu batu zituzten, eta blues, country eta flamenko estiloak landu zituzten. Andoingo Garate estudioetan grabatu zuten diskoa, uztailean, eta Gaztelupeko Hotsak etxeak kaleratu zuen.

> FUTBOLA  
**BTLS, bi taldez osatutako Bergarako futbol klub berria**

Bergarak bi futbol klub ditu, Bergara Kirol Elkartekoa bata, eta BTLS bestea. Karlos Lasa izango da BTLS futbol klubeko arduraduna. Bigarren erregional mailan jardungo duen mutil koadrila batek egindako proposamena onartu du Lasak. Neskak ere BTLSra joan dira.

> INDUSTRIA  
**Narbaiza botatzen hasi ziren Mekolaldeko industriagunea egiteko**

Narbaizan ehungintzako enpresa zena botatzen hasi ziren Mekolaldeko industriagunea berria egiteko. Asmoa dute Mekolaldek Murinondorainoko industriagunea egitea. Horra joango den lehen enpresa Tornilleria Deba izango da. 2007 bukaerarako han egongo direla uste dute enpresako arduradunek.

> HEZKUNTZA  
**Haur Hezkuntza soilik eskainiko dute Angiozarren**

Angiozarko eskolan Haur Hezkuntza soilik irakatsiko dute irailean hasi duten ikasturte berrian. Hezkuntza Sailak erabaki du ez duela Lehen Hezkuntza eskainiko. 2006-2007 ikasturtean 2 eta 5 urte bitarteko zortzi ume ibiliko dira eta bi irakasle izango dituzte: Anselmo Vega Mito eta Paddy Rekalde.

**ZINEMA > DONOSTIAKO ZINEMALDIA**

**Zinemaldian estreinatu zuten 'Kutsidazu' filma**

Donostiako Zinemaldian estreinatu zuten Mireia Gabilondok eta Fernando Bernuesek zuzendutako *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* filma. Bergararraren debuta izan da zinema zuzendari gisa. 2005eko udan egin zuten grabaketa, Gaztelun eta Zizurkilen,

eta Mikel Losada, Ainere Tolosa, Iñake Irastortza eta Jose Luis Ugartemendia izan dira aktoreak. Zuzendari lanaz gain, aktore lana ere egin du Gabilondok: Ixabel protagonistaren ahizpa da. Milioi bat euroko aurrekontua izan du filmak.

> SAN MARTINAK  
**Zabaleta, Pol-Pol, Zumelaga eta Lazkano anaikideak**

Zazpigarren urtez egin zuen kapitulua Erreileno eta Tostoi Kofradiak, San Martin jaien barruan. Aurten, beste lau izendatu dituzte ohorezko anaikide: Aitor Zabaleta auto gidaria, Zumelaga jate-txeko Antxon Zumelaga, Pol-Pol mendi taldea eta Bixente Lazkano soinu-jolea.



GABON JAI ZORIONTSUAK!

**JOXAN  
ARRAINDEGIA**

Ibargarai 24. Bergara. Tf. 943 76 70 29

construcciones  
**Goitu**  
eraikuntzak S.L.

Zorionak denoi!

Masterreka 14-16 • Tel.: 943 76 11 23 • Faxa: 943 76 30 41  
goitu@grupogoitu.com

# URRIA



**"Mahai bat dut harategian 'halal' okela bakarrik mozteko"**

Joseba Cervo > Harakin musulmana / 2006.10.06



**"Ilbete edo ilberri dagoenean perretxiko gehiago egoten da"**

Jose Mari Larrañaga > Perretxikozalea / 2006.10.06

## hileko esaldia

**"Domingo de Irala mestizaiaren aita bezala ezagutzen dute Amerikan"**

Migel Angel Elkoroberezibar > Ikerlaria / 2006.10.06

## hileko datua

# 2.000

Lehenengo hiru asteetan 2.000 abonatu berri egin zituen Agorrosinek eta 3.000 abonatu izatera iritsi ziren. Unai Asurmendik, Kirol teknikariak, esan zigun aurreikuspen guztiak gainditu zituztela.



GOIENKARIA

## Haurreskola publikoa ireki zuten urrian

Urriaren 23an zabaldu zituen atea Haurreskola partzuergoko haurtzaindegia publikoa. Zortzi umerekin hasi zuten ikasturtea, baina 0 eta 2 urte bitarteko 55 umerendako tokia du. Hiru irakasle hasi dira lanean: Elena Gijarro arrasatearra, Sonia Laskurain soraluzetarra eta Eneritz Dorronso-ro zumaiarra. Hain zuzen ere, 07:30etik 18:30era egoten da zabalik zerbitzu berria. Ikasturte hasierarekin zabaltzeko asmoa zuten, baina egoitza egokitzeko lanak atzeratu egin ziren. Irakasleek argi laga zuten eskola bat dela, hezkuntza proiektua dutela.



### Zebrabidea behar den moduan

Espoloiari zebrabide berria jarri zuten, barandarekin babestuta. Lehen baino seguruago geratu da. 2006.10.11



### Labegaraietako zubi, arriskutsu


Labegaraietako zubi baten eskudelak tarte handiegia duela eta, arriskutsu dagoela salatuta. 2006.10.06

## izen propioak



**Iñaki Arriola**

EUSKAL KLUSTERRA



**Jon Gonzalez**

AKTOREA



**Mikel Calvo**

FILM EGILEA

EAEko Garraio eta Logistika Klusterra sortu zuten Eusko Jaurlaritzaren babesarekin. Kluster horretako presidentea da Iñaki Arriola. 2006.10.20

La Sexta telebista kateko SMS, *Sin miedo a soñar* tele-sailean hasi zen Jon Gonzalez. Profesionalki egiten zuen lehenengo lana zuten. 2006.10.06

Bergarako Udalak deitutako Film Laburren I. lehiaketa irabazi zuen Mikel Calvok, drogaren gaia lantzen duen *Ebaki* lanarekin. 2006.10.02



## Kalebarren instalazioak SM

- Proiektuak
- Instalazioak eta mantenimendua
- Gasa
- Berogailua
- Aire girotua
- Iturgintza lanak

**Aurrekotuak konpromesorik gabe**

GABON ZORIONTSUAK GUZTIO!!

Bidekurutzeta 31 behea

Tel.: 943 76 11 67 BERGARA

E-mail.: kalebarren@inicia.es

Tel.: 943 75 23 07 SORALUZE

944 75 99 60 DEUSTO

# AITEC, S.L.

ESTALDUREN KALITATE - KONTROLA

• LABORATEGI INDUSTRIALEN EKIPAMENDUA

## Gabon zoriontsuak!

## albiste izan zen

### > DEBAGOIENA **Harri-jauzia Arrasaten**

Hiru zauritu eta kalte handiak izan ziren AP-1eko eztanda batek eragindako jauzian. 2006.10.10

### > EUSKAL HERRIA **Osakidetza, on-line**

Internetez txanda hartzeko sistema aurkeztu zuen Osakidetzak. 2006.10.27

### > MUNDUA **14 hildako Oaxacan**

Oaxaca hirian 14 hildako izan ziren protestaldi baten. 2006.10.28

### > HIRIGINTZA **Udal lokalen egoera jakiteko txostena egin zuen Udalak**

Udal lokalak zenbatu eta zein egoeratan dauden aztertzeko txostena egiteko, lokalez lokal ibili ziren urrian udal aparejadorea eta ingeniari bat.

Asmoa zen lokalen gabeziak zeintzuk diren ikustea eta legeak eskatzen dituen baldintzak betetzen dituzten edo ez ikustea.



OIHANA ELORTZA

### **Hainbat eraikin argiztatzeko asmoa**

Ondare historiko eta artistikoa duten eraikinak argiztatu egingo dituztela iragarri zuen Udalak; Errege Seminarioa, esaterako. Azaldu zuten, 25 argi punturekin, batzuk lurrean, beste batzuk eraikinaren fatxadetan. Bestalde, Udala, epaitegia, Olaso dorrea eta San Pedro eliza izango dira beste eraikin batzuk.


Argiztapen hauen helburua da herriko komertzioaren gunea berpiztea. Eraikinak argiztatzeko proiektuaren aurrekontu osoa 450.000 euro izango dela azaldu zuen Udalak.

### **UMEAK > IPUINAK, JOLASAK ETA MARGOAK XIPIZARON**

## **Agorrosinen kokatu zuten Xipizaro ludoteka berria**

Agorrosin aisialdigune berrian kokatu zuten Xipizaro ludoteka. Tabernaren ondoan, hain zuzen ere, bigarren solairuan. Azaroaren 18ra arte ate irekiak izan zituzten ludotekan, umeek eta gurasoek toki berria zelakoa den ikusteko.

**40 UMERENDAKO TOKIA**  
3 eta 12 urte bitarteko 40 umerendako tokia dute. Gemma Hoyos Xipizaroko begiraleetako batek azaldu zigun umeek euskaraz jolastea eta eskolen arteko harremanak bultzatzea direla ludotekaren helburuak.



Ume bat ludoteka berrian jolasean.

### > UDAL MUSIKA BANDA **Bandaren 175. urteurrena ospatzeko, liburua**

Udal Musika Bandak 175. urte beteko ditu 2007an, eta hori ospatzeko, Juan Luis Bikuñak taldearen historia batzen duen liburua idatziko zuela iragarri ziguten.

Orduan azaldu zigutena- ren arabera, 2007ko irailean argitaratuko dute liburu hori, euskaraz eta gazteleraz.

### > LAPURRETAK **Agorrosingo aparkalekuan lapurrak ibili ziren**

Agorrosingo langileek ohar- tarazi zuten aparkalekuan lapurrak zebiltzala, eta horixe zioen oharra jarri zuten sarreran. Bi autotan, behintzat, sartu ziren lapurrak; egunez izan ziren lapurreta biak. Agorrosingo instalazioen barruan ez zen lapurreta- rik gertatu.

### > ERAKUSKETA **Ormazabalen argazki erakusketa Aroztegi aretoan**

Pedro Luis Ormazabal argazkilarik bergararraren *Atzera begirakoa* izeneko erakusketa egon zen Aroztegi aretoan. 45 bat argazki jarri zituen ikusgai, azkeneko 30 urteotako gainbegiratu bezala. Argazkiekin batera, azkenaldian margotutako bost margolan ere jarri zituen.

# LAGUN GARAJEA

Tailer profesionala

Mekanika orokorra

**ZORIONAK  
GUZTIOI!**

Santalaitz 3. Bergara. Tel.: 943 76 11 20

## etxeberria

**ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA-OPARIAK**

Zorionak eta urte berri on!

Bidekurutzeta 16. BERGARA. Tel. 943 76 23 94 - 76 12 65

# AZAROA



**"Pozgarria da Euskadiko txapela irabaztea, kopa eder bat eman zidaten"**

Josu Mentxaka >  
Motorzalea / 2006.11.03



**"Euskararen ezagutza eta erabilera bultzatu nahi ditugu"**

Amagoia Aristegi >  
Berba / 2006.11.17

## hileko esaldia

**"Pozgarria da norberaren lana erakustea, eta Aroztegin bada, askoz hobe"**

Miguel Okina > Margolaria  
2006.11.03

## hileko datua

# 5

Emakumeen aurkako indarkeria salatzen 5.000 txartel banatu zituen Ongizate Sailak herriko zerbitzuetan. Aurtan, indarkeria jasan duten bederatzi emakumeren kasuak izan ditu Udalak.

## 'Seussen mundua' Udal Pilotalekuan

*Seussen mundua*, Bergarako Orfeoia joan den urteko Gabonetan Bilbon estreinatutako ikusizuna, Bergarako Udal Pilotalekuan eskaini zuten azaro erdialdean. Bi emanaldi egin zituzten, eta bietan bete zen ikusle pilotalekua.

Guztira 117 lagun izan ziren taula gainean: Orfeoiko kideak, musika eskolako musikariak, kantu ikasleak... Potol elefantearen istorioa antzestu zuten, hauts-izpi baten barruan bizi ziren planetako biztanleak salbatu nahi izan dituen elefantearena.

David Azurtza eta Valen Moñux izan ziren zuzendariak. Eszenografia, berriz, Kukubiltxo antzerki taldearena izan zen. Gabonetan, Kursaalaren izango dira.



GOIENKARIA



### Biodibertsitatea zainduko dute

Biodibertsitatea zaintzeko konpromisoa hartu zuen Udalak; San Martzialgo proiektua, adibide bat. 2006.11.24



### Oztopo arkitektonikoak herrian

Herrian oztopo arkitektoniko asko zeudela jakin arazi zigun herritar batek. 2006.11.24

## izen propioak



**David Azurtza**

ORFEOIA


Orfeoiko zuzendari Azurtzaren *Loriak udan* lana Tolosako Abesbatzen lehiaketan izan zen, derri-gorrezko kantuen zerrendan. 2006.11.03



**Sulian Pan**

DENDARIA

Txinako hegoalde-tik Bergarara etorri da Sulian Pan eta bazar txinatarrak jarri du. Kantabriaren eta Arrasaten ere egin du lan. 2006.11.17



**Mikel Herzog**

MUSIKARIA

Hurrengo maiatzeko egingo duten Eurovision lehiaketarako Espainiako ordezkariak aukeratzeko aholkulari lanak egingo ditu. 2006.11.24

**YON BILBAO S.M.**

Urte berri on!


- ERA GUZTIETAKO INSTALAZIOAK • BERO AKUMULADOREAK • KOMERTZIO ETA ETXEETARAKO MEGAFONIA
- ATEZAIN ELEKTRONIKO ETA BIDEO-ATEZAINAK • SEGURITASUN SISTEMAK • ARGIKUNTZAN ESPEZIALISTAK

**ESPERIENTZIA LUZEA**

Tailerra eta erakustokia: A. Fleming 11. Tf eta faxa: 943 76 05 28 • Etxeko helbidea: Irizar 3. Telefonoa: 943 76 26 32


**HORKONPON**  
oinetako konponketa

Albertok gabon zoriontsuak  
opa dizkizute!



kreamilerak  
poltsen konponketa  
tindatzea  
krisketak

Bidekurutzeta 28  
**943 76 04 07**



# IRURAK MARGOAK

DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak  
Moketa eta sintasola  
Iztuku esponjatua

Paper pintatuak  
Harea zorrotada  
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara

Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984

Faxa: 943 76 09 32

Zorionak  
eta urte  
berri on!



## Montajes Eléctricos GURELAN S.L.

Mantenimientu eta instalazio industrialak:

- Makinariaren berriztatzea.
- Automaten programazioa.
- etab...

**Gabon jai zoriontsuak!**

Amillaga, 5 20570 Bergara  
Tlf: 943760700 Fax: 943765623

Gabon zoriontsuak  
eta urte berri on  
herritar guztioi!



**eusko  
alkartasuna**

[www.euskoalkartasuna.org](http://www.euskoalkartasuna.org)

Barrenkalea 18  
BERGARA  
Telefona eta faxa: 943 76 26 81



**Gazte Abertzaleak**

[www.gazteabertzaleak.org](http://www.gazteabertzaleak.org)

**ELUSU ERAIKUNTZAK**




- Era guztietako eraikuntzak
- Erreformatak
  - Teilatuak
  - Sukaldeak
  - Bainuak
  - Fatxadak

**Baserri eta jauretxeen  
erreformetan  
eta txaleten eraikuntzan  
espezializatuta gaude**



**Ondo ibili Gabonetan!**

Arruriaga 5  
943 76 45 50 Faxa: 943 76 51 45

**albiste izan zen**

> DEBAGOIENA  
**Mugak, lekuz aldatuta**

Eskoriatza eta Barrundiako udalak ados jarri eta mugarrak lekuz aldatu zituzten.  
2006.11.15

> EUSKAL HERRIA  
**'Herrikoei' enbargarik ez**

Fiskalak erabaki zuen herrikoak ez enbargatzea, Auzitegi Gorenak agindutakoaren aurka.  
2006.11.22

> MUNDUA  
**Errusiar espia ohia, hilda**

Alexander Litvinenko pozoituta hil zen, Putin salatu ondoren.  
2006.11.23



GOIENKARIA

**Udal zergak %4 igoko dituztela onartu zuten**

Datorren urteko zergen igoera orokorra %4 izango da, Gipuzkoako KPIa; zerga batzuk, ordea, gehiago igoko dituzte. Zaborra da gehien igoko dutena: %10. Defizita sortzen duten gaiak gehiago igoko dituzte, hala nola: azokako tasa, ekonomia jarduera, etxez etxeko zerbitzua eta kanposantuko zerbitzua %5 igoko dituzte. Bestalde, Agorrosingo 2007ko tasak ere onartu zituzten: 18 euro izango da hilean 18 urtetik gorakoendako eta ikastaroak orain arte baino merkeagoak izango dira. EAJ, EA eta PPK alde bozkatu zuten eta Aralar eta PSE abstenitu egin ziren.

> HERRITARRAK  
**70 urtetik gorakoen errealitatea aztertuko dute**

70 urtetik gora duten eta, gainera, bakarrik bizi diren herritarren errealitatea jaso gura dute. Horretarako, Gizarte Ongizateko teknikariak etxez etxe bisitatuko ditu herritar horiek, 455 inguru. Zer moduz bizi diren eta udal zerbitzuak ezagutzen dituzten galdetuko diete.

> LOKALAK  
**Zabalotegiko lau lokal itxia, legean dauden ikusteko**

Zabalotegiko dorrearen azpian dauden lau lokal itxi zituzten legeak jasotzen duen egoeran dauden edo ez ikusteko. Aztertuko dute ze konponketa edo obra egin behar diren lokala behar bezala egokitzeke. Gazteak, bitartean, lokal barik gelditu dira, udal lokal librerik ez dagoelako.



Zabalotegiko dorretxearen azpian dauden lokaletarako sarrera.

> EHNA  
**79 komertzio eta 40 eragile EHNAko gidan**

EHNAREN erabilpenerako Bergarako komertzio gida aurkeztu zuten azaro erdialdean. Herriko 79 komertzioen izenak jasotzen zituen gida horrek. Horrekin batera, EHNARI babes eman zioten 40 bat eragile politiko, sindikal, sozial eta giza talderen zerrenda ere jaso zuten.

> HAUTESKUNDEAK  
**German Muruamendiaraz, EAJko alkategaia**

German Muruamendiaraz aurkeztu zuen Bergarako EAJk hurrengo hauteskunde-tako alkategai. Kalitatea fundazioko zuzendaria da Muruamendiaraz eta lehenengo agintaldia du oraingo zinegotzi moduan Bergarako Udalean. Gallastegik erretiroa hartuko du.

> ETXEBIZITZAK  
**Alokairuzko etxebizitza gehiago egingo dituzte**


Udalak onartu zuen alokairuzko 68 etxebizitza egitea Tornilleria Deba dagoen tokian egingo dituzten etxebizitza berrietan. Dagoen eskaera betetzeko egingo dituzte etxebizitza horiek. Beste 207 etxebizitza libre eta 52 tasatu ere egingo dituzte San Lorentzoko gunean.



**Zorionak eta urte berri on!**

Ibargarai 11 • tf.: 943 76 28 92  
Barrenkale 19 • tf.: 943 76 70 03

**LILURAM**  
EDERTZE INSTITUTUA



2007 zoriontsua

*Ahal izango bagenu opari egingo genizuke ilargia;  
bitartean, gure jardunean maitasun guttia jarriko dugu.*

Bidekurutzeta 7 1a  
Tel.: 943-76 31 71

Laser depilazioa  
Gorputz tratamenduak  
Aurpegi tratamenduak  
Mikropigmentazioa





Sar ezazu bo

**sgarren  
martxa!**

**urte berri on!**

*Agorrosin  
Aldoka Maldoka  
Aralar  
Ariznoa  
Avenida  
Biko  
Depor  
Etxagi  
Eusebio II  
Hamaika  
Iraho  
Irish Pub Galway's  
Irrintzi  
Jam  
Kayak  
Kortazar  
Oilagorra  
Sirimiri  
Tartufo  
Tito's  
Usoa  
Zumbeltz*

# ABENDUA



**"Kristalezkoa izango da auditorioa, barruan soinu hobea egoteko"**

Gonzalez Txabarri > Aldun nagusia / 2006.12.07



**"Udalak tranbiari egindako aldaketak onartu ditu Jaurlaritzak"**

Victoriano Gallastegi > Alkatea / 2006.12.07

## hileko esaldia

**"Mizpirualde egoitza handituko dugu 26 ohe gehiago eta eguneko zentroa egiteko"**

Gregorio Iruretagoiena > Mizpirualde / 2006.12.01

## hileko datua

# 7,6

7.600 euroko kostua izango du Gabonetako argiak jartzea. Abenduaren 13tik urtarrilaren 7ra arte egongo dira piztuta argiak, biak barne, 18:00etatik 00:00etara eta 07:00etatik 08:00etara.



GOIENKARIA

## Kilometroetako irudia, mezua eta arropak

Aranzadi ikastolak urrian antolatuko duen Kilometroak festako irudia, mezua eta udazken-neguko arropak erakutsi zituen Jam aretoan egindako jaialdian. Mila lagun inguru joan ziren jaialdira; 135 bat lagunek eszenatokia zapaldu zuten. 35 bat ibili ziren jaialdi hori antolatzen. Udazken-neguko arropa erakusten, Aranzadiko ikasle eta gurasoez gain, herriko pertsona ezagunak ere ibili ziren modelo lanetan: Aitor Elkorro, Jesus Alberdi *Egileor*, Juan Luis Bikuña eta Pello Garitano tartean. Mezua Euskal Herri osoak entzun zuen: *argi daukagu*.



### Udalaren trazatuan joango da tranbia

Udalak aldaketak egin zizkion Jaurlaritzaren lehen proiektuari, eta onartu egin zituen. 2006.12.07



### Urteagan abiadura handiegian autoak

Urteaga kalean ibilgailuak abiadura handiegian pasatzen zirela kexatu ziren herritar batzuk. 2006.12.07

## izen propioak



**Ana Balentziaga**  
IGERILARIA

Euskadiko Txapelketan, 100 metrokoan estilo librean 6. postua egin zuen Ana Balentziaga igerilari gazteak. 2006.12.04



**Iñigo Arregi**  
BERBA

Normalizaziorako, etorkinekin lan egin behar dela zioen, eta euskara ikasten ari direnak txalotu nahi zituen. 2006.12.01



**Nora Palmitano**  
EUSKARA TEKNIKARIA

*Immigrazioa eta hizkuntza politika udalerrri euskaldunetan jardunaldiak gidatu zituen. Zestoan egiten du lan. 2006.12.01*



Gabon zorientsuak igaro

# OLABE

## OKINDEGIA-GOZOTEGIA



Amillaga 21  
Matxiategi 4  
Zurradero 2  
Simon Arrieta 6

Tel.: 943 76 72 28  
Tel.: 943 76 57 99  
Tel.: 943 76 01 26  
Tel.: 943 76 10 71

# Goienkaria

Egubakoitza / 2006ko abenduaren 29a / GOIENKARIAREN ARGITALPEN BEREZIA



# ANTZUOLA

URTEARI BEGIRATUA

# 2006



ARGAZKIAK: GOIENKARIA



*Antzuolako Udalak  
jai zoriontsuak eta urte  
berri on opa dizkizue  
herritar guztioi!*



Antzuolako udala  
[www.antzuola.com](http://www.antzuola.com)

ESPEZIALISTA BATEN BERMEAREKIN

**GOIZPER** KOOP. ELK.

MATABI IHINZTAGAILUAK

- NEKAZARITZAN, LORATEGIAN, INDUSTRIAN  
ETA ETXEAN TRATAMENDUA EGITEKO  
IHINZTAGAILU ETA HAUTSEZTAGAILUAK.

GOIZPER TRANSMISIOAK

- ENBRAGEAK, BALAZTAK
  - PNEUMATIKOAK
  - HIDRAULIKOAK
  - MEKANIKOAK
  - ELEKTROMAGNETIKOAK
- ESPEKADUN ETENKAKO BIRAGAILUAK
- ESPEKA BEREZIAK

ANTIGUA 4 - 20577 ANTZUOLA (Gipuzkoa)


211 POSTA KUTXATILA - 20570 BERGARA

TEL.: 943 786000

FAXA: 943 766008 - 943 787095

E-MAILA: goizper@goizper.com

Web gunea: www.goizper.com



**ERA GUZTIETAKO MARGOLANAK-FATXADEN GARBIKETA**  
**943 766407      616 277999      Antzuola**

# URTARRILA

# OTSAILA



**"Jarrerren bidez asko komunikatzen dute; gauza guztiak ez ditugu berbaz azaldu behar"**

Eider Arzelus > Sexu hezitzailea  
2006.01.27



**"Antzuolako elizan organo-jotzaile on bat geneukan"**

Oscar Candendo > Organo jotzailea / 2006.02.20



**"Antzuolako uhalek mugitzen zuten Gipuzkoako industria"**

Antxon Agirre Sorondo > Historialaria / 2006.02.06

INGURUMENA > EKINTZA PLANA

## Iraunkortasunerako ekintza plana onartu zuten

Tokiko Agenda 21 lantaldeak etorkizunerako helburuak lortzeko diseinatutako ekintza plana onartu zuten udalbatzarrek. Plana lau puntutan banatu zuten: herriko garapen soziala sustatzea eta herri bizitza berpiztea; hiritza orekatuaren aldeko apustua egitea iraunkortasun irizpi-

deak jarraituz; baliabide ekonomikoen kudeaketa iraunkorra egitea; eta ingurune naturala babestu eta baliabide naturalen kudeaketa iraunkorra egitea.

Udalsarea 21 Iraunkortasunerako Euskal Udalerrien Sarean sartzea ere onartu zuten. Helburua da ekintza planak bultzatzea.

HIZKUNTZA > TOPONIMIA

## 'Antzuolako Toponimia' lanak 1.700 leku-izen batu zituen

Antzuola Herria ikerketa bekarrekin Kristina Pavo filologo antzuolarrak egindako *Antzuolako Toponimia* lana aurkeztu zuten. Euskaltzaindiaren onomastika bilduman argitaratu zuten liburua. 755 orrialdeko liburuan 1.700 leku-izen jaso zituen.

Egilearen esanetan, "liburuaren helburua da ondare historikoa gordetzea eta aberastea, galtzar dauden leku-izenak gordeta; eta herritarrei herria hobeto ezagutzeko aukera ematea".

Horretarako, geroago, leku-izen ohikoekin esku orriak banatu zituzten.

> HEZKUNTZA

## Eskola kirolean 53 umek eta 14 gurasok jardun dute

Benjamin mailako 27 eta alebin mailako 26 neska-mutikok jardun dute eskola kirolean. Eskubaloia, saskibaloia, futbola... askotariko kirolean jardun dute eta Bergarako eta Elgetako eskoletako ikasleek aurka jokatu dituzte partidua. Entrenamenduz eta haurrak Bergarara eramateaz 14 guraso arduratu dira.

> KULTURA

## Iturbe Handia baserria monumentu izendatu zuten Eusko Jaurlaritzak

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartu zuten Lizarraga auzoko Iturbe Handia baserria. XIV. mendean eraikitako baserriari kultura ondasun eta monumentu izendapenak eman zizkieten. Beheko solairua harri-hormaz egina dago eta erdi-puntuko bi arku ditu. Lehen solairuan, berriz, armarri bitxia dauka.



Iturbe Handia baserriaren fatxada.

> SARIAK

## Herriko lau odol emaileri saria eman zuten lehendakariak

Herrian dauden 100 odol emailen artetik lau Ohorezko Odol Emaileri saria jaso zuten Gasteizen Juan Jose Ibarretxe lehendakariaren eskutik. Luis Mari Jauregiri 75 bider baino gehiagotan odola eman duelako eman zioten saria; eta Pilar Aranguren, Begoña Leteri eta Lourdes Arregiri, odola 60 alditan baino gehiagotan eman dutelako.

> KIROLA

## Jose Mari Alberdi izendatu zuten Arrola elkartearen presidente

Herritarren parte-hartzerik ezean desagertzeko zorian egon ostean, Arrola mendizale elkarteak urteko batzarra egin zuen. Bertan, Jose Mari Alberdi izendatu zuten presidente lanetarako eta batzordekide berriak ere aurkeztu zituzten. Iazko ekintzen gaineko balorazio positiboa egin ostean, urte honetan barrena hilean irteera bat egin dute.

> PRESOAK

## Karmen Irizar aske utzi zuten, bost urte kartzelan eman ostean

Bost urtez preso egon eta gero, otsailaren 26an aske laga zuten Karmen Irizar. 1998an atxilotu zuten lehen aldiz, eta hamar hilabete egin zituen kartzelan Carabanchelen eta Soto del Realen. 2000. urte amaieran epaitu eta 2001eko uztailean berriz kartzelaratu zuten. Azken urteak Valladoliden egin zituen eta bertan egin zioten lehen harrera.



ANTZUOLAKO ALDERDI JELTZALEAK

*Gure zorionik zintzoena Gabon hauetan,  
eta urte berri on antzuolar guztiei*

**BAKEA DA ORAIN GURE ERRONKA**

# ELAY Taldea

Zorionak eta urte berri on!

*Aixa*  
frutategia

Gabon zoriontsuak guztioi!

Bustinzuri 6 behea - 20577 Antzuola  
Tel.: 943 78 62 69

**Arin jatetxea**

*Plater konbinatuak - Ogitartekoak - Pintxoak*

Etxeko berezitasuna: buztana eta txuletak  
**Orain berriz ere karta zerbitzua!**

**Gabon zoriontsuak!**

Astelehenetan itxita

Kalebarren 7 - Tel.: 943 78 62 45 - Antzuola

# MARTXOA



**"Eguneroko bizimodua Antzuolan egitea oso arraroa litzateke"**

Jaizki Bakaikoa > Ile apaintzailea / 2006.03.17



**"Irlandan baino azkarrago helduko da bakea gurera"**

Fernando Lete > Lokarriko kidea / 2006.03.24

# APIRILA



**"Elizak, eraikinak, berrikuntza behar badu, baita gure kristau elkarteak berak ere"**

Kontxi Laskurain > Liburu dendako arduraduna / 2006.04.07

UDALA > AURREKONTUA

## Udalak 2.581.386 euroko aurrekontua onartu zuen

Martxoaren 10ean onartu zuen udalbatzarrak 2.581.386 euroko aurrekontua.

Aurrekontu horren zati txiki bat (48.550 euro) baino ez dute bideratu inbertsioetara. Horren arrazoia da Antzuolako Udal Etxegintzara bideratu dituztela 2.003.897 euro. Horie-

tatik 1.930.730 euro inbertsioetarako izan dira.

**PLANTOA**

Gertu Gae plataformak, berriz, "planto" egin zion aurrekontuari, "gai garrantzitsuetarako Antzuolako Udal Etxegintza txiringitza muntatu dutelako".



Inbertsioetarako zati txikia bideratu du aurten Udalak.

> GAZTETXEA

## Gaztetxea berriz zabaldu zuten behin-behineko lokalean

Itxita egon eta berriz zabalteko modua aztertu ostean, lokala margotu eta txukunduta, martxoaren 3an ireki zituzten gaztetxeko ateak. Kalebarrenean dago behin-behineko lokala, eta, hasieran, herriko bi koadrila arduratu ziren funtzionamenduaz; ondoren, beste gazte batzuen esku laga zuten.

> ERREPIDEAK

## Mendebaldeko sarrera hobetzeko proiektua azaldu zuten

Josu Arrizabalaga Foru Aldundiko Errepideetako zuzendariak eman zuen mendebaldeko sarrera hobetzeko proiektua. Bergararik herri barrura sartu nahi duten gidarien arazoa saihestea da lanen helburua. Etorkizunean Uzarragako zubia izango da herrirako sarrera Bergararik datozenendako.

HIRIGINTZA > ERREKAKO LANAK

## Errota-Berriko presaren maila jaitsi egin zuten

Gipuzkoako Foru Aldundiko aditu talde batek errekatik amurrainak kendu ostean, Errota-Berriko presa bota egin zuten erreka obrak direla-eta.

Presaren maila jaitsi, eta, hala, erreka ur emaria eta segurtasuna handitu egin zituzten. Izan ere, orain erreka sako-

nera handiagoa du zenbait lekutan; orain artekoa baino bi metro gehiago puntu batzuetan.

**UDAN PLAZAN**

Ondoren, Ondarra plazatik Kalebarrenera bitarteko hondeaketa lanak egin zituzten eta udan hasi ziren plazako obrekin.

> INGURUMENA

## Palmondoa eta hagina landatu zituzten Sagasti auzoko berdegunean

Sagastiko etxeen arteko berdegunean egokitzapenak egin zituzten. Hasierako asmoa zen 12 zuhaitz landatzea, baina horietaz gain bi arbola ere sartu zituzten: Palmondoa Kalebarrenean, Martin okindegiaren alboko zubian zegoen, eta erreka lanengatik kendu eta Sagastin birlandatu zuten. Hagina Ugarte Torre base-rritik kendutakoa da.



Sagastiko palmondoa.

SUKALDEKO HALTZARIAK  
**Harizki**

*Gabon zoriontsuak guztioi!*

- Sukalderako eta bainurako altzariak
- Altzari rustikoetan espazializatuak

Zurrategi plaza 4 behea - Tel.: 943 78 71 80/Faxa: 943 78 60 24

**TXOMIN GARAJEA**

ZORIONAK  
GUZTIOI!

Mekanika orokorra




Tailer profesionala

IAT/ITVrako prestaketa

# MAIATZA

# EKAINA



**"Goiko sarreran biribilgunea egiteko ez dago lekurik; egokiagoa litzateke Sagastiko irteeraren parean egitea"**

Jose Angel Zabalo > Alkatea  
2006.05.26



**"Antzuolara bueltan pozik etorriko naiz, nire txokoa delako"**

Eneida Iturbe > Ikaslea  
2006.06.02



**"Ez dute alde handirik, baina Irujo Aimar baino gehiago da"**

Felix Agirre > Olalde pilota elkarte / 2006.06.05

**EUSKARA** > KALE ERABILERA NEURKETAREN EMAITZAK

## Antzuolarren %67k hitz egiten dute euskaraz kalean

Soziolinguistika Klusterrak egin dako euskararen kale erabilera neurketaren emaitzak jakinarazi zituzten maiatzean.

2001eko erroldaren arabera %76,8 da antzuolarren euskara ezagutza; orain egindako neurketak, berriz, kale erabilera %67 izan zela dio.

Adin tarteei dagokienez, gazteak izan ziren gehien erabili zutenak, baina kontuan hartuta gazte gutxi neurtu zituztela. Bestalde, umeen erabilerak behera egin du eta maila txikian izan arren kezkatzekoa dela esan zuten udal ordezkariak. Hala ere, oro har emaitzak poztekoak izan dira.

**HIRIGINTZA** > ZUBI BERRIA

## Oinezkoendako zubia ipini zuten Beheko Auzoan

Ekainaren amaieran ipini zuten dagokion tokian Beheko Auzoa Uzarragako bide berriarekin lotuko duen zubia. Zubi berriarekin, guztira 12 zubi daude orain herrian.

Aurrefabrikatutako zubia ipintzeko egun bakarra nahikoa izan zuten.

**BEHEKO AUZOKOEN ONERAKO**

Egurrezko zubiak 2,50 metro ditu zabaleran eta 1,40 altueran.

Zubia ipintzeak erraztasunak eman dizkie Beheko Auzoko bizilagunei. Auzoan autoak aparkatzeko arazoak zituzten, eta orain erreka beste aldeko aparkalekuan laga ditzakete.



Aurrefabrikatutako zubiarekin 12 zubi daude herrian guztira.

> LIBURUAK

## Ondarearen gaineko hiru lan aurkeztu zituzten

Antzuolako Liburutegia bildumaren barruan, *Lurretik mahaira*, Antzuolako tren eta *Maristak Antzuolan* liburuak kaleratu zituen Udalak. Iñigo Ramirez de Okariz da lanon egilea eta lehenengoan Jose Mari Iturbe izan zuen lankide. Liburuetan, herrian eragin nabarmena izan duten hiru gai landu dituzte.

> ARGITERIA

## Energia aurrezteko sistema berezia ipini zuten faroletan

Farolen argi potentzia txikitzeko sistema ezarria bazuten ere, herrian dauden 400 faroletan energia aurrezteko sistema berezia ipini zuen abian Udalak. Gauerditik aurrera hiru faroletik bat itzali egiten dute gastua murrizteko. Berrikuntzaren truke dirulaguntzak jaso zituzten Energiaren Euskal Erakundetik.

> UNIBERTSITATEA

## Nekane Arratibel izendatu zuten HUHEZI fakultateko dekanu

Antzuolan bizi den Nekane Arratibel lazkaotarra izendatu zuen Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko Errektore Kontseiluak dekanu postuan Jose Antonio Mendikute ordezkatzeko. Psikologia ikasi zuen EHU eta bertan egin zuen euskalduntzearen gaineko tesia. 2000ko urrian hasi zen irakasle HUHEZIn.

> DIRULAGUNTZAK

## Foru Aldundiak 430.000 euro eman zituen gizarte etxerako

Udalak lankidetzaz hitzarmena sinatu zuen Foru Aldundiarekin. Horren bidez gizarte etxerako ia 430.000 euroko dirulaguntza eman zuen Foru Aldundiak. Bestalde, gizarte etxean egingo dituzten babestutako etxebizitzaren erabiltzaileen plazak finantzatzeko konpromisoa ere hartu zuen. Gizarte etxearen proiektu osoak bi milioi euroko kostua du.

Ondo pasau Gabonak!



## Gabilondo-Arregi

h a r a t e g i a

ABELGORRI-OKELAREN EUSKO LABELA

Kalebarren 14 ANTZUOLA Tf. 943 76 62 90

# ANTZUOLA

APAINKETAK  
eta  
ISOLAMENDUAK

PLADURREZKO  
DIBISIOAK

Kalegoi 21 ANTZUOLA  
Biltegia: 943 78 70 40  
Mobila 676 997 400

ONDO PASAU GABONETAN!



# UZTAILA



**"BBCko dokumentalen maila ez izan arren saio txukuna egiten dugu"**


Beñardo Kortabarría > Elhuyar  
2006.07.07



**"Zaintza zerbitzuak aurrera egiteko laguntza behar dugu"**

Bakarne Gastañares > Guraso  
Elkarteko kidea / 2006.07.07

# ABUZZTUA



**"Tanzaniarren bizimodua bertatik bertara ezagutu dugu; ongi etorri zaigu hemen daukaguna baloratzeko"**

Patxi Azkarate > Elkartasun taldeko kidea  
2006.09.01

ERREPIDEAK > MENDEBALDEKO SARRERA

## Uzarraga eta Lizarraga lotzeko bidea inauguratuta

Idoia Zenarruzabeitia lehendakariordeak inauguratu zuen Uzarraga eta Lizarraga auzoak lotzen dituen bidea. Errepideko lanak amaitutakoan herri-rako bidea mendebaldeko sarrera izango da, eta bidegurutze arriskutsua saihestea da helburua. Elayra doazen kamioiak

bertatik sartuko dira eta zirkulazioa herri erditik joan gabe, bide berritik joango da.

### IZARTU PROGRAMA

Izarturen dirulaguntzarekin finantzatu da proiektua. Alde zaharra berritzeko eta Sagastirako era jaso da laguntza.

> PILOTA

## Andoni Azkarate eta Aitor Mendizabal, Debarroko txapeldun

Aretxabaletako Iturrigorri frontoian jokatu ziren Debarroko pilota txapelketako finalak. Gazte mailako finalean jardun zuten Azkaratek eta Mendizabalek eta elgoibartarren aurka 22-16 irabazi zuten partidua. Aitor Mendizabalek, gainera, gazte mailako finaleko jokalaririk onenaren saria eskuratu zuen.

ERREKA > PLAZAKO LANAK

## Erreka bideratzeko lanetarako plaza zulatzen hasi ziren

Abuztuaren 7an hasi ziren herriko plaza zulatzen, erreka bideratzeko lanak direla-eta. Obrak, ondo bidean, datorren urteko apirillean amaitzea aurreikusituta Udalean.

Bien bitartean, plazako apartekaleku guztiak kendu egin dituzte eta lanek aurrera egin ahala autoak ere ezin dira plazatik pasa.

### BI ARKU

Lurra zulatu zutenean bi arku bideratzen zituzten, eta, arkitektonikoki zein balio zuten aztertu bitartean, lanak eteteko eskatu zuen Gertu Gaek. Udaletik esan ziguten ez zutela aparteko baliorik, ordu arte plazaren azpian erreka pasatzeko zegoen gangaren zati zirela eta bota egingo zituztela.

> EUSKARA

## Euskaltzaindirako sarrera hitzaldia egin zuen Ana Toledok

Ana Toledok, Juan San Martinen lekua betetz, hemeretzigarren euskaltzain domina jaso zuen. Antzuolako udaletxeko ekitaldian euskal idazkuntzari eta literaturari buruzko hitzaldia egin zuen Toledok. Akademiako Iker eta Jagon sailetan hartuko du parte, aurrerantzean, bere burua Debarroko euskararen ordezkaritzat duen filologoak.



Andres Urrutiaren eskutik jaso zituen domina eta diploma.




Abuztuaren 7an hasi ziren plaza zulatze lanak; eta bi arku agertu ziren.

# Ana Etxeberria


Errekalde 6 behea ANTZUOLA - Tel: 943 76 60 13

- Masajeak
- Osteopatia
- Akupuntura

*Jai zoriontsuak guztioi!*



**Kalebarren**  
janari-denda



**Goretti eta Amaiak**  
Gabon zoriontsuak  
opa dizkizute  
herritar guztioi!

Kalebarren 11 ANTZUOLA Tel.: 649 662 791 / 675 701 347

**Itzar**

LIBURU DENDA  
ESTANKOA

**Zorionak guztioi!**

Kalebarren 1  
ANTZUOLA  
Tf. 943 76 60 62



Langela: Kalebarren 4  
Saltokia: Herriko plaza  
943 76 64 35  
ANTZUOLA

**Urte berri on**  
antzuolar  
guztioi!

# IRAILA



**"Behin baino gehiagotan nirekin lehiatu zirenak telebistan ikusita, atletismoa utzi izana oroitzen dut"**

Gorette Fernandez > Begiralea eta atleta ohia  
2006.09.08

# URRIA



**"Gaztetxea bota zutenetik kultura musikala galdu da"**

Jon Gurutz Biteri > Musikaria  
2006.10.20



**"Senegalen hezkuntzan eta osasunean dituzte gabezia handienak"**

Kristina Bakaikoa >  
Anelkarreko kidea / 2006.10.27

SENIDETASUN EGUNA > AIHERRAN EGIN ZUTEN

## Antzuolako 85 lagun izan ziren Aiherran ospakizunetan

Badira 20 urte baino gehiago Antzuola eta Nafarroa Behereko Aiherra herriak senidetu zirela. Senidetasun hori sendotzeko hainbat ospakizun egiten dituzte, eta aurten Aiherrari egokitu zaio irailaren 17rako ekitaldiak antolatzea, eta Antzuolatik 85 lagun joan ziren ospakizunetara.

EKITALDI UGARI

Antzuolako pilotariak Aiherrakoen aurka jokatu zuten partidua eta bestelako lehiarik ere izan zen: bi herrietako alkateak trontzan ikusteko aukera izan zuten Aiherrara joandakoek. Antzuolako dantzariak eta txistulariak ere eskaini zuten ikuskizuna.

HIRIGINTZA > SAGASTI

## Gizarte eta kultura etxea egiteko lanekin hasi ziren

Egaralur enpresa Sagastiko zelaian gizarte eta kultura etxea egiteko lanekin hasi zen. 1.635.929 euroko aurrekontua dute lanek eta urtebeteko epea jarri zuten amaitzeko. Eraikinean liburutegia, erabilera anitzeko aretoa eta erretiratuendako zerbitzuak egongo dira

PARKEAREN ALDE

Sagastiko berdegunean egingo duten eraikinak sortu du nahasterik herrian. Izan ere, plataforma bat sortu da Sagastin inongo eraikinik egin gabe parkea egokitzeko eskatuz. Udalak esan du gizarte etxea egin arren parkerako lekua ere badagoela.



Sagastiko berdegunean egingo duten eraikina.

> EUSKARA

## Elayn Euskara Plana abiarazi zutela 15 urte bete ziren

Elhuyar Aholkularitzak enpresetako lehen Euskara Plana abian jarri zeneko 15. urteurrena ospatu zuten Donostiako Miramon parke teknologikoan. Euskara Plan hori Elay lantegian ipini zuten martxan eta gaur egun 150 enpresatara zabaldu da. Kalitateari lotutako ezaugarria da egun Euskara Plana.

> GARRAIOA

## Aparkalekuak kendu zituzten autobusak pasa ahal izateko

Irailean ipini zuten abian autobus zerbitzu berria, eta, horrekin batera, bi geltoki kendu eta bakarra ipini zuten, Olanan ostekoak.

Autobus zerbitzu berria zela eta hainbat arazo izan ziren. Bizilagunak kezu ziren autobusek auto bat baino gehiago markatu zutelako. Arazo horiek saihesteko eskola aldameneko aparkaleku batzuk kendu egin zituzten.

> ETXEBIZITZAK

## Eguzki auzoko etxebizitza tasatuetako zerrendak atera zituzten

Eguzki auzoan, Maristen eraikina zegoen tokian, eraikiko dituzte Udalak bultzatutako etxebizitza tasatuak. 20 etxebizitza izango dira guztira, eta 57 lagunek eman zuten izena. Irailean kaleratu zuten zerrenda eta lanak berehala hasi ziren. Etxebizitza txikiak 54 metro koadro izango ditu eta handienak 88. Batez besteko prezioa 180.000 euro da.

## HARATEGIAK



Kalebarren, 1. Antzuola.  
943 76 64 84

*Gabon zoriontsuak eta urte berri on opa dizkizuegu herritar guztioi!*



Komenio kalea, 2. Bergara.  
943 76 10 72



INDUSTRI MANTENIMENDUA


Jose Gomez  
Abad

Errekalde 6, 4-B. Antzuola  
Tel.: 943 76 60 19 / 943 76 60 43  
Faxa: 943 76 60 19

GABON ZORIONTSUAK  
HERRITAR GUZTIOI!

OKINDEGIA  
GOXOTEGIA  
DAZTAKETA  
KROISSANTEGIA

ONDO PASAU  
GABONETAN!



ALTZARTE


Kalebarren 18. 943 76 62 94

# AZAROA



**"Baserriak marraztu beharrean autobideak egiten nituen eskolan"**

Andoitz Peñagarikano >  
Ikaslea / 2006.11.17



**"Ekoizleok gero eta lur gutxiago ditugu nekazaritzarako"**

Tomas Larrañaga >  
Nekazaria / 2006.11.21

# ABENDUA



**"Aitajaun-amandreek eta udalekuetan kontaktutako ipuinak entzutea asko gustatzen zitzaidan"**

Belen Azkarate > Klown-a  
2006.12.01


OSPAKIZUNAK > ALARDEA

## Mairuaren alardea ikertuko du Eusko Ikaskuntzak

Azaroaren amaieran aurkeztu zuten Mairuaren Alardea ikerterako proiektua. Mairuaren Alardearen Elkartek eskatuta egingo du Eusko Ikaskuntzak lan hori. Alardearen lehena, oraina eta geroa aztertzeko ikerketa sozio-kulturala egingo dute.

**HERRITARREN IRITZIA**

Helburua da alardearen jatorria eta historia ezagutzea; eta herritarrek alardearen gainean duten iritzia ere jasoko dute. Horretarako inkestak egingo dituzte antzuolarren artean. Datorren urtean alardeak izango dira jardunaldi batzuetan.



Mairuaren Alardea jaietan egiten da, uztailean.

> ZAINZA ZERBITZUA

## Eskolatik kanpo zortzi ume zaintzen dituzte ikastetxean

Pausoka Guraso Elkarateak abian jarritako zaintza zerbitzuan zortzi ume daude. Eskola orduetatik kanpo umeen kargu egin ezin diren gurasoendako da zerbitzua. Marisol Altuberen zaintzapean jolas-teko, gosaltzeko, merienda jateko zein lo egiteko aukera dute umeek ikastetxean bertan egokitutako gela batean.

> ENPRESA

## Talleres Antzuolako langileek protestak egin zituzten

Kale agerraldia egin zuten Talleres Antzuolako langileek deituta Lurdes Badiola langilearen kaleratzea salatzen eta berari elkartasuna adierazteko. Aurrez, uztailean, Rosarito Iartza ere kaleratu zuten enpresa beretik. Bi langileon lankideek salatu zuten, "oso modu txarrean", kaleratu zituztela langileok.


ETXEBIZITZAK > SALLABENTE

## Iruetxeta-Sallabente izango da Uzarragako kale berria

Sallabente baserria eraitsi egin zuten eta bertan familia bakarreko zortzi etxebizitza eraikitzeke lanekin hasi ziren abenduan. 2007an amaituko dituzte eraikitze lanak eta 2008rako jabeak hara bizitzera joateko moduan egongo dira estilo modernoko etxeak.

**KALE BERRIA**

Inguru horretan aurrez Iruetxeta baserria bota eta bi eraikin egin zituzten lau etxebizitzarekin. Orain eraikitzen hasi diren etxebizitzekin kale berria sortuko da. Eraitsitako bi baserrien izenak aintzakotzat hartuz Iruetxeta-Sallabente izango du izena.



Abenduaren hasieran ekin zieten familia bakarreko etxebizitzak egiteko lanei.



Ondo ibili gabonetan!

- Gasa
- Berogailuak
- Haire egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurrezteak
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentak bideratzen ditugu

Tailerra: Uzarraga bidea, 10. Antzuola. Tel.: / Faxe: 943 78 71 78  
Erakusketa: Kalebarren, 1. Antzuola. , Tel.: / Faxe: 943 76 64 73



## IBARRE

NEKAZAL TURISMOA

- 8 logela
- Saloia eta egongela
- TB, interneta eta bainua logeletan
- Aparkaleku propioa
- Gosari bereziak
- Enpresa bilerak egiteko saloia
- Sukaldea erabiltzeko aukera



Gugan izandako konfiantzagatik mila esker guztioi. Zorionak eta urte berri on!

Irimoegi goiko auzoa ANTZUOLA Tel.: 943 76 63 10 e-posta: info@ibarre.com



# MATZ-ERREKA

Berotan estanpaturiko  
torlojugintza berezia

Plastiko eraldakuntza  
injekzio bidez

Ate eta pertsianak  
zabaltzeko automatismoak

Oinezkoentzako  
ate automatikoak



Ibarreta z/g • 20577 ANTZUOLA

Tel.: + 34 943 78 60 09

Faxa: + 34 943 78 70 34

<http://www.matz-erreka.com>




sukaldeak  
bainuak  
zeramika  
horma armairuak

ITXASOI SUKALDEAK S.L.

sukaldeak  
bainuak  
zeramika  
horma armairuak



Proiektuak  
Erreformak  
Gremioen  
koordinazioa



Amillaga 10 BERGARA

Tel.: 943 77 70 68 Faxa: 943 77 70 69

[itxaso@itxaso.com](mailto:itxaso@itxaso.com)




# ONENA eta TXARRRENA



**SALBADOR OLABARRIA**  
Txistulari Taldekoa  
Antzuola

**↑ TXISTULARI TALDEA**  
Urte oso ona izan da hau ere musikazaleontzat Antzuolan. Urtarrileko txistularien kontzertua, adibidez, Bergarako banda-ko metal-boskotearekin jotakoa, Santa Zezilia egunekoa...



**JOSE LUIS KORTABARRIA**  
Alardearen Elkartea  
Antzuola

**↑ ALARDEAREN IKERKETA**  
Alardearen inguruko ikerketa sozio-kulturala abiatzea garrantzitsua izan da. Herrian jakin-mina piztu du eta iruditzen zait emaitza politak emango dituela.

**↓ BAKETZEAREN MARTXA**  
Albiste moduan ETaren su-etena izan da urteko albisterik esperantzagarriena. Hala ere, azkenaldian prozesuak hartu duen martxa, ematen duenez, albiste txarra da, inondik inora.

**↓ NAZIOARTEKO EGOERA**  
Albiste txarrenak nazioarte mailako gatazketatik datoz, urtero moduan. Ematen du aurturte ere gauzek ez dutela konponbiderik eta gauzak ez dira hobetzen.

Amaitzean den urtearen nondik norako berri galdetu diegu Antzuola, Bergara eta Elgetan hainbat alorretan lanean dabilzaneei. Bake prozesua eta

nazioarteko egoera aipatzen dute gehienek, baina herri mailako hainbat gertaera ere sartu dituzte urteko onenaren eta txarrenaren zerrendan.



**KONTXI LASKURAIN**  
Anelkar  
Antzuola

**↑ AFRIKAREKIN ELKARTASUNA**  
Erresuma Batuak Afrikari laguntza emateko hartutako konpromisoa aipatuko nuke. Garrantzitsua izan da eta eredu-garria, baina orain, zer gertatzen den ikusi beharko da.

**↓ SAGASTI PARKEA**  
Sagasti parkea galtzea izan da Antzuolan urteko albisterik txarra. Herrian bertan geneukan zelai bakarra zen eta hori galdu beharra penagarria izan dela iruditzen zait.



**PANTXIKE ARIN**  
Ikastetxe zuzendaria  
Antzuola

**↑ ETA-REN SU-ETENA**  
Aurturte albiste bat aipatzekotan ETaren su-etena iragarpenarena aipatu beharko genuke, horrek piztu du eta itxaropena gizaratean. Denok azpimarratzen duguna dela uste dut.

**↓ BERDEGUNEAREN GALERA**  
Antzuolan gertakizun penagarriarik egon bada aurturte, Sagasti parkearen galera izan da. Herrian geneukan berdegune bakar hura barik geratzea galera handia izan da.



**JUANLU ARANBURU**  
Kultura teknikaria  
Antzuola

**↑ ANTZUOLA, HERRI BIZIA**  
Udalan lanean, Antzuola herri bizia dela atzeman dut. Herriarrek ekimen ugari egiten dituzte eta jende asko ezagutu ahal izan dut, eta haiek zelako herri bizia egiten duten ikusi.

**↓ NAHIAK ASETZEKE**  
Euskaldun gisa aurturte ere bake eta askatasun nahiak asegabe ikusi ditut eta herrian ere egoera hori islatzen da: aldarrikapenak, Udalaren egoera, ilegalizazioak...



**JUANJO ALVAREZ**  
UNED-Bergarako zuzendaria  
Bergara

**↑ ONDARE-LAGAPENA**  
Urte magikoa izan da UNED-Bergararentzat, hainbat urteren ostean eraikinaren ondare-lagatzea lortu da eta, 30. urterenean. Bake prozesuak, bestalde, esperantzak ireki ditu.

**↓ INDARTSUEAREN LEGEA**  
Nazioarte mailan helburu militarrek arrazoimenari gailentzen zaizkiela ikusi da: Irak, Palestina, Afganistan, Libano... Indartsuenaren legea egon da indarrean aurturte ere.




**EDURNE AZUARA**  
Aktorea  
Bergara

**↑ BAKE-PROZESUA**  
Zalantzarik ez aurturte berria bake-prozesuak irekitako itxaropenerako bidea dela. Urteko gertakari nagusia izan dela iruditzen zait albiste guztien gainetik.

**↓ ERLIJOAREN IZENEAN**  
Beldur apur bat ematen dute erlijioaren eta fedearen izenean hartzen dabilzan erabakiak. Ematen du haien izenean guztiak balio duela, eta aurturte ere hori gertatu da.



## TORREKUA



ERRETEGIA

Ibargarai 37  
BERGARA

Tel. 943 76 50 99

## Zorionak!

- Batik bat arraina
- Karta
- Eguneko menuak
- Goizeko 7:00etatik zabalik

# BERGARA Kafea

**Gabon zoriontsuak!**



**Kafetegia**

**ASTELEHENETIK OSTIRALERA, GOIZEKO 6:00etatik ZABALIK  
ASTEBURUETAN 7:00etatik ZABALIK**

**Bidekurutzeta 34, BERGARA 943 76 47 23**



- Gosariak
- Bokatak
- Egunkariak

- Bertako opilak
- Kafetegia
- Terraça

**EGUNERO GOIZEKO 06:30ETATIK ZABALIK**

**URTE BERRI ON!**

Ibargarai 44-46  
BERGARA  
943 76 45 53

**Obradorea:**  
Zubillaga 10  
OÑATI  
943 78 24 13



**OGIZUN**  
koop. elk.  
okindegia



**UDAL  
EUSKALTEGIA**

**Euskararentzat  
bidea ez da  
erraza eta leuna;  
hala eta guztiz  
argituko da noizbait  
bere etorkizuna.  
Hizkuntza dugu  
Herriak duen  
benetako ondasuna;  
Urte Berriak  
dakarkiola geureari  
osasuna**

**BERGARAKO  
UDAL EUSKALTEGIA**

Zabalotegi 13 • BERGARA  
Tel.: 943 76 44 53  
berg.eusk@udal.gipuzkoa.net  
berg.euskudal@euskalnet.net

**ezkerrera berri**

bakeak etxean behar dituelako, presoak etxera!  
elkarlanaren bidetik, Euskal Herriak erabaki!

**aralar**



**IÑIGO ALBERDI**

Euskadiko Orkestra Sinfonikoa  
Bergara

**↑ BAKE PROZESUA**  
Aurten albiste batek gizarteari itzaropena eta animuak eman badizkio, hori ETaren su-etena eta abiarazitako bake prozesua izan da. Urteko aipagarriena, zalantzarik gabe.

**↓ NAZIOARTEKO EGOERA**  
Irakeko sarraskia, nazioarteko gatazkak, Libanoko egoera... Mundu mailan albiste txarrak dira nagusi eta aurten ere egoerak berdin jarraituko duela egiaztatzen da.



**MIGEL ANGEL LARRAÑAGA**

Lokatza taldeko kidea  
Bergara

**↑ PROIEKTUAK**  
Herriarentzat oso positiboa izan da Agorrosinen ireki duten gunea. Bestalde, bideratuta dagoen auditorioaren proiektua ere albiste on bezala azpimarratuko nuke.

**↓ KONTRAKO JARRERAK**  
Herria hazi egin da eta irtenbideak bilatu behar dira. Alde txarra hori ikusten dut: irtenbideak bilatu nahian udaletxeak egiten dituen proposamen ezberdinei jartzen zaizkien trabak.



**MIGEL LAZPIUR**

Confebask  
Bergara

**↑ AZPIEGITURAK**  
Herrian eta eskualdean egiten ari diren proiektuak ontzat ikusten ditut. Igerilekua ireki dute, Deba ibaia garbitzen ari dira, tranbiaren proiektua... lan ona ari dira egiten.

**↓ ERAGOZPENAK**  
Bestalde, proiektu guzti horiek aurrera eramateko herri-tarrek jasaten dituzten trabak ikusten ditut. Euskal Herrian, bake prozesuak bizi duen egoera larria azpimarratuko nuke.



**JOKIN ETXANIZ**

Aspeko prestatzailea  
Bergara

**↑ ASPEREN URTE BOROBILA**  
Herri mailan, albiste ona izan da igerilekuak berriro ere irekita izatea. Bestalde, nire lanari begira, Aspe pilota enpresak egin duen urte borobila azpimarratuko nuke.

**↓ BAKE PROZESUA GELDI**  
Bake prozesuak bizi duen egoera ez da batere ona. Badirudi elkarrizketa bidea geldidagoela. Gainera, euskal presoaren egoera ez da hobetu; berdin jarraitzen du denak.



**BIBI ANDUEZA**

Bedelkar  
Bergara

**↑ SU-ETENA**  
Aurtengo urteak eman duen albiste pozgarriena ETaren su-etena izan da. Bestalde, Egunkaria kasuan fiskalak hartu berri duen erabakia ere oso itzaropen-tsua dela uste dut.

**↓ GOBERNUAREN JARRERA**  
ETaren su etenaren ondoren ireki den bake prozesuan Espainiako gobernuak izan duen jarrera txarra izan dela uste dut. Euskaldunon esperantza zapuzten ari da gobernu hau.




**JUAN KRUZ MENDIZABAL**

Apaiza  
Bergara

**↑ BAKE PROZESUA**  
Nire ustez, urte honetako albiste onena ETaren su-etena izan da. Su-etenen ondoren prozesuak izan duen garapena ona izan da eta prozesua bide onetik doala uste dut.

**↓ ZAILTASUNAK**  
Txarrena, prozesuak berak izan dituen zailtasunak izan dira. Bake prozesua ezin daiteke doakoa izan; jendeak gizartearen aldeko zerbitzua egingo duen jarrera positiboa izan behar du.



**GORKA ARIZMENDIARRRIETA**

Espaloia  
Elgeta

**↑ EKINTZA KULTURALAK**  
Espaloian egin diren ekintzen balorazioa oso positiboa da. Kontzertu bikainak eta antzerki ikuskizun oso onak gin dira. Magia asteak izan zuen arrakasta ere izugarria izan zen.

**↓ BIZIGARRITASUN BAIMENA**  
Udalak Torrealdea etxetan izan duen jarrera oso txarra izan da. Ez dut ulertzen urbanizatu gabe dagoen auzune batean nola eman dezaketen bizigarritasun baimena.



**ENARA MERINO**

Ludoteka  
Elgeta

**↑ ETXEBIZITZA SOZIALAK**  
Aurten Elgetan gertatu den onena etxebizitza sozialen eta tasatuen zozketa izan da. Jende gazte askori egokitu zaigu etxea eta hori, herri mailan, oso positiboa dela uste dut.

**↓ ZERBITZU FALTA**  
Txarrena zer izan den azaltzea zaila da, baina zerbait aipatzekotan, zerbitzu falta esango nuke. Azkeneko urtean, herrian, ez dago arrandegirik eta orain, harategi gabe geratu behar gara.



**JONE MUXIKA**

Kirolaria  
Elgeta

**↑ ELKARRIZKETA**  
Euskal Herrian, bake prozesua azpimarratuko nuke. Ematen du elkarrizketa hasi egin dela eta, bide onetik jarraitzen bada, albiste pozgarria izan daiteke denontzat.

**↓ ISTRIPUAK**  
Aurtengo urtean izan diren istripuak dira urteko albiste txarrena. Bai auto istripuak, bai laneko istripuak edo bizikletan izandako istripuak oso larriak izan dira.



**OSKAR CARRASCAL**

Kirol teknikaria  
Elgeta

**↑ BIDEGORRIA**  
Badirudi poliki-poliki bidegorri sarea antolatzen ari dela. Hori albiste pozgarria da; Debagoienean ere bidegorri sare duin baten beharra daukagu eta badirudi izango dugula.

**↓ INGURUMENA**  
Bizi kalitatea hobetzeko aitzakiarekin, ingurumena suntsitzen ari gara. Alde horretatik gehiago begiratu beharko genioke gure inguruari eta kontu gehiago izan.



# HORTZ KLINIKA

Silvana Caviglia doktorea  
Simon Arrieta plaza 3, 2. Tel.943 76 38 54 BERGARA

## PADI

### ASEGURUAK



- Sermesa
- Pakea
- Grupo Eroski

- Ibersalud Globalcard
- Aegon
- Asepeyo

- Mapfre
- Fremap
- Ocaso

- Azkaran
- Previsora

Gabon zoriontsuak denoi!






# AGIRRE

## HORTZ KLINIKA

Nagore eta Alaitz Agirre odontologoak,  
Gotzone Arkarazo eta Silvia Romero laguntzaileak



- Odontologia orokorra
- Periodontzia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia
- Protesiak
- Implanteak
- Estetika
- Hortzen zuritzea

Ibargarai 9, 1-B. BERGARA  
Tel.: 943 76 00 23  
09:00-13:00 eta 17:00-21:00



RPS: 139/01



# BILTOKI

ASPIZA S.L. BERGARA



**dekorazioa**

SAN MARTIN PLAZA Tf.: 943 76 43 51



**sukalde eta bainuak**

SAN PEDRO PLAZA Z/G Tf.: 943 76 34 00

**Zorionak eta urte berri on!**

**1955. urtean sortua  
50 urte herriaren zerbitzura**

# Goienkaria


Egubakoitza / 2006ko abenduaren 29a / GOIENKARIAREN ARGITALPEN BEREZIA



# ELGETA

URTEARI BEGIRATUA

# 2006



ARGAZKIAK: GOIENKARIA

# SISTECO


MAKINA-ERREMINTAK

Makina-erreminten salmenta,  
laguntza teknikoko zerbitzua (SAT)  
eta berreraikuntza

Urte berri on guztioi!

E-posta: [empresa@sisteco.net](mailto:empresa@sisteco.net) • Pagatza parke industrial 7A saila, ELGETA • Tel.: 943 76 82 14 • Faxe: 943 76 81 00 • [www.sisteco.net](http://www.sisteco.net)

**URTE BERRI ON ELGETAR GUZTIOI!**



**MAKINA-ERREMINTA SL** Elorrio bidea z/g, Elgeta.



**ELGETAKO UDALAK  
HERRITARROI  
GABON ZORIONTSUAK  
OPA DIZKIZUE!**



# URTARRILA OTSAILA



**"Haurreskolak hamar umerendako tokia du; datorren ikasturtean ume gehiago balitz, denak onartuko lirateke"**

Izaskun Larrea > Udaleko Hezkuntza batzorde-burua  
2006.01.23



**"Gaztetxoek neguan aisirako gunea izatea da lokalaren asmoa"**

Igor Letona > Gazte lekuko begiralea / 2006.02.17



**"Argi daukat alkate baten misioa gestore ona izatea dela"**

Patxi Basauri > Alkatea  
2006.02.06

POLITIKA > UDAL BATZORDEAK

## Elgeta Auzolanian taldeko bi kide batzordeetan arduradun

2003ko udal hauteskundeetan Elgeta Auzolanian plataforma legez kanpo utzi zuten. Ordutik, plataformako hautetsiek edozein herritarrek bezala hartzen zuten parte batzordeetako bileretan. Urtarrilean, ordea, Edurne Alberdiri eta Sebastian Arantzabali Baserritarren batzordearen eta

Euskara eta Gaztedia azpibatzaordeen ardura eman zieten, hurrenez hurren. Batzorde horien jarraipena egitea dagokie; edozein ere, ez dute osoko bilkuretan bozkatzeko aukerarik.

Udal batzorde-buru guztiak, baina, EAJ-EAko zinegotziak dira.

KIROLA > EGOKI TALDEA

## Kirola bultzatzeko Egoki taldea aurkeztu zuten

Talde izaerarekin kirol jarduerak antolatzen 2005eko ekainean hasi baziren ere, Egoki (Elgetan Gozatu Kirolaz) taldeak 2006ko otsailean egin zuen aurkezpena. Taldearen helburua da herrian kirola bultzatzea eta Elgetan antolatzen diren kirol jarduerak koordinatzea.

Ozkarbi pilota elkarteko, txirrindulari elkarteko eta Maala guraso elkarteko ordezkarietz gain, kirola egitea gustuko duten herritarrek daude taldean.

Hainbat jarduera antolatu dituzte Egokikoek: mendi irteerak, mendi bizikleta ibilaldiak, boleta eta pilota txapelketak...

> BIDEAK

## Ezadostasunak izan ziren baserri bideen eskualdatzei buruz

Larragibel, Egoetxeaga eta Arantzeta Zeharra auzoetako bideak Udalaren esku lagatzeko eskaria egin zuen Udalak. Horrela, hura arduratuko litzateke mantentze-lanez. Aralarrek ezadostasuna azaldu zuen gai horren aurrean, "baserritarren batzordeko ezadostasunak agerian utzi zituztelako".

> JAIOTZAK

## Elgetako Iker Gonzalez izan zen 2006ko lehen debagoiendarra

Argazkian gurasoekin agertzen den mutikoa urtarrilaren 2an jaio zen eskualde ospitalean. Iker Gonzalez Sanchez elgetarra 2006an jaiotako lehen debagoiendarra izan zen. Cristina eta Juan Carlos dira haren gurasoak. Gainera, urtarrilean lau ume bataiatu zituzten Elgetako parrokiak: June Bolinaga, Lorea Gartzia, Aitana Zubeldia eta Pablo Egizabal.



Iker Gonzalez, gurasoekin.

> UDAL AURREKONTUA

## Hiru milioi eta erditik gorako aurrekontua onartu zuten

Udalbatzak 3.622.799 euroko aurrekontua onartu zuen 2006rako. EAJ-EAK hasieran proposatutako aurrekontuari aldaketak egin ostean, euren aldeko eta Aralarren aurkako botoekin onartu zuten udalbatzarrean. Aurrekontu proposamenaren eta azkenean onartutakoaren arteko aldea 3.774 euro izan zen.

> AISIALDIA

## Gaztelekua zabaldu zuten Ozkarbiko azken solairuan

Aste bukaeretan 11 eta 16 urte bitarteko neska-mutikoen aisialdirako gune izateko asmoz, gaztelekua zabaldu zuten otsailaren erdialdean. Ozkarbi elkarteko azken solairuan dago. Gazteek, horrela, egoteko leku bat izan dute eta bide batez euren abileziak eta nahiak garatzeko aukera ere izan dute bertan, tailer, ikastaro... antolatu baitituzte.

> GERRA ZIBILA

## Europatik bisitan etorri ziren, gerrak emandakoak ikustera

Gernika Gogoratzu taldeak gonbidatuta Europako 15 lagun izan ziren Elgetan, Espainiako gerra zer izan zen eta nola bizi izan zuten ezagutzen. Bittor Garai elgetarrak Antsutegi baserriaren aldamenean azaldu zien nola hil zuten aita etxe ondoan eta non lurperatu zuten beste sei lagunekin batera. Urtetako isiltasunak harritu zituen bisitariak.

Atzoko eta gaurko gudarien omenez

# Intxortara igoera



Hilleko lehenengo domekan,  
urtarrilak 7xan

11:00etan  
Intxortako tontorrian  
Hamaiketakua  
+  
Omenaldixa

gero Elgetan...  
...Triki-poteua  
...14:30ak aldirian  
Bazkari herrikoia

# MARTXOA



**"Bezeroen eskarietara moldatuko dugu Bolatokiko jarduna"**


Jose Monterroso > Bolatokiko tabernaria / 2006.03.17



**"Gitarra jo eta abesten dut gustuko dudalako, ez jendeak entzuteko"**

Izaskun Ojanguren > Musikaria / 2006.03.10

# APIRILA



**"Botikak erosteko txartela erakutsi beharrak ez du nire kontsultan aldaketa handirik eragin"**

Iñaki Urgoitia > Sendagilea / 2006.04.10

UDALTALDE 21 > IRAUNKORTASUN GALDEKETA

## Etxebizitzak, drogak eta oinezkoen gunek, kezka

Elgetarrek iraunkortasunaren gainean duten iritzia jaso zuten inkesta bidez, Udaltalde 21 planaren barruan.

Eta, inkesta horren arabera, herriarekiko poztasun maila 3,16 da, 1etik 4ra bitarteko puntuazio eskalan; eskualdearekiko, berriz, 3,2.

### KEZKA NAGUSIAK

Oro har pozik badaude ere, badi-ra zenbait gai herritarrak kezkatzen dituztenak: etxebizitza, drogak, oinezkoendako gunek, gazteendako zerbitzuak, turismoa, eskola porrota, lehen sektorea, garraio publikoa, merkataritza eta pobrezia.



Elgetarren kezka nagusiak dira etxebizitzarako sarrera, kalitatea eta prezioa.

> ETXEBIZITZAK

### Urbanizazio lanak hasi zituzten Torrealdean

Atzerapen eta kexen ostean, martxoaren amaieran hasi ziren makinak lanean Torrealdean. Inguru hartako etxebizitza libreak ere amaitzear ziren ordurako. Torrealdean eraiki beharreko babes ofizialeko etxebizitzak datorren urteko irailerako edo urrirako amaitzea espero dute Udaleko ordezkariak.

> GAZTETXEA

### Hamargarren urteurrena ospatu zuten gazteek

Martxoan bete ziren hamar urte gaztetxea zabaldu zutela. Eta urteurrena ospatzeko, hilabeteen barrena ekitaldi ugari egin zituzten herriko gazteek antolatuta. Besteak beste, herri bazkaria, kontzertuak eta hamar urte hauetan barrena gaztetxean lanean jardundakoen arteko berbaldia izan ziren.

KIROLAK > PILOTALEKUAREN INAUGURAZIOA

## Frontoia inauguratu zuten berrikuntzak egin ostean

Pilotalekua erabat itxura berri ostean inaugurazioa egin zuten apirilaren 8an.

Pilotalekua 1966an inauguratu zuten lehen aldiz eta ordutik berriro gabe zegoen. Uralitazko teilatua kendu eta egurrez eta teilaz egin dute berria; argiztapena ere berriro dute; baina hobekuntza

handiena berogailu sisteman egin dute; harmailak 20 gradura egon daitezke eta kantxa 10era.


### PILOTARI EZAGUNAK

Inaugurazio ekitaldian, Mikel Goñi eta Eneko Galartzak irabazi zuten Xabier Ubera eta Jose Mari Zezeaga etxearen aurka.

> TELEBISTA

### 'Kalaka' saioaren promoziorako bideoa Espaloian filmatu zuten

Euskal Telebistan Xabier Euzkitzek gidatzen duen *Kalaka* solasaldi saiorako promozio bideoa filmatu zuten Aste Santu aurretik Espaloia antzokian. Aurkezlearekin batera bideoaren zuzendaria, zortzi teknikari eta 20 estra izan ziren Elgetan. Bideoarako Espaloia aukeratu zuten, saioak bezala estetika ausarta duelako, besteak beste.



Xabier Euzkitze, Espaloian.

*Elena Elkorok zorionik beroenak  
opa dizkizue elgetar guztioi.  
Zorionak eta urte berri on!*



## SAIOA ARANZABAL MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea •
- Reflexologia •
- Hidromasajea •
- Kirol masajea •
- Podologia •
- Solariuma •
- Drenaje linfatikoa •
- Algekin eginiko estalkia •
- Depilazioa laser bidez •

*Urte berri on!*

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko

# MAIATZA

# EKAINA



**"Elgetan koalizioaren formula oso egokia izan da eta Gipuzkoako Foru Aldundian ere baliotsua"**

Iñaki Ugarteburu > EAKo zinegotzia  
2006.05.08



**"Elgeta inguruan ibiltzen naiz bizikletan entrenatzen"**

Jone Muxika > Txirrindularia  
2006.06.19



**"Jaietan euskara erabili: eskaintzeko, eskatzeko, ligatzeko..."**

Sebas Arantzabal > Langilea  
2006.06.30

**KULTURA** > 'ELGETA'-RI OMENALDIA

## 'Elgeta' trikitilaria omentzeko trikiti jaialdia egin zuten

Jazinto Rivas *Elgeta* trikitilari donostiarra jaio zeneko ehungarren urteurrena zela eta haren omenez trikitixa jaialdia egin zuten Espaloia Kafe Antzokian. Jaialdia gertatzen Joseba Tapia soinu-joleak jardun zuten. Tapia *Elgeta*-ren ikasleen iloba eta ikasle izan zen.

**TRIKITILARI EZAGUNAK**

Jaialdian trikitilari ezagunek hartu zuten parte: Tapia eta Leturiak; Epelarre eta Zabalek; eta Laja eta Landakandak, hain zuten ere. Emanaldiari kabaret antza eman zioten eta aktore lanetan Patxi Santamariak eta Inazio Tolosak jardun zuten.

> IKUSKIZUNAK

**Magia mostra arrakastatsua egin zuten Espaloian**

Bigarren magia mostra egin zuten maiatzean. Ilusionismoak eta magiak erakarrira jende asko gerturatu zen Elgetara kaleko zein Espaloiko ikuskizunekin gozatzen. Kartekin, globoekin, gauzak desagerraraziz... trikimailu ugari egin zituzten magoek. Magoak ez ezik plazagizonak ere badirela erakutsi zuten eta ikusleen saria Migue magoak jaso zuten.

> ELIZA

**Sakristiako teilatua konpontzeko lanak hasi zituzten**

Apirilean hasi eta maiatzean barrena parrokiako sakristiako teilatua konpontzeko lanak egin zituzten. Orain dela 14 urte elizako teilatua berritu zuten, eta sakristiakoaren txanda izan da aurten. Teila zaharrak kendu eta egitura berritu ostean teila berriak ipini zituzten. Horretarako, besteak beste, eliztarren dirulaguntza jaso zuten.

**ETXEBIZITZAK** > BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK

## Madrazok lehen harria ipini zuen Torrealdean

Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako sailburu Javier Madrazok lehen harria ipini zuen Torrealdean, babes ofizialeko 20 etxebizitza egiten diharduten tokian. Datoren urteko azaroan izendatutako jabeei giltzak ematea aurreikusi dute.

**BIZIGUNE PROGRAMA**

Bide batez, sailburuak, alkateak eta Suradesako gerenteak hutsik dauden etxebizitzak errentan emateko Bizigune programaren akordioa sinatu zuten. Egun berean jakinarazi zuten etxebizitzak berritzeko 86 eskari jaso zituztela



Patxi Basauri alkatearekin batera ipini zuten lehen harria Javier Madrazok.

> OMENALDIA

**'Errementariko ahizpa' jostunak omentu zituzten**

Jaietan, erretiratuen egunean, omenaldia egin zieten Maria Luisa eta Maria Angeles *Errementariko ahizpei* euren ibilbidea sarituz. Urte askoan jostun onak izan ziren bi ahizpak. Madrilen eta Sevillan ikasi ostean jantzi doto-reak egin zituzten. Eurek egindako lanak plazan ipini zituzten ikusgai.

> UDALA

**Inbertsioetarako 700.000 euro eskatu zituen Udalak**

Aurreikusitako diru sarrerak atzeratu egin zirenez, diruzaintza egitea onartu zuten osoko bilkuran. Egindako inbertsioei aurre egiteko 700.000 euro eskatu zituen. Sarrerak Torrealdeko garajeen salmentatik, industriagunetik eta eraikuntza zergetatik jasoko ditu Udalak. Aralarrek aurkako jarrera azaldu zuten.

**I  
L  
E  
A** ILEAPAINDECIA

**Marijok Gabon zoriontsuak opa dizkizue**

Andra Mari plaza 2 • Tel.: 943 76 81 97  
20690 ELGETA



**GABON ZORIONTSUAK IGARO!**



**INDUSTRIAS EVE, SA**  
*Trokelgintza eta estanpazioa*

Pagatza polig. Elgeta. 943 76 80 99

# UZTAILA



**"Pilotarekin gozatu egiten dudan bitartean jarraitzeko asmoa dut"**

Xabier Uberta > Pilotaria  
2006.07.14



**"Txirrindulari kantitatea baino kalitatea behar dugu"**

Emilio Mandaluniz >  
Txirrindulari elkarte/2006.07.14

# ABUZZTUA



**"Debagoienara, Elgetara behintzat, etorri dira turistak. Dauden lo-leku apurrak beteta egon dira"**

Iban Arantzabal > Goienako ikus-entzunekeen zuzendaria / 2006.01.01

ENPRESA > KALERATZEA

## Alufersako langile baten kaleratzea salatu dute

LAB sindikatuak deituta agerria egin zuten, salatzean Alufersa lantegitik langile bat kaleratu egin zutela. Kaleratzea bidegabea izan zela esan zuten.

Alufersa enpresan bederatzirehun laneko ziharduen gizonen artean finkoa zuten.

**DISKRIMINAZIOA**

Alufersan hauteskunde sindikalak egiteke zeuden eta LABeko hautagaia kaleratu zuten. LABekoen esanetan, "diskriminazio sindikala" izan zen.

Enpresako arduradunek esan zuten kanporatzea enpresa arrazoiengatik izan zela.

> JAIK

## Jaietan herritarren parte-hartzea azpimarratu zuten

Azoka Nagusiko jaien ostean, antolatzaileek herritarren parte-hartzea azpimarratu zuten. Mozorro egunean zein beste ekitaldi batzuetan herritarrek egindako lana eskertu zuten. Egunk arrakastatsuen zapatua izan zela esan zuten: astokarrerak, paella-janak, zezenketak eta danborradak jende asko erakarri zuten.

SANEAMENDUA > ARRATOIEN AURKAKO KANPAINA

## Pozoia ipini zuten udan kaleetan arratoiaren aurka

Uztailaren amaieran hasi eta abuztuaren eta irailean barrena ere egin zuten arratoiaren kontrako kanpaina.

Arratoiaren kontrako pozoia saneamendu estolden inguruan eta berdeguneetan ipini zuten, batez ere, arratoiak zuloak egin zituzten lekuetan.

**AURTEN GEHIAGO**

Kanpaina aurreratu egin behar izan zuten obrak zirela eta arratoi gehiago zebiltzala sumatu zutelako.

Ez dute sekula kalkulatu zenbat arratoi hiltzen diren, baina neurri eraginkorra dela azpimarratu zuten Udaletik.

> PARKEA

## Maalako parkeko ermitatxoia inauguratu egin zuten

Maalako parke erabat berri zuten, berdeguneak, ziburuak eta bankuak ipinita. Horretaz gain, Magdalenako Ama Birjinaren irudia gordetzen duen ermita modernoa ere egin zuten garai batean ermita zegoen leku berean. Magdalena eguna aukeratu zuten, hain zuzen ere, inaugurazio ekitaldirako. Parrokoak esan zuten meza bertan.



Maalako parke berria dago ermita modernoa lehengo zegoen tokian.

> ETXEBIZITZAK

## Ezagutzera eman zuten Uruburuko etxe tasatuen jabeen zerrenda

Uruburun egingo dituzten etxebizitzak tasatuen zerrenda eman zuten. Zozketa egin ostean, 18 lagunekoa zerrenda atera zuten. 64 eta 75 metro koadro arteko 18 etxebizitza tasatu egingo dituzte Uruburun eta 2008ko maiatzeko amaierara espero dute. Etxebizitza tasatuz gain, libreak ere eraikiko dituzte Uruburun.




Etxe libreak ere egingo dira Uruburun.



## BARRENENGUA BASERRI TURISMOA

Egoetxeaga auzoa  
20690 ELGETA  
Tel.: 943 76 82 21

Urte berri on  
zoriontsua!



# TER 2 SA

**Gabon  
zoriontsuak  
igaro!**

Indusketak • Garraioak • Lur-mugimenduak

Bulegoak: 943 76 18 34  
Faxa: 943 76 03 08 BERGARA


# IRAILA

# URRIA



**"Motorrok antzinako gauzek duten zer hori daukate; jendeari gustatzen zaio ikustea lehen zela ibiltzen ziren"**

Fermin Iribar > Motor zalea  
2006.09.23



**"Hemengo enpresek igarri dituzte industria sektorearen arriskuak"**

Eduardo Zubiaurre > Adegiko presidentea / 2006.10.20



**"Futboleko ostikoak moduan, politikakoak ere osatu egiten dira"**

Oxel Erostarbe > Aralarreko zinegotzia / 2006.10.27

ERREPIDEAK > GI-2632-KO LANAK

## Errepideak konpontzeko lanak hasi zituzten bi zatitan

GI-2632 errepideko bi zati konpontzeko lanak hasi ziren. Horrela, egokitu egin nahi dute bidea azken 20 urteetan zirkulazioak kalteak eragin dituelako.

Elgetan bi errepide zatitan egin dituzte lanak: Pagatza industrialdetik Bizkaiko mugara bitarteko lanekin hasi ziren lehenen-

go; eta ondoren, Altube baserri-  
tik Jalotza baserriaren parera  
doan zatia.

**ZORUA ETA AREKAK**

Batetik, zorua berritu dute, zoladura altxatuta zegoelako; eta bestetik, areka berriak egin zituzten bi errepide tarte horietan.

> OSPAKIZUNAK

### Baserriko produktuen azoka eta Sagardo Eguna bateratu zituzten

Irailaren bukaeran ohikoa izan da azken urteotan Sagardo Eguna ospatzea. Aurten ere gaztetxe-koak arduratu ziren antolaketaz eta sagardo kupelik eta tortilla txapelketarik ez zen falta izan. Baina aurtengoak izan du berrikuntzarik; Udalaren eskutik herriko baserriarrek azoka ipini zuten euren produktuekin. Guztira, 14 postu izan ziren.

> AZPIEGITURAK

### Artekalean hoditeria berritzeko proiektua egitea adostu zuten

Orain dagoen hodia txiki dela eta erabaki zuten hodi handiago sartzeko Artekalean. Frontoi ertze-  
tik Domingo Iturbera joango litza-  
teke hodia. Horrela lortu nahi  
dute Uruburuko etxe berrietara  
ura eramatea eta ur emaria ber-  
matzea. Bestalde, hodi berria San  
Roke kalekoarekin elkartu nahi  
dute ur mozketarik balego kale  
guztia ur barik ez lagatzeko.

ERRETIRATUAK > OZKARBI ELKARTEA

## Ozkarbi erabiltzeko ordaina eskatu zieten erretiratuei

Ozkarbi elkarteak batzarra egin zuen erabakitzeko zein izango den erretiratuen etorkizuna elkartearen barruan.

Udalari 9.000 euroko laguntza eskatu arren, ez zuten tratirik lortu; beraz, erabaki zuten erretiratuen elkarteari zuzenean eskatzea zegoen kopurua.

**ERRETIRATUEK OZKARBIN NAHI**

Erretiratuak Ozkarbin gustura zeudela esan zuten, eta bertan jarraitzea da euren nahia, baina erretiratuen kutxan ez zegoela gastu horiei aurre egiteko adina diru. Urtean barrena hainbat batzar egin dira gaia argitu nahian.



Ozkarbi elkarteak 288 bazkide ditu eta erretiratuen elkarteak 178.

> INGURUMENA

### Zabortegei klandestinoak aurkitu zuten Egoetxeagan

Maya ingurumen taldearen deiari erantzunez, hamabi lagun joan ziren Asentzio ingurura zabaorrak biltzera. Zigarrokin, plastiko, lata... jasota sei zaku bete zituzten. Egoetxeaga auzoan, gainera, zabortegei klandestinoak aurkitu zuten eta udaletxean salaketa jartzeko asmoa azaldu zuten.

> HIRIGINTZA

### Torrealdean auzora sartzeko errail berria egiten hasi ziren

Herriko sarreran Espaloia-  
ren azpiko aldean bidea zabaltzeko obrak hasi zituzten. Torrealdearako sarrera erraztea dute helburu lanok. Horretarako, errail berria ipiniko dute autoak Bergaratik datozenean Torrealdeara sartzeko stop egin dezaten. Lanak amaitsu bitartean trafikoa semaforoekin erregulatu zuten.

# BOLATOKI t a b e r n a

## Ondo ibili Gabonetan!

Artekalea 2 Elgeta  
Tel.: 943 76 82 84





# AZAROA



**"Neguan ekintzak egiteko toki egokia da ludoteka"**

Enara Merino > Ludotekakoo begiralea / 2006.11.10



**"Gurpildun aulkian gabitzanok oztopo asko ditugu herrian"**

Nekane Esposito > Pentsioduna 2006.11.17

# ABENDUA



**"DV gehien saltzen bada, arrazoa da Gipuzkoako abertzaleok ez dugula jakin egunkari dezente bat sortzen"**

Jabier Arantzeta > Irakaslea 2006.12.18

**KIROLA > FUTBOL TALDEA**

## Sailkapeneko lehen tokian jarri zen herriko taldea

Irailan, denboraldia hasi zenean aurkeztu zuten Elgetako Futbol Taldea. Beste herrietako taldeetara joan barik, herrian bertan futboleko jokatzeko gogoz ziren hainbat elgetarren ideiatik sortu zen, eta inguruko hainbat jokalarirekin batera taldean.

Bigarren Erregional mailan jokatzeko zuten, eta herrian zelairik ezean, Eibarren, Unben, egiten dituzte entrenamenduak, baita etxeko partiduak jokatu ere.

Azaroaren hasieran bere mailako sailkapeneko lehen tokia hartu zuen.



Elgetarrek herrian bertan sortu zuten taldea beste herri batzuetara joan barik.

**> BAKE EPAITEGIA**

## Pedro Mari Ubera izendatu zuten, berriro, bake epaile

Hiru urte karguan egin ostean, bake epaile lanetan jarraitzeko proposatu zuten Pedro Mari Ubera. Ezkontza zein jaiotza agiriak eta bestelako agiri ofizialak martitzenetan egiten dituzte, eta Uberak eguerdian sinatzen ditu. Gainera, eskaria egin dute aurtengo heriotza agiriak ere herrian bertan egiteko.

**> AISIALDIA**

## Ludoteka eta gaztelekua zabaldu zituzten

Elgetako haurrek eta gazte txoekekin negu partean aisialdirako izan ohi dituzten txokak zabaldu zituzten azaroan barrena. Ludoteka aste barruan egoten da zabalik, kultura etxeko gela batean: gaztelekua lekuz aldatu dute aurtengo eta gazte txoekekin eskola zaharretan elkartzen dira aste bukaeretan.

**ETXEBIZITZAK > URBANIZAZIO LANAK GELDI**

## Torrealdean gasik gabe eta obrako argiarekin bizi izaten

Uztailan eman zieten bizigarritasun baimena Torrealdeko bizilagunei. Abenduan oraindik gas, telefono eta argindar konpainietan altarik hartu gabe zeuden, hauek ingurua urbanizatuta izatea eskatzen dutelako. Bitartean, bonbona probisionalekin eta obrako argindarrarekin bizi dira.

**URUBURUKO TASATUAK**

Uruburuko etxebizitzak tasatuak egiten abenduren amaieran hasitakoak zirela jakinarazi zuten. Obrako hasierako proiektuan agertzen ez bazen ere, gerora aurreikusitako zuten transformadorea ipintzea eraikinaren azpian, eta horrek kezka sortu zuen.



Torrealdeko bizilagunek eskatu zuten urbanizazio lanak lehenbailehen egiteko.



**UGARI**

**Beak Gabon zoriontsuak opa dizkizue!**

Andra Mari 2 ELGETA Tel.:943 76 80 98

**ELGETA  
AUTOAK**




Berraondokoa z/g ELGETA • Tel.: 943 76 82 02 Faxa: 943 76 82 98

**Zorionak eta urte berri on guztioi!**

# integratzailea anitza euskalduna dohaina

BERGARAKO  
IKASTETXE  
PUBLIKOAK



## IPINTZA

DBH (12-16 urte)  
BATXILERGOA (16-18 urte)  
Giza eta gizarte Zientziak  
Natur eta Osasun Zientziak  
Teknologikoa

Boni Laskurain 17-19  
Tel.: 943 76 31 42 / 43  
012981aa@hezkuntza.net  
www.goieskola.net/ipintza/



## HHE-EPA

(18 urtetik gorakoentzako)  
Alfabetizazioa (etorkinentzako)  
Kultura orokorra  
DBH  
Unibertsitatean sartzeko kurtsoa  
Alfa karneta  
Euskara eta Ingelesa

Barrenkale 33-2  
Tel.: 943 76 44 52  
012266aa@hezkuntza.net



## SAN MARTIN

HAUR HEZKUNTZA (3-6 urte)  
LEHEN HEZKUNTZA (6-12 urte)  
Boni Laskurain 25  
Tel.: 943 76 21 47  
012265aa@hezkuntza.net  
www.goieskola.net/SanMartinAgirreEskola



## M. ALTUNA

LANBIDE HEZIKETA  
Erdi Mailako  
Zikloak  
(16 urtetik aurrera)  
Goi Mailako Zikloak  
(18 urtetik aurrera)  
• Mekanika  
• Elektrizitatea  
• Administrazioa  
• Plastikoak eta kautxoak



ES-0528/2/198



Ezkaintza partziala  
Zikloetan sartzeko kurtsoa  
Ibargarai 1  
Tel.: 943 76 24 91 / 76 38 40  
imaltuna@sarenet.es  
www.imaltuna.com



SAN MARTIN - IPINTZA - M. ALTUNA - HHE-EPA  
B e r g a r a k o i k a s t e t x e p u b l i k o a k

**argazki zaharra****Kantuan,  
sierben alde**

1960ko hamarkadan ateratako argazkia da eskumakoa. Hor azaltzen diren gazteak sierben aldeko dirua batzera atera ziren kantuan. Goian: Juan Gallastegi, Jose Alberdi, Jose Luis Mendizabal, Luis Elortza, Fernando Coranti, Juan Mari Garitano, Javier Zabaleta, Luis Mari Beistegi, Jose Luis Gallastegi eta Bittor Satorretxe; erdian, Jose Garitano, Jose Mari Larrañaga, Javier Mendizabal, Patxi Leturia, Javier Lizarralde, Juan Mari Alberdi, Luis Belastegi, Basabe, Tomas Barrena, Fernando Ezenarro, Juan Mari Ruiz de Egin, Justo Idigoras, Alberto Lonbide eta Jose Antonio Agirrebeña; behean, Miguel Angel Ibartzabal, Inazio Alberdi, Martinez, Carlos Oteiza, Sabin Gallastegi, Jesus Ostolaza, Corral, Jose Luis Lopez, Latorre, Basilio Gisasola, Miguel Lazpiur, Javier Juaristi, Fernando Gardoki, Carlos Gallastegi eta Iñaki Marzan.



**Argazkia:** Udal Artxiboko fondoa  
(Luis Mari Lonbide).

# *Aurten, Errege gaua gurean ospatu!*



## **LASA** jatetxea

Ozaeta jauregia  
Tel.: 943 76 10 55  
**BERGARA**

# DESA CRISTAL

- Ibilgailuendako kristalak
- Kamioiak • furgonetak • automobilak • autobusak
- Era guztietako kristalen muntaia
- Baimendutako Solar-Check laminen instalazioa

TAILERRA ETA BULEGOAK: Santalaitz 4-5. pabilioia.  
83 posta-kutxa  
Tel.: 943 76 36 09 • Faxa: 943 76 73 45  
20570 BERGARA

TAILERRA: Ibaiondo bailara 17-8. pabilioia.  
Tel.: 943 69 16 16 • Faxa: 943 69 12 47  
20271 IRURA



## Jean Louis David®

### AUSART ZAITEZ!

#### TRADITION

Ibargarai 43 • 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 22 48

#### DIFFUSION

#### QUICK SERVICE

Magdalena 16 • 01008 GASTEIZ • Tel.: 945 13 47 26

#### DIFFUSION

Garbera Merkataritza etxea 23 aretoa  
20017 DONOSTIA • Tel.: 943 39 45 86

#### DIFFUSION

Urbil Merkataritza etxea B7 aretoa.  
20170 USURBIL • Tel.: 943 36 08 17

#### DIFFUSION


Lakua Merkataritza etxea 05 aretoa  
01010 GASTEIZ • Tel.: 945 17 91 50

#### BULEGO ZENTRALA TRAINING CENTER

Gasteiz Etorbidea 84  
01012 GASTEIZ • Tel.: 945 21 42 38

Jean Louis David ile apaindegiaren izenean  
Gabon jai zoriontsuak bergarar guztioi!

# BOLU SUKALDEAK



2000 eguneko  
garantia.  
Aurrekontua  
konpromiso  
gabe.



Urte berri on!



Bolu 22 - behea. BERGARA. Telefonoa eta faxa: 943 76 27 02

# ELKAR

## ELEKTRAGINTZA

ZURE  
ZERBITZURA!!

### Mota guztietako instalazioak



943 76 00 00

Koldo Eleizalde, 8.

## BERGARA